

BIZKAITARROK  
*garaile!*  
para decidirlo  
*todo*

**FORU  
HAUTESKUNDEETARAKO  
PROGRAMA**

**Bizkaia 2015**

## AURKIBIDEA

### Bizkaian lan egin eta bizi nahi dugu #BizkaiaGorria

1.1 Politika fiskala .....	4
1.2 Gizarte politikak .....	8
1.3 Lurralde garapena eta enplegua .....	12
1.3.1 Industria .....	16
1.3.2 Enplegua .....	18
1.3.3 Tokiko garapena .....	19
1.3.4 Merkataritza .....	20
1.3.5 Turismoa .....	21
1.4 Etxebizitza .....	23

### Bizkaia iraunkorrerantz bidea egiten ari gara #BizkaiaBerdea

2.1 Natur baliabideak .....	27
2.1.1 Energia .....	27
2.1.2 Hondakinak .....	30
2.1.3 Basogintza .....	31
2.1.4 Ura .....	32
2.2 Elikadura burujabetza .....	33
2.3 Lurralde antolaketa eta hirigintza .....	38

### Behetik gora eraikitzen ari garen Bizkaia #BizkaiaHoria

3.1 Gazte politika .....	43
3.2 Gardentasuna eta parte-hartzea .....	44
3.3 Laikotasuna .....	46

### Elkarrekin eraikitzen ari garen Bizkaia askea #BizkaiaMorea

4.1 Politika feminista .....	47
4.2 Jatorri eta kultur aniztasuna .....	49
4.3 Aniztasun funtzionala .....	53
4.4 Aniztasun sexuala .....	56
4.5 Adinduak .....	57
4.6 Lankidetzeta .....	59
4.7 Giza eskubideak eta memoria historikoa .....	60

### Euskaraz eta euskaratik bizi den Bizkaia #BizkaiaUrdina

5.1 Hizkuntza .....	64
5.2 Kultura .....	68
5.3 Kirola .....	69

## SAR HITZA

Herritarren garaia da bai, herritarrok garaile izaten hasteko garaia! Iritsi da herritarrek bitzta publikoa erregulatzen duten prozesu guztien kontrola berreskuratzeko garaia. Badago eta beharra! Klientelismoa, lagunkeria, iruzurra edota ate birakariak bezalako hitzak halaberrez gehitu behar izan ditugu gure hiztegiatara azken bolada honetan. Diru publikoa gure begien aurrean xahutu den hamarnaka kasu ezagutu ditugu telebista eta egunkarien bidez. Gogaitzeraino nekatzen gaitu gutxi batzuen interesen menpeko zuri-beltzeko politikagintza honek.

Krisia bizi dugu, krisi askotarikoa; ekonomikoa eta soziala hasteko, gure herrialdea nabarmen astindu baitute langabeziak eta prekaritateak azken lau urteetan. Eskualde batzuetan %20-tik gorako langabezia tasa dugu egun, eta orotara sinatzen diren kontratuen %95 inguru aldi baterakoak dira. Emakumeak eta gazteak dira sektore prekarizatuenak. Ondorioz, bazterketa sozialak eta pobrezia nabarmen egin du gora. Nabarmentzekoa da azken lau urteetan pairatu dugun etxe-kaleratzeen drama soziala.

Krisitik ateratzen ari garela errepikatuz krisi aurreko garaien ilusioa saldu nahian dabilzan horiek ez dute ezer ulertu kasurik onenean. Kasurik txarrenean jendartea otzandu eta gutxi batzuen interesak babestea helburu duten politikekin jarraitzea desio dute. Izan ere, gure ehun produktiboak egiturazko arazoak ditu: Bizkaiko ekonomiaren motorra den industriaren zati handiena maila teknologiko ertain-baxukoa da eta energia kontsumo handia dauka. Aldi berean, ikerketa eta garapenean egiten den inbertsioa Europako lurralde aurreratuenean batz-bestekotik oso behera dago.

Bukatu da porlanaren ekonomiaren garaia, planifikazio gabeko azpiegitura handiekin zorpetu gaituen garapen eredu desarrollistaren garaia, tokiko ekonomia erreala ahuldu duen finantza ekonomia espekulatzailaren garaia. Garapen eredu orekatu, dibertsifikatu eta iraunkorrari bidea ireki behar zaio. Guztion bitzta duina bermatzeko ezinbestekoa den lana, produktiboa eta erreproduktiboa beste era batera antolatzeke garaia da. Eraiki dezagun behetik gora Bizkaia barria!

EH Bilduk lau zutabeko Bizkaia barria proposatzen du:

1. Inor ez dadila bide bazterrean gelditu.
2. Bizitze ona helburu, trantsizio sozial eta ekologikoari heldu behar zaio.
3. Gehien dutenenek gehiago ordaindu behar dute.
4. Erabakiak hemen hartu behar ditugu. Dena erabaki nahi dugu dena aldatzeko.

Dokumentu honetan 2015eko Foru hauteskundeetarako programa aurkituko duzu, aipatu lau zutabeetako bakoitzean Bizkaia barria eraikitzen jarraitzeko proposatzen ditugun neurri izarrak jasotzen dituen. Lau ataletan antolatu dugu programa hau: Bizkaian lan egin eta bizi nahi dugu (**#BizkaiaGorria**), Bizkaia iraunkorrerantz bidea egiten ari gara (**#BizkaiaBerdea**), Behetik gora eraikitzen ari garen Bizkaia (**#BizkaiaHoria**), Elkarrekin erakitzen ari garen Bizkaia askea (**#BizkaiaMorea**), Euskaraz eta euskaratik bizi den Bizkaia (**#BizkaiaUrdina**).

Programa hau [www.ehbildu.eus](http://www.ehbildu.eus) helbidean ere baduzu eskuragarri formatu digitalean.



# BIZKAIAN LAN EGIN ETA BIZI NAHI DUGU #BIZKAIAGORRIA


## 1.1. POLITIKA FISKALA

Kontrakoa sinistarazi nahi izan duten arren, ez dago fiskalitate bakarra. Fiskalitate eredu ezberdinak daude. Badago aukera fiskalitate aurrerakoi eta aurreratu bat egiteko. Gipuzkoan frogatu da egingarria dela eta emaitza positiboak izan dituela. Euskal gizarteak aurrera egiteko, gizarte kohesionatu bat izan behar du, ongizate baldintza duinak bermatzen dituen gizarte bat eta ekonomia moderno baterako oinarriak jartzen dituen sektore publiko bat behar du. Hori ahalbideratuko duena da Euskal Herriak behar duen zerga sistema.


Azken hamarkadetan Batzar Nagusietan planteatu diren erreforma fiskal guztietan PNV-PP-PSEk neoliberalismoaren teoriak jarraitu izan dituzte. 2011an Gipuzkoako Foru Aldundia gobernatzen hasi ginenean tendentzia hori apurtu nahi genuela esan genuen. Baina kontzienteak ginen ezinezkoa zela oso denbora gutxitan gauza guztiak aldatzea. Hau dela eta pixkanaka hasi ginen zerga aldaketak planteatzen eta kasu batzuetan zerga berri batzuk sortu ere. Gipuzkoako ekimen hauekin eztabaida fiskala zabaldu genuen, mugarik gabe gainera, eta eliteen kontroletik at lehenengo aldiz. Bizkaian fiskalitate justu bat izatetik urruti gaude eta norabide horretan urratsak ematen hasi behar gara.

### Progresibitate eza


Urkullu jaunak 2012an "Es una demagogia que paguen más impuestos los que más ganan" esan zuen bere benetako iritzia agerian utziz. Horregatik, ez da kasualitatea Bizkaiaiko zerga sistema goitik behera erregresiboa izatea. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ez da progresiboa aberatsenetan aberatsenak benetako zerga tasa baxuagoa lortzen bait dute kapitalaren errentek duten tributazio mesedegarriagoari esker.



Sozietateen gaineko Zergan are deigarriagoa da progresibitate falta. Enpresek irabazi gehiago dituzten heinean benetan ordaintzen duten zerga tasa baxuagoa bait da. Ekitaterik gabeko egoera hau kenkariaren nahaspilaren erruz suertatzen da. Bizkaiaiko ogasunaren memoriaren arabera, sozietateen gaineko zergan 556M€ galdu ziren bildu barik, horien erdia 8 enpresa handienek irentsi zituztelarik. Sozietateen gaineko zerga goitik behera aldatu behar da, diru gehien irabazten duten enpresek gehiago ordaindu dezaten. Bizkaiaiko 3 enpresetatik 2k ez dute irabazirik eta beraz, ez dute zerga ordaintzen. Orain arte %28ko zerga tasa izan arren enpresa handienak, batzaz beste, %14 ordaintzen dute soilik.



Ondarearen gaineko zerga ere progresibitate faltaren adibide deigarria da. Ezkutu fiskalari esker aberatsenetan aberatsenak direnek 56.5M€ gutxiago ordaindu behar izan zituzten zerga honetan. Eskutu fiskalak 12M€ baino ondare handiagoa duten Bizkaiako eliteari egiten die fabore handiena, hau da, bizkaitarren %0,01ari.



### Parte-hartze eza

Egoera tamalgarri hau urteetan ezkutuan mantendu den eztabaidaren fruitu da. Aldunditik eta Batzar Nagusietatik ez da inolako neurririk hartu adituen, sindikatuen, gizarte mugimenduen, enpresa txikien edo fiskalitate irakasleen parte-hartzea sustatzeko. Gardentasun eza izan da ezaugarri nagusia eztabaida ekiditu ahal izateko.

Legegintzaldi honetan alderdien arteko akordio bat egon da. Hainbat urtetan aldaketei ezezkoa ematen ibili dira aitzaki ezberdinak ematen: ez zela garaia, ez zela aldatu behar, egonkortasuna beharrezkoa zela, etab. Baina, Gipuzkoatik aldatu erreal bat planteatu izan denean EAJ, PSE eta PPK euren kontraerreforma inposatu dute korrika eta presaka.

### Burujabetzaren aldeko apusturik ez

BFAk ez du inoiz eskuduntzak handitzeko sakoneko proposamenik eraman. BEZa arautzeko ahalmena aldarrikatu behar dugu, burujabetzaren aldarrikapena beharrezkoa da zeharkako zerga erregresiboak aldatu ahal izateko.



### **Iruzurraren aurkako borroka**

Bizkaia beti izan da azkena iruzurraren aurkako itunetara iristen. Iniziatibarik eza izan da ezaugarri adierazgarriena arlo honetan. Jarrera proposatzailea eta proaktiboa izan beharko luke, baina ez du iruzurraren, ez elusioaren kontra ezer asko egin. Honen adibide da, iruzurraren datuak edota zigorren kondonazioak publiko egiteari erakutsi duen jarrera ezkorra.

### **Zorpetzea**

Fiskalitate sistema ahul honek diru sarrerak ez-nahikoak izatea ekarri du. Honela, Aldundiak Supersur bezalako obra faraonikoak ordaindu ahal izateko zorpetzera jo du muga barik. Jendarteari galdetu gabe 40 urterako zorrak sinatu ditu, berauek ordaintzeko gastu sozialak jaitsez. Ezinbestekoa da zorpetze erraldoia dakarten inbertsio erraldoiak egiterako orduan prozesu parte-hartzaileak egitea honelako gehiegikeriak errepikatu ez daitezten.

## **PROPOSAMENAK**

### **Sozietateen gaineko zerga**

1. Etekinak lortzen dituzten enpresek ekarpen handiagoa egin behar diote gizarteari. Mozkinen kopuruak, askotan, ez du zerikusirik enpresaren tamainarekin. Zentzu horretan eskala bat ezartzea proposatzen dugu: 200.000€ arteko irabaziak %24a. Hortik aurrera, %28a. Modu horretan zerga progresiboagoa izango da.

Sozietateen Mozkinen gaineko Zergak bertako enpresen fondo propioak indartzea sustatu behar duela iruditzen zaigu. Batetik, enpresen kanpoko kapitalekiko dependentzia gutxitzeko, eta bestetik, lurraldearekiko konpromisoa indartzeko. Hori sustatzeko bi oinarri nagusi proposatzen ditugu: lehenengoa, gastu finantzarioak kentzeko aukera ahalbideratu behar dela, baina ez dela orain arte bezala mugagabea izan behar gastu horiek kentzeko aukera. Eta bigarrena, etekinak izan dituzten enpresei inbertsiorako eta enplegurako erreserba bat osatzeko aukera ematea. Horretara bideratzen diren baliabideak onura fiskala izango dute.

Bestalde, zerga sinplifikatu behar da, gaur egungo kenkarien nahaspila mugatuz. Ikerkuntza eta garapenean inbertitzen diren kopuruengatik kenkaria bakarrik uztea planteatzen dugu. Kenkari honek ere mugatua egon behar du, gehieneko kenkaria ez da inoiz izango kuotaren %25a baino altuagoa.

### **Aberastasuna eta fortuna handien gaineko zerga**

2. Aberatsek euren aberastasun osoagatik ordainarazi Aberastasuna eta Fortuna Handien gaineko Zergan, euren ondasunak enpresetan ezkutatu ez ditzaten. Eta bereziki, gehien bat bizkaitarren %0,01ari mesede egiten dion ezkutu fiskala ezabatu. Zerga berri honekin, ahalmen gehien duten zergadunek gehiago ordaindu beharko dute zerga sistemaren progresibitatea indartuz.

Zerga berritzaile honek, gutxienez bi elementu jaso behar ditu: batetik, ezkutu fiskala ez duela eduki behar; bestetik, enpresetako partaidetzak kontutan hartu behar direla ondareak kalkulatzeko momentuan. Azken horiek inbertsio produktiboak izanik, hobaria izango dute zerga ordaintzeko garaian.

### **Pertsona fisikoen gaineko zerga**

Ekitatea eta progresibitatea handitzeko neurriak hartu behar dira:

3. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan kapitalaren errenten zerga tasa igo. Kapitalaren errenten eta lanaren errenten zergapetzea hurbildu behar da. Norabide horretan, kapitalaren errentei aplikatzen zaizkien zerga tasak handituko dira era progresibo batean.

4. Etxebizitzaren kenkaria. Sektore publikoa indartu ahal izateko, egun daukan eragina gutxitu beharko da alokairuari lehentasuna emanez.

5. Gaur egungo sistemak umeen pobrezia arazo eragin du. Beharrezkoa iruditzen zaigu bide berriak esploratzea familia eta batez ere seme-alaben babesa indartzeko eta benetako jaiotzaren aldeko politika sustatzeko. Helburu horrekin, diru-laguntza, kenkari eta konpentsazioak orekatzen dituzten sistemak ezarriko dira.

6. Zergak saihesteko bideak ixten hasi behar gara Bizkaian. Esate baterako, baliabideak fondo batetik bestera pasatzerakoan irabazia zergatuko da; eraispen koefizienteak aldatuko dira eta atzerrira doazen pertsonak ondare irabaziengatik zergak ordaindu beharko dituzte.

### **Tokiko zergak**

Orokorrean, udal zergen kudeaketa justu bat lortzeko zergen erroldak eguneratuak izatea ezinbestekoa da. Bizkaian 40 urte daramatzagu errolda eguneratu barik Aldundiaren utzikeria dela eta. Udal tasei dagokionez, bi dira kontutan hartuko ditugun irizpideak. Alde batetik, oinarriko kontsumoak pertsonako prezio merkea izango du; eta bestetik, ondarea eta aberastasuna kontutan hartuko dira hobariak finkatzeko garaian. Elizari ematen zaion tratamendu berezitua desagertaraziko dugu.

7. Udal zergetan etxebizitza hutsei Ondasun eta Higiezin Zergen gainkarga ezartzeko aukera eman udalei. Ohiko etxebizitza ez direnen gaineko errenergia zabaltzea da gure lehentasuna hutsik dauden etxebizitzak alokatzea bultzatzeko. Bizkaiko udalek aukera izan behar dute, egokia ikusten badute, ohikoak ez diren etxebizitzaren gainean errenergia ezartzeko.

8. Ekonomia Jardueren gaineko Zergen salbuespen muga jaitsi behar da. Horrek oinarri ezargarria zabaltzen du eta Udalek baliabide gehiago jasotzeko aukera zabaltzen du. Zerga honetan aldiro ikuskaritza lana burutuko da.

### **Fiskalitate berdea**

9. Fiskalitate berdeak ingurugiro kostuak barneratzea, zenbait jokamolde sustatzea eta beste batzuk zigortzea bilatzen du. Zentzu honetan urrats batzuk eman daitezke. Ekotasa eta goi-tentsioko linearen gaineko tasak ezartzeko aukera aztertuko dugu.

### **Zerga iruzurra**

10. Zerga iruzurra desagertzea da gure helburua. Orain arte nazioarteko enpresei ez zaie ikuskaritzarik egin Bizkaian (eskumen faltagatik) eta SPEei (enpresak sustatzeko elkarteei) nahi zutena egiten utzi zaie (borondate faltagatik). Giza baliabideak eta baliabide teknologikoak gehitu behar dira iruzurraren aurkako eraginkortasuna handitzeko. Informazioaren lanketa hobetze aldera, arrisku bereziko zergadunen gaineko alarma sistema ezartzea proposatuko dugu. Alarma sistema horrek jarraipen estua eta balizko jokabide iruzurgileak garaiz antzematea ahalbidetzen du.

### **Burujabetza fiskala**

11. Balio Erantsiaren Gaineko zergaren eta bestelako zeharkako zergen gaineko eskumena Madrilen aurrean aldarrikatzeko, eta zerga guztien kudeaketa gure gain hartzeko ekinbide politikoa abiatzeko konpromisoa.



## 1.2. GIZARTE POLITIKAK

Gizarte zerbitzuak Ongizate Estatuaren oinarrietako bat dira eta eskubide unibertsal eta subjektibo gisa eratu behar dira. Hala eta guztiz ere, gizarte zerbitzu sistema ahul baten aurrean gaude, eskubide hauek bermatzeko gai ez den sistemaren aurrean: diru hornidura eskasa, pribatizazio maila altua eta lurralde desoreka izan ditu beti sistema honek.

Errealitate honen aurrean, salbuespenik gabe, pertsona guztien eskubide sozialak bermatuko dituen ardura publikoko eredu bat sortu behar dugu. Eskubide hauek modu eraginkorrean bermatzeak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema publiko, unibertsal eta lurralde guztietan komuna sortzea dakar derrigor, Ongizate Gizartearen ardatz gisa. Gure ereduak berdintasun, justizia soziala eta aberastasun birbanaketa printzipioetara egokitu behar du.

Gizarte politiken konpetentzia alorrek zainketen alderdi batengan du eragina, konkretuki, zainketa espezializatu eta intentsiboenengan. Testuinguru honetan, ezin da ukatu familia erdigune dela zainketen sisteman Hego Euskal Herrian eta, familien baitan, emakumeak dira batez ere lan hauek beren gain hartzen dituztenak. Errealitate hau ez da emakumeen aukeraketa libre baten ondorioa. Zainketen etika atzerakoi baten inposizioa da honen arrazoi nagusia eta honi gehitu egiten zaizkio sistema familiaristagoa edo ez hain familiarista sortzeko politika publiko desberdinek duten eragina. Egungo krisi egoera honetan, gainera, familiak dira ongizate kolektiborako ongizatean ardatz diren gaietan egiten diren murrizketa bortitzen kostea beren gain hartu dutenak, konkretuki, emakumeak.

Egoera honen aurrean zainketa duinak eta kalitatezkoak eskatzen ditugu. Horretarako, ezinbestekoa da gizarte zerbitzuetan soldata duinak izatea, langileei dagozkien lan baldintzak aitortzea eta ahaztu izan den gizarte sektore bat ikustaraztea.

“Duintasuna” aipatzen dugunean esan nahi dugu eman eta jasotzen diren zainketen kantitatea nahikoa izatea eta kalitatezko zainketak izatea. Baina batzuek zainketa duinak izateak ezin du izan besteentzako zainketa ezegonkorren kontura, bokazio unibertsala izan behar dute. Alegia, zainketek egokiak eta libreki aukeratutakoak izan behar dute. Bakoitzak askatasuna eduki behar du erabakitzeke bere burua nola zaindu nahi duen edo norbera nola zaintzea nahi duen; edo nola, zenbat eta nor zaindu nahi duen bakoitzak.

Askatasun erreala ezin da baldintza materialetatik banandu, hauek bermatuko baitute praktikan gauzatu ahal izatea. Gizarte existentzia bermatzeko nahikoa oinarri materialik ez duenak beste pertsona batzuei baimena eskatuz biziraun beharko du, eta, era berean, hauen borondatearen mendeko izango da.

Horregatik, pertsona orok izan behar du existentziarako eskubidea bermatuko duen oinarri material minimoa lortzeko aukera, alegia, askatasuna modu oso eta errealean gauzatzeko aukera.

Diru sarrera faltak herritarren parte bat pobrezian nekez bizitzea dakar. Komeni da egoera hau gizarte bazterketatik desberdintzea, azken honek ez baitu dimentsio ekonomikoa bakarrik. Pertsona baten bazterketa definitzen dutenak enplegua, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, gizarte harremanak eta parte-hartze politiko eta soziala dira, besteak beste. Horregatik, gizarte bazterketaren kontrako jarduerak gizarte zerbitzu, osasun, etxebizitza, hezkuntza edo enplegu politika integralen baitan artikulatu behar dira, bai eta hirigintza, garraio edo kulturatik ere.

Inklusioa arautzailea izan daiteke –alegia, pertsonari bere desberdintasunei uko egin diezaien eska dakioket sozialki onartua izan dadin– edo pluraltasunari irekitako inklusioa izan daiteke, hau da, identitate eta bizimodu desberdinen –besteak beste identitate eta bizimoduak erasotzen ez diren bitartean onargarriak aldeko jarrera aktiboa duena. Beraz, desberdinen arteko harremanak sartzeko jarreraren kokatzen gara eta ez gizartea bere osotasunean arautu eta berdintzeko posizioan.

Ondorengo loturan Bizkaiko gizarte zerbitzuen eta pobrezia egoera ezberdinen analisi sakona aurkituko duzue: [http://issuu.com/bildubizkaia/docs/gizartepolitikak\\_od/1](http://issuu.com/bildubizkaia/docs/gizartepolitikak_od/1)



## PROPOSAMENAK

### **Gizarte zerbitzuen sistema publiko eta unibertsala**

12. Bizkaiko Aldundiaren aurrekontuetan gizarte zerbitzuei bideraturiko zenbateko ekonomikoa handituko dugu. Gutxienez aurrekontuaren %50-a horretara bideratuko dugu.

13. Gizarte zerbitzuen sistemak izan behar duen izaera publikoa indartuko dugu, Aldundiaren kudeaketa zuzena eta kontrolaren presentzia handituz, eta ekimen pribatuak Bizkaiko gizarte zerbitzuetan duen esku-hartzeari mugak jarritz.

14. Lurralde eta udalen zein eskualdeen arteko desoreka eta desberdintasunak gainditzeari begirako urratsak eman, gizarte zerbitzuen sistema orekatuagoa lortzeko.

15. Gizarte partaidetza sustatu Bizkaiko gizarte zerbitzuen politika eta jardueren planifikazioa, garapena eta ebaluazioa osatzean, kudeatzean eta erabakiak hartzean.

16. Progresiboki murriztu pertsona erabiltzailearen ekarpena, sistemarako sarrera oztopatzen duelako:

a) Salbuetsita dauden gutxienekoen zabaltearen eta osasun nahiz arreta prestazioen doakotasunaren bidez aurrera egin.

b) Ekonomia ezkutuaren bidez egindakoekin lehia zuzena duten gizarte zerbitzuen kasuan, pertsonaren ekarpenaren murriztea lehenetsi.

17. Egoitzek nahiz eguneko zentroek bete behar dituzten baldintzak eguneratu: ratioen gehikuntza, eskaini beharreko zerbitzu motak, etb.

18. Kartera ezberdinekin aurreikusitako zerbitzuak bermatu, dagokien kasuetan handituz. Bere hornidura ikuspegi deszentralizatu, komunitario eta gertutasunetik garatuko da.

19. Bizkaian dauden estaldura mailak handitu, zerbitzuak eskuratzeko eta sarrerako itxaron zerrendak murriztu ahal izateko.

20. Gizarte zerbitzuen eta osasun zerbitzuen arteko elkarrekintza eta koordinazioa indartze aldera, gune soziosanitarioak bultzatu.

21. Sektorekako lan hitzarmenen sustapenean Bizkaiko Aldundiak inplikazio aktiboa izango du, bereziki halakorik ez duten gizarte zerbitzuen alorretan.

22. Neurriak hartuko ditugu sektore publikoko eta hitzartutako langileen arteko soldata desberdintasuna %20 baino baxuagoa izan dadin.

### **Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta arreta sustatzea**

23. Estatutik datozen murrizketen aurrean, menpekotasunari dagokion politika propio bat garatuko dugu.

24. Dependentsia Legeak barneratzen dituen eskubideak menpekotasun gradu guztietara zabalduko ditugu.

25. Prestazio eta zerbitzu ekonomiko desberdinen arteko bateragarritasuna zabalduko dugu Bizkaian.

26. Prestazio ekonomikoen aurrean zerbitzuak lehenetsi. Prestazio ekonomikoei dagokienean berriz, Laguntza Pertsonalerako Prestazioa lehenetsi Familia Barruko Zaintzetarako Prestazio ekonomikoaren gainetik.



27. Asistentzia pertsonaleko langileen kontratazio baldintzetan eragin langileen eskubide laboralak bermatu daitezzen.

28. Dependentsia egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez profesionalen hitzarmen berezia finantzatu.

29. Menpekotasun egoeran dauden pertsonentzako iraupen laburreko zaintza sistemen konfigurazioa aztertu atsedenaldia indartzeko helburuarekin. Aldi baterako egonaldiko zerbitzuak sustatu.

30. Oinarrizko gizarte zerbitzuen aginduak kontutan hartu, bereziki ahultasun egoeretan.

31. Menpekotasuna onartzeko prozedura aztertu eta egokitu, oinarrizko gizarte zerbitzuen eskuetan utzi ahal izateko.

32. Zaintzaile informalen formazioan txertatzea autozainketa eta zainketak banatzeko etxe barruko negoziatorako formazioa ikuspegi ahalduztzailetik.

33. Autonomia sustatu eta mendekotasuna prebenitzeko programak garatzea.

34. Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzua indartzea, honi funtzio desberdinak emanez, zerbitzuaren intentsitatea handituz eta prezio publikoa eta erabiltzailearen ekarpen maila jaitziz.

#### **Haur eta nerabeen babesa**

35. Babesgabe egoeretan dauden familiei begirako interbentzio programak bultzatzea.

36. Egungo harrera-egoitzen eredu berrikusi: Programak, hezkuntza estrategiak, perfil profesionalak, ratioak, etb.

37. Adin nagusitasunaren ostean gertatu daitezkeen gizarte bazterketa egoerak ekidin, emantzipazio baliabideen indartzearen bidez.

38. Familia harrerak sustatu:

a) Harrera eredu desberdinak garatu (urgentziazkoa, profesionalizatua, etb.)

b) Harrera familien nahiz familia biologikoen atxikimendua bultzatu, jarraipen, prestakuntza eta laguntza neurriak ezarriz.

#### **Gizarteratze ez-arautzailea**

39. Esku-hartze ereduak eta laguntza-sarera sartzeko baldintzak egokitzea gizarte aldaketak eta erabiltzaileen profila kontutan hartuz, arretarik gabeko egoerak izan ez daitezzen.

40. Egun eta gaueko arretarako baliabide publikoen sorrera bultzatzea Bizkaian.

41. Gizarteratzeko errekurtsuen deszentralizazioa bultzatu Bizkaiko eskualde ezberdinetan.

42. Bigarren mailako arreta-sare profesionala indartu.

43. Kudeaketa autonomia lortu dadin zainketa bereziak dituzten pertsonei begirako laguntzeko programak indartzea.

44. Osasun Sailarekin batera buruko gaixotasuna dutenen eta etxerik gabekoen profilen arreta egokia koordinatu.

45. Preso nahiz preso ohiei zuzendutako errekurtsioak bultzatu.

#### **Pobreziaren kontrako borroka**

Gizarte-eskubide berriak bermatuko dituen marko baterantz aurrera egiten dugun bitartean, Baldintzapeko Gutxieneko Errenten Euskal Sistemari epe labur nahiz ertaineko erreformen beharra planteatzen dugu.

##### Epe laburrean

46. Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen dituen Gizarteratzeko Laguntza Bereziak zabaldu behar dira Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratu ezin eta beharra duten pertsona guztiei. Horrek eskatzen du 207/2011 Foru Dekretua berehalako deuseztapena.

47. Bizkaiko Foru Aldundiak Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren pentsio-osagarriko modalitatearen kudeaketa osoa hartu behar du bere gain.

48. Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legeak jatorriz ezarritako estaldura maila berreskuratu.

49. 18/2008 Legean barneratutako prestazioetan izandako %7ko jaitsiera baliogabetu.

50. Krisi ekonomikoaren ondorioz sortutako errealitate berrietara egokitu: zor egoeren aldi baterako babesa areagotu eta soldataren ez kobratze kasuei estaldura eman.

51. Gutxieneko diru-sarreraren zenbatekoak doitu familia unitatearen tamainaren arabera; horrela, haurren pobrezia indizeak murrizteko.

52. Lanbide eskubideak murriztu edo mugatzen dituen aginduak zuzendu behar ditu. Batez ere, Legearen aurkakoak direnak.

53. Prestazio ekonomikoen kudeaketan Lanbiden egon daitezkeen kolapso egoeren aurrean, berehalako neurriak hartu behar dira herritarren eskubideak bermatzeko. Beharrezkoak diren giza-baliabideak, baliabide tekniko nahiz ekonomikoak jarriko dira indarrean legedia bete ahal izateko, epe eta prozedurei dagokienean, nahiz behar egoeran aurkitzen diren pertsonak merezi duten kalitatezko arreta izan dezaten.

54. Etxebizitzarako Prestazio Osagarria, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentatik bereizi. Dagokion kantitatea handitu elkarbizitza unitateko pertsona kopuruen arabera.

##### Epe ertainean

55. Gutxieneko Errenten programak unibertsaltasun eta banakakotasun handiagoak eta baldintza gabekoak izatea bultzatzea.

56. Zerga-hobariak ezarri seme-alabak bere gain dituzten familia-unitateei, umeen pobrezia gutxitzeko asmoz.



## 1.3. LURRALDE GARAPENA ETA ENPLEGUA

Lurralde garapenez ari garenean garapen eredu berri batetaz ari gara. Ohiko garapen ekonomikoari (ekonomiaren hazkunde kuantitatibo etengabea) garapen humano iraunkorra kontrajartzen diogu. Lurralde garapena, lurraldea eta bertan bizi diren pertsonak oinarritzat hartzen dituen garapen ereduak da, behetik gora eraikitzen dena. Zentzu horretan, eskualdeari, fluxu ekonomiko eta sozial garrantzitsuak ematen diren unitate geografikoa izaki, inportantzia estrategikoa aitortzen diogu.

Bizkaiari eskaintzen diogun garapen ereduak ingurumenarekiko oreka eta langile eta herri-sektoreen ongizatea ditu helburu. Etengabeko hazkundera oinarritutako garapen ereduak agortuta dago. Ingurumenaren iraunkortasunaren ikuspuntutik ezinezkoa da baliabide naturalen xahuketa ase-ezin honi eustea, eta ikuspuntu sozialetik langile eta herri-sektoreen pobretze larria eragin du. Kapitalismo neoliberalak gizakiak ingurumenarekiko eta gizakiak gizakiarekiko esplotazioa besterik ez dakar. Garapen eredu berri hori eraikitzea hortaz, desiragarria ez ezik, ezinbestekoa da Bizkaiaren eta bizkaitarren etorkizuna bermatzeko.

Lurralde garapena eta enplegua atalean barnebiltzen ditugu enplegu politikak, tokiko garapena, industria, merkataritza eta turismoa.

Kapitalismoaren krisi sakon eta sistemiko baten aurkitzen gara. Etengabeko hazkunde ekonomikoaren paradigmatik, ekonomiaren erabateko liberalizazioak eta oligarkia finantzario espekulatzaileen nagusitasunak ekarri gaituzte egoera honetara. Oldarraldi neoliberal betean aurkitzen gara.

Krisiak hari mutur ugari ditu. Hasiere batean finantza krisia zena ekonomia errealerara igaro zen konturatu orduko, bizi dugun globalizazio neoliberalaren testuinguruan gure ehun produktiboak aberastasuna sortzeko duen ahalmena nabarmen mugatuz. Baina ezin dugu begi bistatik galdu kapitalismoaren ohiko krisi zikliko baten aurrean baino izaera sakonagoa duen errealitatearen aurrean gaudela. Zentzu honetan, finantza eta ekonomia krisia ez ezik, krisi ekologikoak, krisi energetikoak, eta krisi politikoak harilkaturik dihardute.

### Langabezia eta prekarizazioa

Azken datuen arabera 92.833 biztatar daude langabezian; Bilbon, Ezkerraldean eta Enkarterrin langabezia tasa %20tik gorakoa da; eta 30.000 lanpostu inguru suntsitu dira EREen bidez azken urteetan. Gazteen artean langabezia tasa %45,2koa da EAEn, Europako altuenetarikoa.

Langabezia datuek hoberako joera erakusten dutela adierazten diguten garaiotan, komeni da egoeraren gordintasunaren berri ematen duten bi datu azpimarratzea: batetik bi urtetik gora langabezian daramaten (iraupen luzeko langabezia) herritarrak 84.300 dira EAEn. Bestetik, Lanbiden izena emana duten 216.235 herritarretatik 114.753-k ez du inolako prestaziorik jasotzen (EAEko datuak).

Baina are gehiago, lana izateak jada ez du bizitza duina bermatzen. Prekarizazio prozesu bortitz bat ematen ari da: sinatutako kontratuen %93,7 aldi baterakoak dira (gazteen kasuan %97), kasu askotan hilabete eskasekoak. Ondorioz, behin-behinekotasuna nabarmen igo da, emakumeek eta gazteek pairatzen dutelarik behin-behinekotasun honek sortzen duen prekaritatea modu nabarmenagoan. Era berean, lanaldi partzialen errealitatea ere azpimarratzekoa da: krisiaren azken urte hauetan kontratuen %17,9 lanaldi partzialekoa izaten ari da. Lanaldi partzialeko kontratua dutenen %81 emakumeak dira (EAEko datuak).

### Industria

Industria da Euskal Herriko motore ekonomikoa. 2007an EAEko Barne Produktu Gordinaren (BPG) %29,4a zen; 2010an berriz %24,4. 2008-2012 epealdian Bizkaiak bere gaitasun industrialaren %33a galdu zuen (hiru enpresetatik bat itxi zen). EPAren arabera (populazio aktiboaren inkesta) 63.000 lanpostu suntsitu dira industrian hego Euskal Herrian 2008-2014 epealdian.

Gainera, industria ehunaren gorputza (%25 inguru) teknologia maila erdi-baxukoa da. Soilik % 3-4 da maila teknologiko altukoa. Ondorioz, kosteetan (soldaten jeitsieraren bizkar) oinarritzen den kompetentzia sustatzen da. Bestalde, industriaren zati handi batek kontsumo energetiko intentsiboa du. Ahuldade faktore arriskutsua izango da honako hau epe ertainean.

### **Ikerketa eta berrikuntza**

Ikerketan eta berrikuntzan egiten den inbertsioa oso txikia da (BPGaren %2 inguru). Lisboako estrategiak %3 proposatzen zuen. Erreferentzia gisa, Finlandiak %3,32 gastatzen du, Suediak %3,21 eta Danimarkak %3,05. Índice Europeo de Innovación (SII) delakoaren arabera EAE 13. postuan dago Europar Batasunean. Erreferentzia gisa Espainia erabiltzen da askotan, baina ez da erreferentzia ona. Europako zonalde industrializatuekin konparatu beharko ginateke.

Ez dago zentro teknologikoen eta industria ehunaren arteko sinergia politika argirik.

### **Hirugarren sektorea**

EAEEn, zerbitzuek BPGaren %60 inguru osatzen dute, 645.464 lanpostu inguru 2010ean. Enpresei begirako zerbitzuak (%27), komertzio eta konponketak (%17), garraio eta komunikazioak (%11), banka eta aseguruak (%10), osasuna eta zerbitzu sozialak (%9), administrazio publikoa (%8).

Komertzio txikiaren gainbehera azpimarratu behar da komertzio zentru handien aldeko apustu politikoa egiten den garaiotan.

### **Finantziarioa**

Gaur egun enpresa gehien arazo larriena finantziarioa da, gehienbat enpresa txikiarena. Zentzu horretan, finantziarioa bermatu eta ekonomia dinamizatzeko gai litzatekeen euskal banku publiko baten gabezia handicap handia da. Gabezia hori euskal erakunde finantzieroen konpromiso aktiboarekin bete beharko litzateke momentu honetan.

Kutxabanken pribatizazio prozesua akats estraterjiko larria da gure ekonomiarentzat epe ertain-luzean. Kutxabank-en kontrol publikoa funtsezkoa da gure etorkizun sozial eta ekonomikoari begira, gure ehun produktiboak behar duen finantziarioa bermatze aldera. Pribatizazio prozesu honek orain arte eman duena (Caja Sur bezalako entitateak bere gain hartzea, obra sozialaren suntsipena, etb.) desastre ekonomiko bat izan da dagoeneko.

Gure esku ditugun tresna finantzieroen kontrol publiko eta soziala funtsezkoa izango da datozen urteetan, eta PPSOE-PNVk 15 patronoren esku utzi dute BBK.

### **Espainiaren menpekotasuna**

Espainiatik datozen inertzien preso bizi gara. Azken urteetan inposatu zaizkigun neurriak euskal ekonomia suspertzeko traba izan dira. Gure ekonomiak eta ehun produktiboak dituzten arazoak eta Espainiakoak dituenak ez dira berdinak, eta beraz errezetak ezin dira berdinak izan. Honen adibide dira erreforma energetikoa, lan erreforma, zor publikoaren ordainketa lehenesteko konstituzio aldaketa, kutxen legea, udalen autonomia mugatzeko hartutako neurri desberdinak, etb.

Espainian aplikatzen ari diren politika neoliberalak ondorio sozial lazgarriak sortzen ari dira. Bat aipatzearren, gizarte dualizazioan sakontze pausu larriak ematen ari dira. Europar salairuen partizipazioa BPGan, oro har, matendu bada ere, estatu espainolean lan erreformak eta bestelako neurriek salairuen partizipazioaren beherakada ekarri dute, aberastasunaren banaketa desorekatuan sakonduz. Hego Euskal Herria Espainiaren menpe egotearen kalteak pairatzen ari da.



### **Bizkaiko Foru Aldundiaren egungo sustapen ekonomikorako politikak**

EH Bilduk behin eta berriz jarri ditu mahai gainean Aldundiaren Enplegua eta Ekonomia Sustapenerako sailaren politiken gaineko irakurketa kritikoak. Bereziki larria deritzogu industriari dagokionean (Edesa, Incoesa, Virtisu, etb.) Aldundiak adierazi duen lidergotza falta. Herrialdean ematen ari den desindustrializazio prozesuaren aurrean ez da lidergotza publikorik ageri. Zailtasunak dituzten enpresei aholkularitza kualifikatua, zaintza teknologikoa, finantziarioa errazteko neurriak, nazioartekotze estrategia gaurkotuak, enpresetan langileen parte-hartzea indartzeko neurriak. Guzti hori da egiten ez dena.

Bestalde, garapen sozioekonomikoari dagokionez, Aldundiari, lurralde garapen estrategia baten dinamizazio lanak egitea dagokio. Estrategia horren mesedetan behar lukete tokiko garapen agentziak diren Behargintzak. Sailaren aurrekontuaren memorian, programa funtzional ezberdinetako azalpenen artean, 30 orrialdeetan, behin ere ez dira aipatzen Behargintzak. Aldundiak bestelako eredu baten aldeko apustua egina du: lurraldearen kudeaketa, programen formulazioa eta orientazioa, deialdiak, erabakiak, etab., den-dena, era zentralizatuan egiten da. Eta horretarako bere bi sozietatez baliatzen da: BEAZ eta DEMA.

2014ko otsailaren 26an Aldundiak eta EUDELeK sinatutako "Enplegua eta ekonomia sustatzeko politikak Bizkaiko eskualdeetan artikulatzeko hitzarmena"-k zera dio: "...orain arte sortutako egiturekin erakusten ari denez, enpleguaren eta ekonomia sustapenaren tokiko garapena bide egokia da emaitza onak lortzeko enpleguaren sorkuntzan eta hobekuntzan, eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko, eskualdearen ahalmen ekonomikoa baliatuz. (...) Ekonomia Sustatzeko Sailak (...) aipatutako egiturak babestu ditu, Behargintza tokiko enplegu eta garapen zentroek eginkizun nabarmena betetzen baitute lurraldean". Hau da, Aldundiko arduradunak jakitun dira tokiko garapeneko eragileek duten garrantziaz (sustapen ekonomikorako eta lurraldearen barne kohesiorako) baina gero, praktikan, sarrera hau duen hitzarmenak, horrenbesteko garrantzia errekonozitzen zaien egitura instituzionalentzako 725.155 €-ko diru-partida jasotzen du 21 agentzien artean banatzeko.

Errealitate honek honako galdera hauek egitera garamatza:

- Zer egin nahi du Aldundiak?
  - Norekin?
  - Zein marko erabiliko du horretarako?
  - Zelan batuko ditu eragileak horien inguruan?
  - Zeintzuk dira helburuak? Zehaztuta al daude egonkortasun terminoetan?
  - Zeintzuk dira horiek aurrera eramateko eragileak?
  - Zertan oinarritzen dira helburuak?
  - Nola eragingo du lurraldearen barne kohesioan?
- Horregatik, plan hauen aurrean zera dugu faltan:
- Helburu estrategikoak (helburu espezifikoetatik haratago).
  - Plan hauen elaboraziorako erabilitako metodologia.

- Zein eragilerekin kontrastatu da?
- Zein eragilek izan du "emendatzeko" aukera?
- Nola planteatzen da bere "governantza"? Nondik? Noren bitartez?

Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegu Plana ez da benetako enplegu plan bat, neurri sorta bat baizik. Dotazio ekonomikoa duena eta, kasu gehienetan, agentzien arteko kompetentzia eragingo duena gainera, eta baita agentzien eta eragile pribatuen artekoa ere.

### **Lurralde garapena Bizkaian**

Lurralde garapenaren eta enpleguaren eskumena Eusko Jaurlaritzarena da gaur egun. Bi saiakera izan dira Udal lege bat idazteko, baina biak hutsalak gertatu dira. Udalek, herritarrengandik hurbilen dauden instituzioak izanik eta herritarrei kalitatezko arreta eskaintzeko bokazioz, geroz eta eskumen gehiago hartu dituzte euren gain azken urteetan, horretarako errekurtso ekonomikorik jaso ez duten arren. Udal legeak Udalen eskumenak definitu eta arautu beharko lituzke, eta enpleguaren eta lurralde garapenaren esparruan eskumenik aitortzen baldin bazaie, eskumen horiek gauzatu ahal izateko beharrezko finantzazioa jaso beharko lukete. Hortaz gain, lege horrek baliabideen ordenatze bat ekarri beharko luke, egun duplizitate ugari ematen baitira.

Garapen Agentziek funtsezko eragileak izan beharko lukete lurralde garapenaren eta garapen endogeno orekatuaren aldeko estrategien gauzapenean. Izan ere, ekonomia-sustapenaren funtsezko aspektuak agentzien jarduera-esparruetan daude barnebilduta. 32 Garapen Agentzia daude gaur egun EAEn. Agentzia hauek 177 udalerriri eta biztanleriaren %87ri ematen diete zerbitzua gutxi gorabehera. 552 langileko giza taldea dago Garapen Agentzia hauetan teknikari eta zuzendaritza lanetan.

Bizkaian 21 Garapen Agentzia daude (Behargintzak deiturikoak) 10 eskualdetan banatuta (Busturialdea, Uribe Kosta-Mungialdea, Durangaldea, Enkarterri, Bilbo, Ezkerraldea, Meatzaldea, Lea-Artibai, Txorierrri eta Nerbioi-Ibaizabal), bakoitza bere errealitate propioarekin. Behargintzok ez daude Bizkaia mailako lurralde-estrategia orokor baten baitan txertatuta. Ez dago ez koordinazio ez eta ikuskaritza mekanismorik. Beraz, argi eta garbi esan dezakegu Bizkaian ez dagoela lurralde garapen estrategia definiturik. Aldiz, egun Bizkaian zentralista den eredu bat dago indarrean. Foru Aldundiak bere menpeko bi erakunderen gain uzten du nagusiki autoenpleguaren sustapena: DEMA eta BEAZ. Programa hauetan bai, diru-hornikuntza eskuzabalagoa da.

Beraz, DEMA eta BEAZ alde batetik, Behargintzak bestetik (baliabide eta estrategiarik gabe) eta Eusko Jaurlaritza bestetik. Duplizitateak, eta noraeza nonahi.

### **Ondorioak**

Egiturazko krisi ekonomiko eta sozial larri bat bizi dugun garaiotan funtsezkoa da lurralde garapenerako estrategia publiko sendoen garapena. Ehun industrial deusezten ari da eta komertzio txikia ahultzen. Estrategia horien baitan egin beharko litzaioke aurre herrialdetik industriaren eta hirugarren sektorearen errealitate gordin honi. Gainera, estrategia horiek herrialdeaz gaindiko politika industrial sendoekin eta ikerketa eta garapenerako apustu garbi batekin uztartu beharko liriateke.

Aldundiari dagokio lurralde garapenerako estrategien dinamizazioa. Eta argi eta ozen esan dezakegu, Aldundiak ez duela proposamenik norabide honetan. Behargintzetako zuzendariak aitortu izan digute ez dutela Sustapen Ekonomikorako Diputatua ezagutu ere egin lau urteotan.





### 1.3.1. INDUSTRIA

#### PROPOSAMENAK

57. Industriaren berrindartzea eta enplegu duina sortzea eta lanaren banaketa helburu duen inbertsio funts publikoa martxan jarri. Inbertsio funts honek honako helburuak hartuko ditu kontutan:

a) Politika industrial zehazteko instituzioen parte harteaz gain, eragile sozial, sindikal eta ekonomikoena ere bultzatzea.

b) Tokiko Garapen Agentzien edota mankomunitateen plan estrategiko eta egitasmoak kontutan hartzea eta eskualde guztietako berrindustrializazioa bultzatzea.

c) Trantsizio fase honetan, eskualdeetan edo sektorean duten eraginagatik arriskuan egon daitezkeen enpresa txiki eta kooperatiben aldeko txoke edo laguntza planak martxan jartzea.

d) Etorkizunerako garrantzitsuak izan daitezkeen sektoreetan (ingeniaritza, energia berriztagarriak, elikadura, birziklapena edota ekonomia berdea oro har) inbertsio publiko-privatuaren aukerak bultzatzea.

e) Energia kontsumoa murriztu, ingurumena errespetatu eta enplegu berdea sortuko duten proiektu industrialak sustatzea.

f) Eskualdearen aktibazio ekonomikoa eta langileriaren protagonismo soziala izango duten industria jardura ereduak sustatzea. Oro har, ehun industrial zabal, anitz, berritu eta ekologikoa bultzatzea. Norabide horretan, enpresa txikiak eta kooperatibak ditugu ardatz, ekonomia soziala eta tokiko garapena indartuko duen industria eredu sortze bidean.

58. PYME-*ei* eta kooperatibei antolakuntza industrialean, garapen teknologikoan eta nazioartekotze estrategietan aholkularitza zerbitzua emango dien Adimen Ekonomikorako Zerbitzua garatu: aurreko hamarraldian ZAINTEK zerbitzua izan zena birformulatu, edukiz bete eta baliabideak esleitu.

59. Unibertsitateen, hezkuntza zentroen eta eskualdeetako garapen agentzien zein parke teknologikoen proiektuen arteko elkarlana bideratzeko hitzarmenak burutu.

60. I+G+B-ren alorrean, egungo nahaspila gainditu eta ematen diren dirulaguntzen kontrola, koordinazioa eta plangintza burutu. Era berean, eta Europako herrien norabidean, dirulaguntzen partidak igo eta atal honetan ezinbestekoa dugun inbertsioa bermatzea. Kontrola eta jarraipena egiteko adierazleak ezarri eta auditoria publikoak aktibatu.

61. Aldian-aldian ikuskaritzak egiteko sistema bat ezarri, enpresei emandako dirulaguntza publikoen bidez lortu beharreko helburuak betetzen dituztela bermatzeko eta ezarritako adierazleak betetzen direla bermatzeko. Dirulaguntza publikoak jasotzen dituzten enpresek lurraldean mantentzeko konpromisoa hartu beharko dute eta hori egin ezean, jasotako dirulaguntzak itzuli beharko dituzte.

62. Egun, gure herriko enpresa eta kooperatiba txikiek duten arazorik larriena finantziarioa izaki, Kutxabank eta gaiinontzeko euskal finantza erakundeen eta B.E.I-ren (Europako Inbertsio Bankuaren) finantziarioa bilatzeko konpromisoa hartu eta beharrezkoa den "finantziarioa eta bermea" eskaintzeko zorpetze malgurako linea zuzena eta erreala lantzea herrialdeko enpresa eta kooperatiba txikiei eskaini ahal izateko.

63. Goitik behera baino, eskualdeetan oinarritutako eta bertako baldintzetatik abiatutako garapen industrial bultzatzeko, Tokiko Garapen Agentzietako (Behargintzetako) plan estrategikoak, proiektu eta egitasmoak babesteko dirulaguntza linea errealak jarriko dira martxan.



64. Euskal Herri osoko kooperatiba eta enpresa txikien nazioarteratzea bultzatuko duen instituzio eta eragileen arteko egitura berria sortu ondoko helburuekin:

a) Egun era banatuan egiten den lana koordinatzea/biderkatzea.

b) Kanpo merkataritza bultzatzea. Bertako kooperatiba eta enpresentzat, beraz, kanpoan saltzeko aukera ugaltzea.

c) Nazioarteratzea, inplantazioari zein merkaturatzeari dagokiolarik, harreman justu eta solidarioetan oinarritu eta berauek gauzatzea izango dute beti helburu.

d) Kanpo merkataritzara herrien eta langileen eskubideak zapaltzen ez dituzten herriekin bultzatzea.

65. Euskal elikagaien industriaren garapena bertan ekoiztutako lehengaiekin eta bertako merkaturan oinarritzeko diren ekimenekin, ekoizleen lan baldintzekiko konpromisoa eta herritarrei informazio zabal eta gardena eskainiz.

66. Energia berriztagarrien eta energia eraginkortasunaren alorreko irakaskuntzari, ikerkuntzari, garapenari eta berrikuntzari begirako programa berezituak diseinatu, sektoreak, administrazioak eta ikerkuntza arloak elkarlanean garatuko dutena. Esate baterako, industriaguneetan, enpresa ezberdinen artean, energia eta lehengaiak aurrezteko zein sortutako hondakinak murrizteko elkarlana bultzatuko da. Gainera, garatutako proiektuen segimendu egonkortua eta auditaje publikoak aktibatuko dira.

67. Gastu energetikoa murrizteko, energia-auditoriak burutzeko programa martxan jarri.

68. Gure industriak, oro har, energia gastu altua duela ikusirik, eta hau enpresen bideragarritasunean zein ingurumenarekiko sostengarritasunean erabat kaltegarria delarik, industriaren alorreko enpresetan efizientzia energetikorako inbertsio planak babesteko egitasmoa zehaztu eta norabide horretan doazen I+G+B-ko egitasmoak sustatu. Norabide horretan ere, biomimesiaren teoriarik oinarritutako industria garbiak saritu.

69. Zero zabor helburu duen hondakin politika sustatu eta eskualdez eskualde, bai etxe hondakin zein industria hondakinen tratamendu egokienerako beharrezkoak izango diren azpiegiturak eta horiekin sortu daitekeen enplegu berdea bultzatzeko planak babestea.

70. Enpresei ematen zaizkien laguntza guztietan klausula eta irizpide sozialak ezartzeko plangintza diseinatu eta burutu. Klausula eta irizpide horietan ezarriko dira, besteak beste, enplegua eta lan baldintzak mantentzeko, berdintasuna eta lanaren banaketarako, enpresa ez deslokalizatzeko, azken lan erreformaren alderik gogorrenak ez aplikatzeko eta negoziazio kolektiboa sustatzeko konpromisoa. Halaber, lan erreforma ekiditeko hitzarmen soziala bultzatzeko konpromisoa hartu.

71. Kudeaketan eta jabetzan langileen parte-hartzea helburu duten egitasmoak babestu eta oro har balio kooperatiboak hedatzeko programak bultzatu.



## 1.3.2. ENPLEGUA

### PROPOSAMENAK

72. Lan publiko guztietan lurraldeko lan-hitzarmenen baldintzak betetzen direla bermatzea.

73. Kontratazio publikoetan ere lan-baldintza duinak eta kriterio etikoak bermatzeko klausula sozialak barneratzeko Foru Araua garatuko dugu. Horrela, Aldundiak erosketa publikoetan eta kontratazioetan klausula sozialak txertatzeko konpromisoa hartuko du. Klausula horien arabera, dagokion arloko hitzarmenarekiko konpromisoa, ingurugiroaren bermerako neurriak, hizkuntza irizpideen betetzean, berdintasuna bermatzeko urratsak eta ezgaituak lan merkatuan txertatzeko konpromisoetan sakontzea beharrezkoa ikusten da.

74. Aldundiak dituen kontratazio publiko guztien berrikuspen prozedura abiatu eta kontratazio berriak lan baldintzak kontutan hartzen dituzten klausula sozialak barnebilduz egingo dira. Klausula sozialak aplikatzeari lehenetasun osoa emango zaio. Klausula sozialen eta konbenioen errespetuaren aldeko apustua egiten duten enpresak lehenetsi eta bultzatuko ditugu.

75. Azpikontratazioaren kateari amaiera emateko bitarteko zehatzak hartu kontratazio publikoaren alorrean.

76. Gutxieneko soldata 1.075 eurotan "sinbolikoki" aldarrikatu eta beronen errespetuaren norabidean lan egin.

77. Aldi baterako enpresak inoiz ez kontratatu eta horiek kontratatzen dituzten enprekin harreman edo kontratu ekonomikoak berrikusi.

78. Berriz ere zuzenean eskaini ahal izateko, egun pribatizatuta dauden zerbitzu publiko guztien ikerketa burutu, ondoren, eta ahal balitz, publikazio prozesuak martxan jartzeko.

79. Aberastasuna banatuko duen politika fiskala behar den bezala, lana banatuko duten enplegu politikak behar dira. Langabeziarekin amaitzeko, besteak beste, lanaren banaketak garrantzia handia hartu behar du. Gai honen inguruan eragile sindikal eta ekonomikoekin eztabaida irekiko dugu.

80. Eztabaidak proposatzeaz gain, eredu izan behar dute instituzioek eta norabide horretan, sektore publikoan lanaldia murrizteko urratsak ematen hasi behar da. Lehen urratsa, nola ez, ordu kopurua igo nahi duten dekretuak ez aplikatzea behar du izan, eta ondoren administrazioko mahaia konbokatu eta eztabaida horri ekin.

81. Euskal Herriak lan harreman eta babes sozialerako esparru propioa behar du. Euskal instituzioek gai hau beren agendaren lehen lerroan jarri behar dute, esparru propio hori iraunkorki aldarrikatzeko eta egunerokotasunean urrats praktikoak eman daitezkeen aztertzeke.

82. Gazte ekintzailatza kolektibo eta sozialaren sustapenerako programak sortu atal hauek kontutan hartuz:

- a) Formazioa: ekonomia sozial eta solidarioa zein kooperatibagintzari buruzko formazioerako bitartekoak eskaini.
- b) Proiektuak sortu eta garatzeko aholkularitza juridiko, estrategiko zein finantzieroa.
- c) Ekonomia sozial eta solidarioan oinarritutako proiektuen saretzea sustatzeko egitasmoak.

### 1.3.3. TOKIKO GARAPENA

#### PROPOSAMENAK

83. Tokiko Garapen Agentziak subjektu aktibo bihurtuz, eskualdean errotutako garapen eredu orekatu, dibertsifikatu eta integralaren norabidean urratsak eman Bizkaia Sarean lurralde garapen estrategia berria martxan jarri. Ekonomia sustatzeko biderik eraginkorrena eskualdeetan eta bertako baldintzetan oinarrituriko prozesu endogenoak sustatzea baita. Bizkaia Sarean eredu honek hurrengo helburu nagusiak bilatuko ditu:

a) Tokiko estrategiak definitzeko tresnak eta baliabideak eskaintzea. Tresnak aipatzen ditugunean, bereziki formazioaz eta aholkularitaz ari gara, eduki sektorialen gainekoa ez ezik, askotan ahantzita izaten dugun prozeduren gainekoa ere bai. Azken puntu horretan bereziki landu beharko dira desberdinen arteko eztabaida eta adostasunak bilatzearen beharra eta elkarlan espazioak zabaltzea.

b) Tokiko estrategia horiek definituta daudenean, horiek bultzatu eta gauzatzeko baliabideak eskaintzea, bai proiektu puntualetarako beharra dagoenean, bai kohesiorako ezinbestekoak diren prozedurak martxan jartzeko ere.

c) Tokiko Garapena ez denez lau urteko legegintzaldien araberako bandera bat, tokian toki lan egiteko filosofia bat baizik, ezinbestekoa da administrazio desberdinek ildoaren egonkortasuna bermatzea tokiko eragileekin adostasun zabalak bilatuz.

d) Tokiko estrategia horien gaineko Lurralde Behatokia sortzea, estrategia horien guztien arteko lankidetzeta eta koordinazioa bermatzeko eta estrategia bakoitzaren jarraipena egiten laguntzeko.

e) Egun ezagutzen ditugun funtsik gabeko enplegu plan horien ordez, aipatutako tokiko estrategiei lotutako Tokiko Enplegu Planak sortzea. Horrek, tokiko beharrian eta ezaugarri desberdinak kontutan hartzen lagunduko du eta eskualdeen arteko desorekei aurre egiteko neurriak eskainiko ditu.

f) Estrategia horien guztien integritasuna bermatzeko, ildoaren zeharlerrotasuna aintzat hartu eta Foru Aldundiko hainbat sailen arteko mahaia sortzea.

g) Tokiko estrategiei begira zenbait gai lehenetasunez lantzen laguntzeko tresnak eskaintzea: tokiko enpresen maila teknologikoa ebaluatu eta hobetzeko sistemak, energia ekoiztu eta efizienteki kontsumitzeko lerroak, emakumeak lurraldearen garapenean egun duen papera aztertu eta ondorioen araberako neurriak, elikadura burujabetzaren bidean urratsak emateko neurriak, finantzazio zailtasunak gainditzeko autonomia-tresnak, ekonomia sozial eraldatzailean sakontzeko neurriak, ekonomia zirkuitu lokalak indartzea eta berrikuntza soziala tokiko estrategietan txertatzeko baliabideak eskaintzea.

h) Hainbat ikerketa-gai sustatzea: enpresa mota desberdinak aztertzea jabetzari ez ezik, antolaketa eta langileen parte-hartze ereduari erreparatuz; euskal herritarren beharrak islatzen dituzten adierazle berrien gaineko ikerketa; herritarren parte-hartze eta ahalduntzean sakontzeko tresnen gaineko ikerketa, etb. Oro har, tokiko estrategiek eskatzen dituzten etengabeko berrikuntzen gaineko ikerketak sustatzea.

i) Tokiko garapenaren inguruko formazio gune iraunkor bat sortzea, egindako ikerketen berri emateaz gain, bertan zein nazioartean martxan dauden proiektu eta prozeduren berri emateko, gaia lantzen ari diren pertsonen artean ez ezik, jendarteari ere zuzenduko zaiona.

j) Hainbat eskualdek partekatutako ildo estrategikoetan lurralde mailako mahaiak bultzatzea proiektu komunak garatzeko.



### 1.3.4. MERKATARITZA

Azalera handiko merkatal-zentroak sistema kapitalistak bultzatzen duen kontsumismo basatiaren isla dira. Erosketa eta aisialdia uztartu nahi dituen filosofia bera, horren isla nabarmena da, non proposatzen zaigun aisialdia kontsumoan soilik oinarritua dagoela.

Oro har, azalera handi hauek mundu mailako enpresa eta produktuentzat gune edo saltoki dira, izan ere era honetako merkatalguneetan ekoizle txikiengatik baldintzak hain zorrotzak dira euren produktuak saltzeko oso aukera gutxi dituztela.

Azalera handien irekierak, herri eta auzoetako komertzioan eragin ikaragarria izan du. Kasu askotan ixtea izan da erabakia, kaleak hustuz eta bizitza soziala murriztuz. Beste kasu batzuetan, eta langileen prekarietatean oinarriturik, irauteko ere zailtasunak dituzte. Azalera handiek gainera langileen lan-baldintzak kaskartzea ekarri dute hainbatetan, ordutegiaren aferak erakutsi duen moduan.

Tokiko merkataritza aldiz, gure ustez bultzatu beharreko jarduera ekonomikoa da. Batetik, aipatu bezala, herriei, auzoei eta kaleei bizitza ematen dielako eta harreman pertsonalak garatzeko aukera gehiago ematen dituelako. Tokiko merkataritza ekologikoa da, oro har, globalizazio ekonomikoaren produktuetarako egina ez dagoelako eta bereziki, bertan dugularik, garraioa hartzea beharrezkoa ez delako.

Azalera handiak ireki behar direnean, lanpostuak sortzen direla esaten digute, baina oro har ahaztu egiten da bertako merkataritzan zenbat jndek lan egiten duen eta zein garrantzia daukaten gure herrien ekonomian.

Herri askotan, zorionez, dendari eta merkatarien elkarteak sortu dira eta elkarlana helburu duten neurrian eta sarri jarduera soziala eta kulturala bultzatzeko egitasmoak lantzen dituztelarik, gure babes osoa behar dute izan. Merkatarien elkarteekin batera elkarlana bultzatzea garrantzitsutzat jotzen dugu, baita gure eredu sozial eta ekonomikoaren norabidean urratsak eta ekimenak bultzatu eta laguntzeko ere.

### PROPOSAMENAK

84. Udalekin, eskualdeko mankomunitateekin edota Behargintzekin, eta gobernu autonomikoaren inplikazio ekonomikoaz, herrialdeko tokiko merkataritza eraberritzeko eta bultzatzeko plan estrategikoa burutu ondoko proposamen zehatzak garatu daitezkeelarik:

- a) Langileen prestakuntza eta profesionalizazioa helburu duten ikastaroak eta dirulaguntza programak diseinatzea.
- b) Merkatarien transmisiorako laguntza sustatzea komertzioak ez ixteko.
- c) Berrikuntza eta teknologia berriak aplikatu asmoz, beharrezkoak diren inbertsioetarako dirulaguntzak edota hobari fiskalak lantzea.
- d) Teknologia berrien aplikaziorako eta salmenta zuzenerako proiektuak bultzatzeko ikastaro, dirulaguntzak edota hobari fiskalak lantzea.
- e) Oro har, eta tokiko garapenaren logikan, tokiko merkataritzaren berrikuntza, ikerkuntza eta garapena bultzatzeko proiektuak babestea.
- f) Merkatariei edota ostalariaren elkarteek bultzatzen dituzten egitasmo sozial eta kulturalak bultzatzea eta babestea.
- g) Eskualdeen arteko elkarlana bultzatzea, hainbat zerbitzu edo eskaintza elkarrekin eman ahal izateko.

85. Tokiko merkataritzaren eta, oro har, merkataritzarako klausula sozialen gaineko eztabaida ireki eta bultzatu, klausula sozialen errespetuan oinarritutako "kalitate" programa berria martxan jarri.

86. Arlo honetan dabilzan eragileekin batera bidezko merkataritzarako sareak hedatzen laguntzeko programa zehatza garatu.

### 1.3.5. TURISMOA

EH Bildutik bultzatzen dugun turismo eredua, euskal herriko herri eta zokoen, bai eta euskal herritarren ezagutza bultzatzea ez ezik, munduko herrialdeen eta herritarren arteko elkar trukatzea bultzatuko duen turismo mota da.

Turismo merkantilistaren aurrean, turismo eredu jasangarria, soziala eta herriak zein bertako pertsonak oinarri dituen babesten dugu.

Sopelatik Miarritze arteraino, Euskal Herriko kostak tradizionalki ekin izan badio ere turismoari, hau bertako izaera kulturala ezagutaraziz burutu izan da. Modu bertsuan, mendialdeko turismoa, Olitetik Larrañe arterainokoa, bertako mendi, gune historiko eta elikagaiekin lotutakoa izan da. Turismoa, eskualde eta herrietako jardun ekonomikoa bultzatzeko erreminta ezinbestekoa izateaz gainera, euskal izaera atzerrian ezagutarazteko aukera ezin hobea da, bai eta beste herrietako pertsonekin elkartasun guneak osatzeko baliabidea ere.

Turismoa da sektoreen artean deslokalizatu ezin den eta lanpostuak sortzen dituen bakarretakoa. Gure turismo eskaintza ezin da beste inora eraman. Horregatik, kontziente izan behar dugu baliabide honek mugak dituela eta ezin dugula zentzugabekeriaz ustiatu. Gauza on bat dugu egun, baliabide honek indar handia duela oraindik. Indar hori turismo iraunkor, zuhur eta zentzudun baten alde apustu egiteko baliatu beharra dago. Turismoa etorkizuneko errealitate bat da beren herrian bizi eta lan egin nahi dutenentzat.

Gure turismo eskaintza burutzeko garaian, ezin dugu ezaguna den horren gainean bakarrik garatu: hiri handiak, eta horien atzean hiriak bezain onak edo hobeak diren beste baliabide eta esperientzia batzuk gorde. Euskal Herri osoa ezagutzera eman behar dugu.

Barne turismoa bultzatzea ere garrantzitsua dela deritzogu izan ere, oraindik orain gure ezagutarazteko eskaintzak egiteko aukera paregabea dugula uste dugu, baita barne turismo honek gure ekonomiarentzat oso baliagarria izan daitekeela ere.

Euskal herriko errealitatea anitza izanda, bai geografikoki, bai hiri-herri banaketari dagokionean, bai eta kultura tradizionala eta modernoaren arteko dinamismoari dagokionean ere, garatu beharreko eskaintza turistikoak aukera anitzak eskaintzen dizkigu, Euskal Herriko turismo bereizlea garatzen joateko, eta EHko izaera propioa indartzeko joateko geure mugez gandi.

Euskal herriratzen den turista oro, euskal herriko errealitatearen bozeramaile izango dela kontuan hartu behar dugu; berez turismo honek aberastasun ekonomiko ekartzeaz gain, munduan zehar euskal aberastasun sozio-kulturala zabaltzeko aukera ere eskaintzen du.

### PROPOSAMENAK

87. Turismoaren plan estrategikoa idaztea. Plan honen idazteketan ondorengo prozesua egingo da:

a) Azterketa zehatzak egin herrialdean turismoak duen pisu zehatza jakiteko: sortutako lanpostuak, BPGren %, zuzenean eta zeharka erlazionatutako jarduera ekonomikoak, azken urteetako garapenak, etb.



b) Azterketa horren harira, sektoreko mahaia osatu, eragileekin harreman zuzen eta iraunkorra bermatzeko eta beren iritzia eta ekarpenak jasotzeko prozesua burutu ahal izateko. Oro har, gaiarekin harremana izan dezaketen bestelako eragileen parte-hartzea ere ahalbideratuko da.

c) Azterketaren eta eragileekin eginiko harremanen ondorioz, aurrera begira zehaztu, ahalik eta hobekien, zeintzuk diren etorkizuneko xede merkatuak, ekitaldi konkretuengatik sortutako aldizkako merkatuetatik haratago. Xede merkatuak zein diren jakin ostean, merkatu horietan zein kanpaina eta ekintza egingo diren zehaztuko dugu gure esperientziak ezagutara emateko.

d) Era berean, herrialdean eta Udal zein Mankomunitate edo Behargintzekin elkarlanean, turismo gune nagusiak identifikatu eta hauei zuzendutako laguntza eta estrategiak aktibatu: naturarekin lotutakoak, historiarekin, kultura tradizionalarekin, kultura urbanoarekin, lehen sektorearekin, herri izaerarekin, etb.

Turismoaren plan estrategiko honek ondoko ezaugarriak zainduko ditu:

a) Bizkaia bere osotasunean hartuko du, herrialdearen aniztasuna balioan jarriz, Bilbo Handitik haratago, kostaldea, turismo berdea, nekazal turismoa eta gazteei begirako turismoa bereziki sustatuz.

b) Oreka ekonomikoa sustatuko du zerbitzuak eskaintzen dituztenen artean: kooperatibak, kolektibo berezientzako proiektuak eta ekonomia sozialeko ekimenak sustatuko ditu zerbitzu turistikoaren arloan.

c) Turismo iraunkorreko plan integralak dituzten beste turismo jomuga batzuekin, esperientziak, ideiak eta prestakuntzari buruzko informazioa trukatzeko harremanak eta elkarlana sustatuko du.

d) Ekonomia sozial eraldatzailean oinarritutako proiektuetarako aholkularitza zerbitzua eta laguntza ekonomikoa jarriko du martxan lehentasunezko eremuetan, turismoaren garapen iraunkorra helburu.

e) Lehen sektorearekin lotutako turismoa indartuko du, etengabeko formazioa bultzatzeaz gain baliabideak eskaini beharko dira.

f) Pilaketa handiak ekidin eta Euskal Herriak hiri zein herrietan dituen baliabide ezberdinak sustatuko ditu, aukera ezberdinak uztartzen dituen paketeak sustatuz eta planifikazio orekatuak eginez.

88. 'Euskal Herria-Basque Country' marka oinarri hartuko duen ildo iraunkorra garatuko da, hurrengo ekintza-ildoak aurrera eramanez:

a) Kanpora begira Euskal Herriko eskaintza turistikoa anitza baina bakarra eraiki asmoz, eta elkarlana oinarri hartuta, euskal lurraldeen arteko eta gobernuen arteko harreman, elkarlan eta hitzarmenak bultzatuko dira konpromiso zehatzak hartuz instituzio ezberdinen partetik, eta herrialdeen arteko kompetentzia antzua alboratuz.

b) Turismo baliabideen euskal sarea sortzea bultzatuko da, Euskal Herriaren ezagutza integrala sustatuz. Sare horretan, turismo eskaintza eskualdeka landuko da, eta eskualdekako turismo mahaia sortuko dira, eskaintza antolatzeke eta sektore publiko eta pribatuaren elkargune izateko. Halaber, turismo bulegoen arteko koordinazioa bultzatuko da, turistari aukera sorta zabala eskaini asmoz.

c) Euskal Herriko naturaren eskaintza lantzea bultzatuko da, osorik, horretarako marka bereizgarri bat sortuz. Izan ere, naturak aukera ematen du lurralde osorako eskaintza integrala egiteko, kostaldeko zein barnealdeko turismoa hartuko lukeena

d) Euskal Herriko plataforma birtual bakarra sortzeko ahalegina egingo da baliabide turistikoa sustatzeko helburuz.

## 1.4. ETXEBIZITZA

EUSTATEk argitaraturiko azken datuen arabera, 2013 urtean, Bizkaian, 536.556 etxebizitza ziren, beraien arteko %7 hutsik egonda:

	E.A.E.		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	N	%	N	%	N	%	N	%
<b>Denetara</b>	<b>1.041.959</b>	<b>100%</b>	<b>166.680</b>	<b>100%</b>	<b>536.556</b>	<b>100%</b>	<b>338.723</b>	<b>100%</b>
Okupatuak	950.951	91,27%	147.260	88,35%	499.006	93,00%	304.685	89,95%
Hutsak	91.008	8,73%	19.420	11,65%	37.550	7,00%	34.038	10,05%
- garai batean	28.988	2,78%	7.527	4,52%	10.855	2,02%	10.607	3,13%
- erabili gabeak	62.020	5,95%	11.893	7,14%	26.695	4,98%	23.431	6,92%

*Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiken Saila. Etxebizitza Hutsen Estatistika, 2013.*

Etxebizitza hutsak egon arren, Administrazioek etxebizitzak eraikitzen jarraitzen dute (azken garaian, krisia dela eta, gutxiago izan arren). Kasurik larrienetariko bat Bizkaiko Foru Aldundiarena dugu. Eskumenak Eusko Jaurlaritzan eta udaletan egon arren, 2003 urtean, Bizkaiko Foru Aldundiak onartu zuen Etxebizitza Foru Plana, helburua 3.000 etxebizitza tasatu eraikitzea izanik. Plan horretan, Aldundiak emandako azken datuen arabera, 153.567.346 €koa inbertitu du 1.096 etxebizitza sustatzeko. Gaur egun, etxebizitza horietan modu ohiko eta iraunkorrean bizi diren familiak 1.013 dira eta 83 etxebizitza hutsik daude:

Udalerrria	Etxebizitza hutsak
Amorebieta-Etxano	4
Areatza	11
Ereño	17
Etxebarria	5
Fruiz	1
Güeñes	8
Lanestosa	21
Meñaka	1
Munitibar	1
Nabarniz	8
Urduña	2
Sukarrieta	1
Zierbena	3
	<b>83</b>

Etxebizitza Foru Planaren porrota nabaria izan arren, etxebizitza hutsak egon arren, Aldundiak etxebizitza gehiago eraikitzeari ekin nahi dio. Bizkaiko udalerrri hauetan dago etxebizitza berriak eraikitzeko asmoa:

- Amorebieta -Etxanoko Betarragane. 175 etxebizitza. Kooperatiba-erregimenean egingo dira.
- Barakaldo: 161 etxebizitza, Eretza Udal Sozietatearekin batera.
- Erandio. Bi esparru; Altzagan 115 etxebizitza eta Tartangan 400 etxebizitza inguru.
- Ea. Bi esparru; bata 8 etxebizitzarako, eta bestea beste 8 etxebizitzarako.
- Alonsotegi. Partzela bat. Aprobetxamendurako 3.295 Unitate garatzeko, gehi %10, beste orube baten proindibisoan.






Beste udalerri batzuetan, hitzarmena egin gabe dago, baina etxebizitzak eraikitzeko lurzorua dute: Bakio (5.751 m<sup>2</sup> lurzoru); Derio (69.530 m<sup>2</sup> lurzoru); Trapagaran (gutxi gorabehera, 60.000 m<sup>2</sup> lurzoru); Mendata (9.545 m<sup>2</sup> lurzoru); Kortezubi (13.533 m<sup>2</sup> lurzoru); Zierbena (13.087 m<sup>2</sup> lurzoru).

Etxebizitzen alokairua bultzatu baino etxebizitzen erosketa izan da nagusi gure jendartean.

Azken urteotan, krisiaren ondorioz, gero eta jende gehiagok ezin izan du zeukan hipoteka-kredituari aurre egin. Horren aurrean, bankuek hipoteka-exekuzioak martxan jarri dituzte eta Bizkaian familia asko etxetik kaleratuak izan dira.

Espainiako Justizia Boterearen Kontseiluen datuen arabera, hauek dira izandako hipoteka-exekuzioak 2007tik 2013 urtera:



Etxe-kaleratzeen inguruko datuak hauek dira:

Etxe-kaleratzeak	2008	2009	2010	2011	2012	2013
jasota	715	752	1.161	1.260	1.612	1.187
aginduta	504	542	764	901	1.000	780

Baina etxe-kaleratzeak ez dira bakarrik hipoteka ezin ordaintzearen ondorioa, Alokairuen Legeak ahalbideratu ditu alokairua ordain ezinean zegoen jendea ere kaleratzea, ondoko taulan ikus dezakegunez:

Etxe-kaleratzeak	2013	2014 - I	2014 - II	2014 - III
eginda	660	159	172	91
hipoteka-exekuzioen ondorioz	138	44	33	17
alokairuen legearen ondorioz	491	88	122	62

Bizkaiko Batzar Nagusiek eskatu zuten etxe-kaleratzeen aurkako neurriak hartzea eta 2013ko ekainean, Etxebizitza Foru Planeko etxebizitza hutsak eskaini ziren etxetik kaleratuek erabili ahal izateko. Baina urtebetean, Aldundiak diotenaren arabera, ez du inork horrelako etxerik eskatu (noski, Nabarnizen edo Ereñon hutsik dauden etxebizitza horiek ez dira irtenbide inorentzat).

Etxe-kaleratzeen inguruan, bulego bat ireki zuen Aldundiak, baina bertara deituta, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara edota etxe-kaleratzeak STOP elkartearengana jotzea gomendatzen dizute, beraiek ezin badute arazoa konpondu.



## PROPOSAMENAK

89. Bizkaian dagoen etxebizitzaren benetako beharrari eta egungo etxebizitza-parkeari buruzko diagnostikoa burutzea, udalekin eta gizarte eragileekin elkarlanean.

90. Bizkaiko Foru Aldundiak alde batera utziko du etxebizitza berria eraikitzeko edozein plan, are gehiago etxebizitzak saltzekoak badira.

### **Etxebizitza hutsak erabilgarri jartzeko neurriak**

91. Bizkaiko Foru Aldundiak zehaztu eta martxan ipiniko ditu gizarte-sentsibilizazioko kanpainak, jabeak beren etxebizitza alokairuan jar dezaten edo udalen esku utzi dezaten, alokairuan jarriko diren etxebizitza hutsen poltsa sortzeko.

92. Aldundiaren eta etxebizitzaren jabeen arteko hitzarmenak 5 urteko indarraldia izango du. Salbuespena izango da egoera pertsonala (zehazteke) dela kausa, jabeek bere etxebizitza erabiltzeko beharra dutenean. 5 urte horietan, bai etxebizitza alokairuan jartzen duenak zein alokatzen duenak zerga-hobariak (zehazteke) izango dituzte.

93. Ez ohiko etxebizitzetara Ondare Higiezinaren Zergaren erretegia aplikatzeko neurriak hartuko ditugu. Neurri honetatik jasotako etekinak, osotasunean etxebizitza politiketarako zuzenduko ditugu.

### **Alokairua sustatzea**

94. Diru publikoan eraikiko diren etxe guztiak, alokairuan eskainiko dira, diru publikoa pribatizatzeari utziko zaio.

95. Urrats praktikoak eman alokairuzko parkeak osatzen joateko: hirigintza hitzarmen bidez etxeak eskuratu eta alokairura bideratu, lehentasunezko erosketa bidez babestutako etxeak eskuratzeko aukerak probestu ahal den guztietan eta etxe horiek alokairuko parkera lotu.

96. Alokairua diru sarreren arabera ezarriko da, ez du gaindituko hauen %30, alokairu sozialaren kasuan %15etik azpikoa izango da, eta behar gehien dutenek aukera gehiago izan dezaten baremazio bidez banatuko dira eta diru sarrerak izango dira lehentasunezko irizpidea.

97. Aldi baterako etxebizitza eskuratzeko neurriak, era partekatuan erabiltzeko zein pertsona bakar batentzat.

### **Hipoteka exekuzioak eta kaleratzeak ekiditeko neurriak**

Erakunde guztiek ardura dute gure jendartearen ematen diren hipoteka exekuzioetan eta kaleratzeetan, salerosketan oinarrituriko etxebizitza-politikaren aldeko neurriak sustatu baitituzte, eskubidearen gauzapena norberaren eta merkatuaren eskuetan utziz.

Etxebizitza duina erabiltzeko eta gozatzeko eskubidearen gauzatze-ezak, eguneko gertatzen diren hipoteka exekuzio eta kaleratze ugariekin batera, erakundearen politiken porrota islatzen du.

98. Bizkaiko Foru Aldundiak informazioa eta aholkularitza eman eta bitartekari-lana egingo du exekuzio eta kaleratze-prozesuetan, eta baita, erabiltzaileekiko gehiegikeria kasuetan, gehiegizko klausuletan, IRPHan, ... Helburua hipoteka exekuzioa geldiaraztea izango da.

99. Bizkaiko Foru Aldundiak, hipoteka exekuzioa geldiarazteko neurriak adostea lortzen ez denean, bitartekari lana egingo du finantza-entitatearekin, etxebizitza horretan bizi diren pertsonak bertan alokairuan geratzeko (alokairuzko etxebizitzetan ezarritako baldintzekin).



100. Bizkaiko Foru Aldundiak, aldian-aldian, txosten bat argitaratuko du ondoko datuak jasoz: hipoteka exekuzioen eta kaleratze kopuruak, enkantean erositako prezioa, kasu bakoitzean parte hartu duen finantza-entitatea eta lorturiko emaitzak.

101. Bizkaiko Foru Aldundiak birnegoziatu nahi eta ordainean ematea onartzen duten bankuekin negoziatuko du etxebizitza horiek alokairuzko etxebizitza-poltsan utz ditzaten.

102. Bizkaiko Foru Aldundiak aztertuko ditu gehiegizko praktikak (birnegoziazioak ez onartzea, hipoteka exekuzioak eta kaleratzeak aurrera eramatea, ordainean ematea ez onartzea) dituzten finantza-entitateen aurkako neurriak, hala nola, etxebizitza horien balioekiko zerga bereziak ezartzea finantza-entitateei.

#### **Etxebizitzaren funtzio soziala berreskuratzeko mobilizazio sozialaren aurrean**

103. EH Bildu egun Euskal Herrian ematen diren okupazio dinamikekiko begirunea erakustez gain, horiek kriminalizatzearen kontra argi eta garbi agertzen da. Horrenbestez, okupazio dinamikek arazoak sortzekotan, horiek elkarrizketa bidez konpondu beharko dira.

104. Aurrekoa dela eta, honakook dira EH Bilduk bere gain hartzen dituen konpromisoak:

a) Udalek, ez udal langileek, ez dute parte hartuko utzarazte ekintzetan.

b) Bai Batzar Nagusiek zein Udalek, kaleratzeak eta okupatutako eraikinetan gauzatzen diren jarduerak etetea ekiditeko paper aktiboa izango dute. Eta beharrezkoa balitz, bitartekari lana egiten, eraikina okupatu dutenen eta jabe pribatuen artean.

# BIZKAIA IRAUNKORRERANTZ BIDEA EGITEN ARI GARA #BIZKAIABERDEA

## 2.1. NATUR BALIABIDEAK

### 2.1.1. ENERGIA

Euskal Herriak duen menpekotasun energetikoa ia erabatekoa da, %90ekoa baino handiagoa, eta are gehiago Bizkaian. Herri burujabea izan nahi badugu energia burujabetzaren norabidean aurrerapausuak egitea ezinbestekoa da. Eredu ekonomikoarekin hestuki lotuta dagoen energia eredu atzerakoia dugu, xahuketan eta etengabeko hazkundean oinarritzen dena. Honek gero eta dependentsia handiagoa sortzen digu kanpotik ekarritako lehengaietara. Era berean, iturrien %80tik gora lehengai fosiletan (petrolio, ikatza eta gasa) oinarri duen eredu honek kalte eta arazo larriak eragiten dizkie ekosistemei eta pertsoneri (lurra, ura eta airearen kutsadura, klima aldaketa, etab.).

Berez larria den egoera are gehiago iluntzen da gure kontsumo maila altuaren ondorioz, gure inguruko herriek baino energia gehiago kontsumitzen dugulako euskaldunok, nahiz eta energia-iturri gutxiago izan. Kontsumo handi honen arrazoiak dira, batez ere, garraio-eredu desegokia, autoaren erabilera sustatzen duena, eta gure industriaren espezializazio eta kontzentrazio maila altua energia kontsumo itzela duten sektoreetan.

Energia eredu honen kudeaketa egiten duten oligopolio eta multinazionalak beraien interes ekonomikoei begirako kudeaketa eredu inposatu dute azken hamarkadetan, botere politikoa izan duten alderdien laguntzarekin beti ere. Ate birakari kasuak bereziki sektore honetan ikusteak badauka, beraz, azalpen erreza. Argigarria da, era berean, Madrilgo agintariek egin duten legedi-aldaketa, gero eta traba handiagoak ipiniaz oligopolioen hatzaparretatik alde egin nahi duten herritarrei eta energia beriztagarriei.

Bitartean, herritarrentzako ondorioak izan dira, aipatutako kutsaduraz gainera, gero eta prezio garestiagoak ordaindu behar izatea energia iturri guztiengatik eta, ondorioz, pobrezia energetikoaren hedapena. Gero eta gehiago dira berogailua, ur beroa edo argindarra erabili ezin duten herritarrak, soldata, pentsio edo prestazio gero eta txikiagoekin oinarritzako energia beharizanak asetzeko gaitasunik ez dutenak.

Egoera honen aurrean argi dago Euskal Herriak Eredu Energetiko Burujabea behar duela, oinarri eta praktika berriekin eraikiko duguna. Horretarako burujabetza ezinbestekoa dugu, gure etorkizun energetikoari begira, erabaki propioak hartu ahal izateko.

Energia burujabetza da gure helburu estrategikoa. Baina ez edozein eredu txikitzailearen bitartez lorturiko autosufizientzia, baizik eta eredu energetiko berri eta integral baten bitartez lorturikoa, balore eta praktika zehatzak bultzatuko dituen. Eredu berri honi "Eredu Energetiko Burujabea" deituko diogu.

Lehendabiziko helburua kontsumoaren murrizketa izan beharko da. Eraiki beharreko eredu berri osoa kontsumoaren murrizketan oinarrituko da. Soilik gure dependentsia energetikoa murriztuz (eta beraz kontsumoa gutxituz) lortuko dugu burujabetza energetikoa. Honek, inplikazio indibidual zein kolektiboa beharrezkoa du.

Energiaren produkzioa, banaketa eta kontsumoa oinarri berri batzuen arabera eraikiko dira. Behetik gorako eredu praktikan eraiki behar da teorian baino gehiago, herri eta eskualdeak oinarritzako unitate izanik. Hauek izango dira "Eredu Energetiko Burujabe" berrirantza aurrerapausuak egiteko neurriak:

- Edozein praktika garatzerakoan, abiaraziko dugun proiektu edo hartuko ditugun erabakiek herritar, ingurumen eta lurraldearen gain eragiten duten inpaktua aztertu eta baloratuko da.



- Produksioa: eredu deszentralizatua. Produksio puntuak, kontsumitzaileetatik ahalik eta gertuen, ziklo ahalik eta txikiena osatuz.

-Energia beti baliabide berriztagarrien bitartez sortuko da, beti ere eskala ahalik eta txikienean, ingurugiroari ahalik eta inpaktu gutxien sorrarazi asmoz.

- Gertuko ereduia sustatuz, banaketa geroz eta hurbilekoagoa izango da, banaketarako baliabideak minimora murriztuz.

- Autohornikuntza da helburua eta, beraz, herri zein eskualde bakoitzak bere aukerak aztertuko ditu, egokienak abiarazteko.

- Efizientzia energetikoa: gutxiago kontsumitzearekin batera, kontsumitzen duguna era efizientean egitea ezinbestekoa da. Gutxitze hori sustatzeko, norbanako zein instituzioek neurri zehatzak hartu behar dituzte.

- Ereduek energetikoa izan beharreko beste ezaugarri nagusietako bat bere kudeaketa publikoa litzateke. Energia herritarren ondare bilakatu beharko litzateke, negoziarako erabili ordez,

## PROPOSAMENAK

### Kontsumoa murrizteko neurriak

105. Industriaren alorreko enpresetan auditoria energetikoa sustatzea, kontsumoa jaisteko asmoz. Bizkaian kontsumitzen dugun elektrizitatearen ia erdiak enpresek kontsumitzen dute. Hori dela eta, sektore honetan efizientzia energetikorako inbertsio planak babesteko egitasmoa zehaztu eta norabide horretan doazen I+G+B-ko egitasmoak sustatuko ditugu.

106. Garraioagatik sortzen den kontsumoa murriztu: Garraioak energia guztiaren %33 erabiltzen du eta, beraz, berebiziko garrantzia dauka gai honetan. Ondorioz, "0 Km" politikak bultzatzea proposatzen dugu, izan kontratazio klausulen bidez, zein plan orokorretan oinez edota bizikletan iristeko moduko distantzietan beharrezko egokitzapenak eginaz. Era berean, garraio publikoaren hedapena eta hobekuntzak ezinbesteko papera izango dute autoaren erabilpena gutxitzeko eta, ondorioz, energia kontsumoa murrizten lagunduko dute.

107. Bizkaiko Foru Aldundiaren energiaren kudeaketa iraunkorra: Foru Aldundiaren kudeaketa energetikoa, erakunde publikoa den heinean, garrantzi handia du ikuspuntu guztietatik: arlo energetikoan dituen inpaktuak zuzentzea, haren funtzionamenduak duen gastu publikoa murriztea, eta eredugarria izateko betebeharra, izango duen ohiartzunagatik. Foru Aldundiak zuzenean erabiltzen dituen dozenaka eraikin ditu, argiteria publikoko instalazioekin, eta politiken garapenarekin lotutako ehunka eraikin. Eraikin hauen planifikazio energetikoa eta kudeaketa energetiko arrazionala bultzatzea ezinbestekoa da.

108. Teknologia berrien erabilpena sustatu: Bizkaiko enpresa eta industria sarea teknologia energetiko berrien esparruan sartu behar dugu, kontsumoaren murrizketan parte aktibo izan daitezen eta eredu deszentralizatu berrirako teknologia garatzen protagonista izan daitezen.

### Energia berriztagarrien aldeko neurriak

109. Lehengai fosiletatik energia berriztagarrietara salto egin behar dugu. Ingurumen ikuspegitik, zein bideragarritasun ekonomiko eta sozialetik, energia berriztagarrietan oinarrituriko sistema energetikoa eraiki behar dugu, beti ere aipaturiko kontsumoaren murrizketa burutuz. Iturri berriztagarri ezberdinak (haizea, ibaiak, mareak, lur-azpiko tenperatura altuak, eguzkia, egurra...) uztartuko dituen ekoizpen ereduari bultzada sendoa emanez gero, oinarritzko beharrianak asetzeko aukera erreala bilakatuko litzateke.

110. Energia garbi eta berriztagarrien sustapena enpresa txiki eta ertainetan: Industriak energiaren azken kontsumoaren ia erdia du eta elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, burdingintza eta galdategiko sektorean bakarrik energia elektrikoaren eskaeraren erdia da. Baliabide teknikoaren gabeziak eta enpresa jardueraren egunerokoak beharrezkoa egiten dute erakunde publikoen esku sartzea. Zentzu honetan, Enpresa txiki eta ertainetan energia aurrezteak, energia eraginkortasuna eta energia berriztagarriak sustatzeko programak areagotuko ditu.

111. Energia banatuaren sorrera: Egun elektrizitate gehiena zentralizatutako instalazio handietan sortzen da, hala nola, erregai fosila erabiltzen duten zentraletan (ikatz, gas naturala), nuklearretan eta hidroeletrikotetan. Energiaren sorrera banatuak, berriz, proposatzen du energia sortzea kontsumituko den gunetik gertu dauden instalazioetan, kontsumitzaileari zuzenean edo garraio eta banaketa sareari konektatuz. Kontsumoaren eraginkortasuna errazten duen planteamendu bat da, sortzaile/kontsumitzailearen ikuspuntutik gutxienezko kontsumitu eta auto-hornidura handiena lortu nahi baita. Honela, energia menpekotasuna murrizten da eta energia eredu sozializatuago bat lortzen da, pobrezia energetikoaren maila apalagoekin.

Hala ere, oztopo asko daude, besteak beste: politika arazoak, arazo juridikoak, ekonomikoak, teknologikoak eta abar. Foru Aldundiak gaitasunak ditu oztopo horiek gainditzen laguntzeko eta eredu energetiko berri hori lortzeko elementu berriak sustatzeko. Horrek esan nahi du energia berriztagarrietan ditugun gaitasunen aprobetxamendu iraunkorra sustatu behar dela, sorrera banatuan oinarritzen den ereduak, alegia (eguzki-fotovoltaikoa, eguzki-termikoa, beroa sortzeko basoko biomasa eta basokoa ez den biomasa, intentsitate ertainetako eta baxuetako eolikoa, lur azaleko geotermia, hidraulika txikiak eta bestelako aukerak).

112. Tokiko eta eskualde mailako jarduna: Udalak jakitun dira energiaren arazoa konpondu beharra dagoela, lurralde osoan banatutako zerbitzu publikoetako kostuak jaisten hasteko. Poliki-poliki, eta ahalegin handiz, jarduerak bultzatzen ari dira, udalen jardueran zentzua eta eragina duten jarduerak, hain zuzen ere. Oztopo nagusiak dira udal ekipoen finantzaketa eta baliabide teknikoak, gai garesti, konplexu eta benetako aplikazioaren zain dagoen baten aurrean. Foru Aldundiak, bere eskumenez gain, ardura subsidiarioa du udal eskumeneko gaitetan. Eremu horretan ibilbide luzea dago egina laguntza teknikoko eta finantzariko tresnekin, zeintzuk dibertsifikatzen ari baitira, eta energia alorreko alderdietara orientatzen ere ari baitira.

### **Eredu zaharkituarekin amaitu dezagun**

Iturri fosil kutsakorretan oinarritzen den eredu energetiko zaharkituak ez dauka etorkizunik eta, beraz, berarekin jarraitzeko enpresa eta alderdi batzuk egiten ari diren azkeneko ahaleginen aurka egin behar dugu, eredu berria sustatzeko neurriak garatzearekin batera.

113. Fracking ez. Lurrazaleko eta lurrazpiko urak eta aireak pozointzen dituen teknika honi ezezko borobila ematen diogu. Lurraldearen okupazio eta suntsiketa sistematikoa dakarren jarduerak honek arrisku handia dakar pertsona, animalia eta ingurumenaren osasun eta bizitzarako eta, gainera ez du inongo alternatibarik suposatzen energia eredu zaharkitu honetan. Are gehiago, eredu bereberetan jarraitzeko ahalegin antzua besterik ez da.

Horrela izanik, Aldundian eta Batzar Nagusietan, Udaletan bezala, gure esku dauden tresna guztiak erabiliko ditugu Fracking-ari aurre egin eta bere mehatxua desagertu dadin.

114. Garoña Itxi. Frackingarekin gertatzen den bezala, Garoñako kasuan ere enpresa handien interesak ikusi daitezke, aspaldi desagertuta beharko lukeen mehatxu nuklearra berpiztu nahian ari baitira kasu horretan ere. Enpresa eta alderdi politikoen arteko ate birakariaren adibide garbiak ikusi ditzakegu kasu honetan ere, gure herriko politikagintzan aspaldiko jarduerak salagarria.

Lemoiz gelditzea lortu zen moduan, Garoña berriz ere zabaldu ez dezaten indarra egin beharko dugu Bizkaitarrok ere, Araban aspaldi hedatzen ari den herri-aldarrikapenarekin bat egin eta sekula ireki behar ez zen zentral nuklearra behin betiko itxi dezaten lortu arte. Horretarako, Nuclenoren atzean dauden enpresen ardura argi eta garbi salatuko dugu.



## 2.1.2. HONDAKINAK

Baliabide naturalak eta energia etengabe kontsumitzean oinarritzen da gure ekonomia eta gizarte kapitalista, gero eta abiada eta neurri handiagoan gainera. Honek dakarren ondorioetako bat da hondakinen etengabeko hazkundera, gero eta baliabide gehiago erabiliaz beraien kudeaketarako.

Europatik datozen irizpide eta zuzentarauak argiak dira eta norabide egokian zuzenduak: Zero zabor, bide eta helmuga. Hondakinik ez sortzerainoko bideari ekin behar zaio eta neurri eta pausu eraginkor eta ausartak egin behar dira norabide horretan.

Gure gizartea erabili eta botatzeko ardurabako ohituratan hazi da azkeneko hamarkadatan, baina eredu horretatik aldendu eta berria eratu behar dugu, non herritar arduratsuek jatorritik lagunduko duten zero zabor helburua lortzen. Horretarako abiapuntua, ezinbestean, kontsumo ohitura arduratsuek lantzea eta zabaltzea litzateke. Gutxiago kontsumitu, baliabide gutxiagorekin hobeto bizi eta hondakin gutxien sortzen dituzten produkzio sistemak bultzatu.

Abiapuntu horretatik errezago izango da sortzen ditugun hondakinak berrerabili eta, ezinezkoa denean, sailkatu eta berziklatzea. Ikerketa eta garapen lan handia dago egiteko, materialeen arloan eta produkzio eremu ezberdinetan, gero eta hondakin gutxiago sortu eta gero eta gehiago birziklatzeko.

Ezinbestean sortzen diren hondakinak, berriz, sorlekutik ahalik eta hurbilen tratatu behar dira, alperrikako garraioaren ondorioak ekiditeko. Udalek dute hor zeregin nagusia, beraiena baita herritarrek sortzen dituzten hondakinak tratatzeko ardura. Horrela izanik, ahal den guztietan herrian bertan egin beharko da hondakinen birziklapen eta tratamendua, edo hasierako faseak, behintzat.

Hondakinen kudeaketarako azpiegiturak eskala horretatik abiatuta diseinatu eta eraiki beharko dira, tokian tokiko beharrian eta aukerei egokituta. Izan ere, eskala erraldoian eginiko proiektuek eta kudeaketa ereduak gehiago erantzuten diote zerbitzu eta eraikuntza arloan betidanik jardun duten enpresa handien interesei herritarren benetazko beharriari baino.

Guzti hau, noski, herritarrengandik hurbil eta gardentasun osoz garatu beharko da, guztion aurrekontuak kudeatzeak eskatzen duen arduraz. 2020rako %70eko birziklapen tasa lortzeko bide luzea daukagu egiteke Bizkaian eta, zoritxarrez, denbora handirik ez dago. Aipatuko ditugun neurri guztiak berehala eta gogoz bultzatuz gero, helbururako bidean aurrerapausu handiak egingo ditugu, zalantza barik. Orain arteko eredu jarraituz gero, ordea, antzuak izango dira birziklapena handitzeko ahaleginak. Izan ere, errauskailu kutsakor eta arriskutsu handien mesederako sistema baten menpe gaude Bizkaitarrok. Has gaitezen, beraz, errotik aldatzen hondakin politika eta bere ondorio kaltegarriak.

## PROPOSAMENAK

115. Egungo egoeraren informazioa jaso. Herri eta eskualde bakoitzaren errealitatea ezagutu behar dugu lehenik eta behin. Zenbat eta zelako hondakinak sortzen diren, nork sortzen dituen jakiteko plangintza abiatuko dugu Udal eta Mankomunitateekin batera.

116. Norabidea eta epeko helburuak zehaztu. Oraingo egoeratik abiatuta plangintza zehatza diseinatuko dugu, epeka lortu beharreko helburuak argi eta garbi finkatuz eta bide horretan eragile bakoitzak hartu beharreko ardurak ondo definituz.

117. Kutsatzen duenak ordain dezala. Fiskalitate berdea birziklatzen dutenen aldekoa izan behar da. Birziklatzeko ahalegin egiten ez duten herritar eta enpresek gastu handiago eragiten diete Udalari eta hondakinen kudeaketarako baliabideak ipintzen dituzten bestelako administrazioei. Ez da onargarria, beraz, gehien kutsatzen dutenek eta, ondorioz, gastu handiagoa eragiten dutenek, beste herritarren pareko tasak ordaindu ditzaten.

118. Organikoa, arazoaren zati handi bat den neurrian, konponbidearena ere bai. Jakinik ia hondakinen erdia organikoa dela, aurrerapausu itzela egin daiteke jatorrian hondakinen atal hori bereizituz gero. Herri guztietan dago, gainera, hondakin organiko horiekin konposta egiteko aukera ematen duten parke, berdegune eta zelaiak, baldin eta auzoka edo blokeka egin nahi bada. Eskala handiagoan egin nahiz izanez gero, herri edo eskualde mailako azpiegitura mekanizatuagoak eraiki beharko dira, baina beti ere tokian tokiko tratamenturako.

119. Ikastetxeetarako aukera konposta egiteko. Ikastetxeetako jantokiak hondakin organikoen sortzaile handiak direla jakinik, aukera paregabea ematen dute ikasleen parte hartze zuzenarekin eta Agenda 21 moduko programen laguntzarekin, bertan konposta egiteko.

120. Jarduera berezietarako programak. Baserriak, lorazaintza eta antzerako jarduerak hondakin organiko kopuru handien iturri diren neurrian, beraienezako programa bereziak abiatu behar dira, tokian bertan konposta egiteko baliabideak eta argibideak emanaz.

### 2.1.3. BASOGINTZA

Baso ekosistema osasuntsu eta sendoak ezinbestekoak dira guztion bizi-kalitate egokia bermatzeko. Uraren eta luraren kalitatea hobetzen eta bermatzen laguntzen dute basoek, oxigenoa sortu eta eta CO2 gas kutsatzailea kutsatzen dute, negutegi efektua murriztuaz eta, gainera, bertan bizi diren landare eta animalia espezie guztien babesleku dira. Baso zenbat eta anitzago eta osasuntsuagoak izan, dakartzaten onurak are handiagoak izango dira.

Horrela izanik, kanpoko zuhaitz espezieen monokultibo intentsiboa oinarri izan duen eredutik beste eredu berri baterako bideari ekin behar zaio, bertako espezie ezberdinen berreskurapenerako urrats sendoak eginaz eta basoari begirako epe laburreko ikuspegi ekonomizistatik aldentuta. Bertako espezieen karakterizazio teknologikoa bultzatu behar dugu, kudeaketa eta ikerketa arloan esparru berriak zabalduaz; dagoenari uko egin gabe, baso-produktuen dibertsifikazioa eta berrikuntza sustatzea dugu helburu.

Basoa egur biltegi handi bat baino askoz gehiago da eta egurra baino askoz gehiago ematen digu. Beraz, erabilera intentsibo bakarretik aldentu eta, ekonomikoki ere, bestelako ikuspegiak bultzatu behar dira basoarekin lotuta: paisaia, turismoa, mikologia, abeltzaintza... gauza ugari eskeintzen dizkigu basoak egurrez gainera, bioaniztasunaren sendotzearekin uztartuta garatu daitezkeenak.

Guzti hori lortu daiteke, gainera, kalitatezko enplegua sortzearekin batera, gaur egun sektoreak bizi duen krisi sakonari aurre egiten lagunduko duena. Landa eremua era honetako lanpostuen premian dago, honez gero daudenak mantentzetik hasita, espezializazio eta profesionalizazioaren bidean eginiko aurrerapausuen bitartez sektorea sendotzeraino.

### PROPOSAMENAK

121. Administrazioa eredu. Aldundia izan beharko litzateke bide berriak zabaltzen lehena, jabe partikularrei adibide emanaz. Kudeaketa publikoa duten baso guztietan eredu berria aplikatu behar dugu, bertako espezieekin ekosistema konplexu eta osasuntsuak sortuz, bioaniztasunaren gordeleku izango direnak.

Partikularrei zuzendutako dirulaguntzak ere norabide berean joan beharko liratezke, kanpoko espezieen monokultibo intentsiboei mugak jarritz.

122. Lur-banku publikoak. Antzinako herri-basoen ereduari jarraituz, lur publikoen eremuak zabaldu behar dira, ikuspegi ezberdinen arabera lehentasunak jarritz (bioaniztasuna, paisaia, balio historikoa...).





123. Ikerketa eta garapena. Bertako espezieekin ikerketa eremu berriak zabaldu behar dira, beraien karakterizazio genetikoa egin eta gaur egun pairatzen dituzten arazo eta gaixotasunei aurre egiten laguntzeko. Era berean, egur mota ezberdinek dituzten ezaugarri bereziak arlo eta erabilera ekonomiko ezberdinetara bideratzen laguntzeko ikerketa ere bultzatuko dugu.

124. Basoaren bestelako erabilerak bultzatu. Egur-biltegi bat baino askoz gehiago da basoa eta, gizarteari onura ezberdin ugari eskeintzen dizkio, esan dugun moduan. Ekonomikoki ere, bestelako onurak bilatzen lagundu behar dugu: mikorrizazioaren bitartez ustiapen mikologikoa garatzen lagundu behar dugu, abeltzaintza estensiborako aukerak bultzatu, turismo eta paisaia aldetik basoak aktibo garrantzitsua bilakatzearekin batera.

125. Biomasaaren erabilera eta kudeaketari buruzko ikerketak eta esperientzia pilotuak abiatuko ditugu, beti ere bertako basoaren kudeaketa integrala helburu izanda eta bioaniztasunaren babesleku nagusi izan behararekin bateragarri diren jarduera-ereduak jarraituz.

126. Baliabideak. Landa eta basoetan bizi diren landare zein animalia espezieen jarraipena, babesgunea, ikergunea eta kudeaketarako baliabideak jarri behar dira.

## 2.1.4. URA

Azkeneko hamarkadetan gero eta nabarmenago ari gara ikusten mundu osoan zehar hedatzen ari den egoera bikoitza, urari dagokionez. Alde batetik, uraren eskasia gero eta handiagoa da leku askotan, gehiegizko erabilera desegokiaren eraginez eta klima aldaketaren ondorioz. Era berean, gero eta ur-masa handiagoak kutsatuta daudenez, erabili daitekeen ura gero eta gutxiago da. Beste alde batetik, enpresa handien eskuetan ipini da leku askotan uraren kudeaketa, eskubide unibertsala izan beharko litzatekeena negozio bilakatuz. Gurean ere, zoritxarrez, azaldutako errealitate bietaranzko urratsak egin dira azken urteotan.

Ura baliabide produktibo edo merkantzia hutsa baino askoz gehiago da eta, ondorioz, daukan garrantzia eman behar zaio. Uraren ziklo osoa haintzat hartu behar da bere kudeaketa diseinatzerakoan, berarengan eragina duten jarduera guztien gaineko hausnarketa sakona eginaz (basoak, industria, turismoa, eraikuntza...). Euria jasotzen duten baso eta mendietatik hasita, erreka, ibai, hezegune eta bestelakoetatik igarota, itxasora heldu bitarteko ingurune eta ekosistema guztiak aztertu eta babestu behar dira uraren ziklo osoan kalitate eta bolumen egokiak bermatu ahal izateko. Hornigai edo salgaia izan beharrean, ura ekosistema oso bat da, eman diezaiogun merezi duen arreta.

Aipatutako helburuak lortzeko ezin dugu uraren kudeaketa enpresa pribatuen esku utzi, posiblekin lortzeko beste helbururik ez daukanak nekez zainduko duelako ondasun publiko estrategiko hau behar den moduan. Ozen aldarrikatzen dugu, beraz, uraren kudeaketa publikoa izan behar dela eta gardena. Mundu osoko hainbat herrialdetan milaka elkarte eta herritar lan handia egiten ari dira uraren kudeaketa herriak berreskuratu dezan. Jarraitu dezagun haien adibidea.

## PROPOSAMENAK

127. Kudeaketa publiko, gardena eta gertukoa. Bizkaia osorako eta atzerrirako Partzuergo zentralizatu bakarra izan beharrean, eskualde eta herri bakoitzean jarri behar ditugu erabakiguneak. Herritarren, eragileen eta udalen partehartze zuzena ezinbestekoa da tokian tokiko azterketak egin eta neurri egokiak hartzeko, norbere ura zaindu eta kudeatzeko ardura herri bakoitzak har dezan, norbere aldetik edo inguruko herriekin elkarlanean.

Gardentasuna kudeaketa publikoaren oinarri izan behar bada, uraren kasuan zorrotasun handiagoz eskatu behar dugu gauza bera. Jarduera guztiak azpikontraten esku uzten dituen kontrolgabeko partzuergo handiaren eredutik urrundu eta gertutasuna eta gardentasuna ardatz izango duen kudeaketarako pausuak egin behar ditugu. Bestela, konturatu orduko, esku pribatuetan izango da betidanik guztiona izan den ura.



128. Eskariari erantzuteko barik, kontsumoa eta galerak murriztea dugu helburu. Urte luzez eskariari erantzuteko ahalegin antzuan milioika euro erabili dira, gero eta obra eta azpiegitura handiagoak eginaz, konstruktora handien mesederako. Horren ordez, edo aurretik, kontsumo arduratsua sustatzeko neurri sakonak hartu behar dira, ura alperrik erabiltzen dutenek askoz gehiago ordain dezaten, kontsumo arduratsua eta beharrian egoeran daudenei ordainarazi beharrean. Era berean, betidaniko ur-galera izugarriekin amaitzeko programa sendo eta zehatza abiatu behar da, agortzen hasita dauden iturburuetatik ur gehiago atera beharrean.

129. Ekosistema osoaren kalitatea berreskuratu eta zaintzeko programa integrala garatu. Gorago esan dugun moduan, ura ez da baliabide hutsa, batzuek ikusten duten bezala. Ura ekosistema oso bat da, konplexua eta delikatu, bizi guztiaren oinarrian dagoena gainera. Ikuspegi horretatik abiatuta, akuiferoak, bilketa-guneak eta isurialde osoak hartu behar ditugu haintzat uraren kudeaketa integralaz ari garenean.

Egoeraren azterketa sakonak egin eta neurri zehatzak garatu behar ditugu. Babes perimetroak ezarrita, basogintza eta bestelako jarduerak modu egokian arautu eta isuriak itsasora heltzen diren une eta lekura arteko ziklo guztiak modu egokian bideratuko ditugu, kalitatea eta bolumenaren kaltegarri diren faktore guztien gaineko neurriekin.

## 2.2. ELIKADURA BURUJABETZA

Nekazaritza eta elikadura sistemen globalizazioarekin batera landa eta elikadura ondare kulturala eta materiala arrisku bizian aurkitzen dira, gaur egun bizi dugun krisi ekologikoa areagotuz. Nekazaritza ekosistemetan ematen diren oreka aldaketak gizakien bazterketarekin lotzen dira zuzenean, ondorioz merkatuaren menpekotasuna handituz.

Elikadura burujabetzak, agroekologiaz baliatuta nekazal ekosistemak ulertu, diseinatu eta kudeatzeko ikuspegi berri bat azaleratzen du. Ikuspegi berri honek nekazaritza eta elikadura sistemen garapena, berreskuratutako baserriar jakinduria eta egiteko eta antolatzeako erak bultzatzen du.

Agroekologiaren proposamena hiru zutabe nagusietan oinarritzen da: oinarri tekniko produktiboa, giza-kulturarena, eta ekonomikoa. Agroekologiaren dimentsio politikoa ekoizpenean, transformazioan, banaketan edota elikadura kontsumoaren inguruan giza mugimenduek bultzatutako ekimen ezberdinak laguntzean eta indartzean oinarritzen da. Elikadura burujabetza agroekologiaren oinarriak betetzen dituen proposamena izanik.

### Zer da elikadura burujabetza?

Elikadura burujabetzaz ari garenean gizaki guztiok daukagun elikatzeko eskubideaz ari gara. Herri guztiak bere ekoizpena eta elikatzeko politika propioak diseinatzeko eskubideaz ari gara, gizarte horren kultura eta egiteko eta antolatzeako eren errespetuaz eta barne merkatuak babesteaz. Beti ere kanpoko beste merkatu batzuen kontrako neurririk hartu gabe.

Elikadura burujabetza kontzeptu politiko globala da, hala ere tokiko garapen prozesuekin eraiki behar dugu, horregatik herri eta bailara ezberdinetan garatzen ari diren proiektu ezberdinak bultzatzea estrategikoa da gure ustez.

### Egungo egoera

Azken 40 urte hauetan lehenengo sektoreak Europako eta bertako politikek bultzatuta, baserri zein arrantza munduak pisua galduz joan da, hau baserriar eta arrantzale galeran eta nekazaritza lurren galeran nabarmendu da.



Azken urteetan izandako hazkunde desorekatuaren ondorioz nekazaritzan aurrera egiteko zailtasunak daude.

Lehen sektorea, testuinguru askotan, eztabaidetatik kanpo geratu da ekonomian duen pisu "eskasagatik", elikaduraren beharra eztabaidetatik at utzi dutelarik, eta ondorioz plangintza gehienetan nekazaritza eta arrantza baztertuz. Horrela, nekazaritzarako behar diren lurak, gehienetan, beste aktibitate batzuetara zuzendu dira.

Gure herrian, produktuen eraldaketarako politika okerrak bultzatu dira, sektore produktoreek lehengai merkeak ekoiztea bultzatu da, hori lortzeko sektoreen kontzentrazioa, espezializazioa eta industrializazioa bultzatuz. Prozesu guzti honen emaitza baserritarren galera izugarria izan da.

Industria eraldatzaile handiak sustatzea eta subsektoreka sortzea izan da politiken obsesioa, lehengai merkeak topatu nahian sektorea zapuztu eta munduko beste edozein tokitatik ekarriak izan dira. Transformazioa eredu industrial bat jarraituz garatu da, baina lehengaien ekoizpena beste plano batean geratu da. Transformazio egitura txikiak desagerrarazi egin dira errentagarritasun gutxikoak zirelakoan eta osasun legeak gaizki aplikatuz, horrela baserritarren beharrei jaramonik egin gabe egitura handiak garatu dira.

Honekin batera nekazaritza inongo laguntza teknikorik gabe geratu da, garai batean sortutako egiturak PAC-aren kudeaketarako eta lan burokratikoan itota geratu dira, aholkularitza eta transferentzia alde batera utziz. Ekoizpen eredu errentagarria garatzeko izan behar zuten diru laguntzak, askotan, landa eremuko beste aktibitate batzuk garatzeko erabili izan dituzte Landa Garapenerako Programek.

Argi dago orain artekoak ez duela sektore indartsu bat eraikitzeko balio izan, beraz bide berriak jorratu behar dira. Eta beste herrialde askotan gertatzen ari den moduan, baserritarrak desagerrarazi eta nekazaritza lurra agortzen duen eredu industrial baten aurrean elikadura burujabetzaren aukera dago. Elikadura burujabetzarantz gure bidea egiten lagunduko digun lanabesa agroekologia da. Baserritarren eta kontsumitzaileen beharretan oinarritutako tokiko elikadura sistemak eraikitzean da gakoa.

## PROPOSAMENAK

### ONDASUN NATURALAK: Kudeaketa kolektibo eta publikoa bultzatu

#### Lurra

130. Nekazaritzarako egokiak diren lurak bestelako interesen aurrean nekazaritzarako babestea, inbentario bidez sailkapen eta kalifikazio xehatua eginez eta babeserako eraginkorrak diren mekanismoak martxan jarri.

131. HAPOetan lur ez-urbanoa aztertu, sailkatu eta nekazaritzarako diren babes figura berriak sortu.

132. Lurralde antolaketarako lanabes ezberdinetan (DOT, PTS , PTP) nekazaritza eta basogintza babeserako neurri eta plangintza zehatzak landu.

133. Lur funtsa lurrez hornitu eta beharra duten baserritarren esku jarri. Lurren esleipenerako irizpideak zehaztu (emakumeak, gazteak, berriak, agroekologikoa, lurren banaketa duina, etb.).

134. Nekazaritza eta basogintza lur erosketa publikoko politika martxan jarri.

#### Ura

135. Uraren kontsumoaren jasangarritasuneko nekazaritza modeloak bultzatu.

136. Uraren ziklo osoa publikoki kudeatzeko politikak bultzatu.

#### Bioaniztasuna

137. Prospekziotan lagundu, herrian gordetzen diren tokiko hazi, barietate eta arraza ezagutzeko.

138. Babeserako erreferentzi-ortuak sortu eta kudeatu.

139. Hazien, barietateen eta arrazen banku publikoak bultzatu.

140. Elkartrukatzerako guneak sortu. Bertoko nekazaritzaren “komunikazio jardunaldien” barruan sartu horrelako ekimenak. Ortu municipalak dauzkaten herrietan, bertoko barietateekin lan egiteko aukera bikaina dago.

#### Basogintza

141. Basogintza sostengarrirako Plan Teknikoak landu, Inbentario, helburu eta neurri zehatzekin.

142. Bertoko basoaren berreskurapena edota sustapena (kontserbaziorako edota ekoizpenerako).

143. Monoerabileran ez jausi. Baso lur berak egurretarako, abeltzantzarako, perretxiku bila ibiltzeko balio dezake.

a) Jabe pribatuei aukerak eskaini (informazioa udaletatik).

b) Udal tasen bidez basogintza sostengarria mesedetu.

#### **EKOIZPENA: Nekazaritza iraunkorra babestu eta bultzatu**

144. Nekazaritza politika komunitarioan (NPK) planteamendu bikoitz eta kontrajarriak bultzatzen dira, ekoizpen modelo eta errekurtsoen banaketan isladatzen dena. Planteamendu hauen aurrean, Europako nekazari, arrantzale eta gizartearen eskaerak, eta osasuntsu jateko eskubideak, babesteko jarrera bultzatu beharra dago.

145. Dirulaguntzen banaketaren oinarria buru kopurua edo lur hektarea kopurua izan beharrean, oinarria baserritarra izatea eta dirulaguntzen kalkuluan gehikuntza era linealean beharrean era modulatuan egitea. Bestetik, dirulaguntzak baserritarren eta gizartearen beharrezkoen arabera izan behar dute, kalitatezko elikagaiak eta ingurugiroarekiko begirunea kontutan hartuz. Berebiziko garrantzia dauka lanpostuei eustek eta lanpostu berriak sortzeko, berezko giza kapital ahulenak (emakumeak, nekazari gazteak, etorkinak) benetan babestuz.

146. Baserritar bakoitzak duen ekoizpen gaitasuna mugatze bidean dirulaguntza, baliabide natural eta abarren banaketa justua bultzatu. Mugagabeko ereduak lan zama handitzea eta lan eskuaren balorea devaluatzea dakar, agronegozientzako elikagaiak merke egitea eta sektorean jarduteko aukerak mugatzea.

147. Landa Garapen Programaren barruan dauden laguntza lerro desberdinetan (inbertsio laguntzak, mendi nekazaritzako laguntza konpentsagarriak, ingurumen-nekazaritza laguntzak, aholkularitza zehar-lerro bezala) nekazaritza iraunkor eta herrikoia sustatu (dibertsifikatua, zikloak ixten dituen, ekologikoa, bertako arraza eta barietateak erabiltzen dituen, etb.).

148. Baserrien autonomia eza eta kanpokoekiko dependentzia haustea, honako neurri hauen bidez:

a) Bakoitzak dituen baliabideak optimizatzeko etengabeko trebakuntza, arrazak, haziak eta abar erabiliz, nekazaritza industriaren baliabideekiko menpekotasuna murriztu ahal izateko.

b) Administrazioak eta sektoreak elkarrekin kudeatutako ENTE autonomoa sortzea, adibidez abeltzainek izango duten zereal beharrezkoak aztertu ahal izateko, gero nekazariak hori ekoizti dezaten.



c) Baserritarren arteko komunikazioa landu, nork zer daukan, Euskal Herrian bertan harreman zuzenaren bitartez zikloak ixteko.

149. Baserritarrak derrigorrez joan beharreko ikastaroen artean ingurumen-nekazaritza arlokoak sustatzea.

150. Progresibitatean oinarritutako zerga sistema bultzatu, gehiago daukanak gehiago ordain dezan. Diru bolumen txikiko jarduerentzat sistema erraztua eta gainontzekoentzat diru sarrera eta irteeretan oinarritutakoa, sarreretan diru laguntzak eta irteeretan soldatak kontutan hartuz.

151. Foru Aldundiak emango dituen laguntzak ondoko lerroen arabera izango dira:

a) Eredu intensiboetatik iraunkorragoetara urratsa eman nahi dutenentzako laguntzak.

b) Emakumeak nekazaritzara gehitzea azkartzeko laguntzak.

c) Gazteei begirako lehen instalazio errazturako laguntza martxan jarri. Inbertsioa egin ala ez instalatzeagatik izango da laguntza.

d) Baserriak eskuz aldatzerako laguntzak.

e) Baserritarren baja eta oporraldietarako ordezkapen zerbitzurako laguntzak.

f) Sektoreko eragileei ematen zaizkien laguntza desberdinetan nekazaritza iraunkor eta herrikoiaren inguruko irizpideak kontutan hartuko dira.

#### **ERALDAKETA: Nekazari, abeltzain eta arrantzaleen ekonomiari balore gehigarria eranstean diona**

152. Eraldaketarako gaur egun dauden osasun araudiak malgutu inguruko beste herrialdeetan egiten den moduan, baserritar ekoizpenak eta industriako ekoizpenak ezberdintzeko eta baserritarren produkzioak ahalbideratzeko.

153. Eraldaketarako behar diren baimenak erraztu, eta ahal den heinean fiskalki erraztu.

154. Herri edo bailara ezberdinetan martxan dauden eraldaketarako proiektuei laguntza eskaini.

155. Baserritarrek autonomia irabazteko helburuarekin ekoiztutakoa transformatu eta merkaturatzea errazteko, herrialde osoan zehar transformazio guneen sare bat antolatuko da. Era anitzetako transformazioak burutzeko zerbitzua eskainiko du sareak, barazki, esneki, fruta, haragi eta abarrak. Administrazioak ekoizleen esku jartzen duen zerbitzua izango da, Udal, Aldundi eta Landa Garapen Elkarleen artean finantzatu eta kudeatua.

156. Egun dauden transformazio gune publikoen kudeaketa publikatu (behar den kasuetan). Kudeaketa organo berrietan bai baserritarren, bai merkataritza txikien ordezkariak bermatuz.

157. Eskualdeetan ez dauden transformazio guneetara elikagaien garraioa erraztu.

158. Kostako herrietan arraina transformatzeko guneekin batera eskaini daitezke zerbitzu bateratuak.

159. Industria transformatzaileari ematen zaizkien laguntzetan kontutan hartuko dira, alde batetik industriek baserritar eta arrantzaleei jartzen dizkien baldintzen duintasuna (prezioa, ordainketa epeak, bilketa baldintzak...), eta bestetik eraldatutako produktuak herritarrei begira eskaintzen duen informazioaren gardentasuna eta prezioa.

### **MERKATURATZEA: Nekazari, abeltzain eta arrantzaleen ziklo ekonomikoa osatzen duena**

160. Arrainaren salerosketarako kofradiek behar dituzten azpiegitura egokiak bermatzea, kofradien aldeko apustu garbia eginez.

161. Baserritar-arrantzale eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzenak bultzatu.

162. Herrialde mailan salmenta zuzenaren eta merkaturatzeko bide laburren inguruko egitasmoak sustatu.

163. Bertako produktu eta produktu agroekologikoen inguruko sentsibilizazio eta promozio kanpainak martxan jarri.

164. Banatzaile handiek bertako produktuak saltzeko dituzten planteamenduen aurrean, baserritarrei jartzen dizkien baldintzen duintasunaren eta herritarrei eskaintzen dieten informazio gardenaren eta prezio duinaren alde egitea.

### **Baserritar eta arrantzaleak duindu**

165. Tokiko baserritar eta arrantzaleen lanaren garrantziaz eta funtzio sozialaz sentsibilizatzeko kanpainak martxan jarri (eskolak, komunikabideak...).

166. Tokiko emakume baserritarrek, sektoreak eskura dituen trebakuntza saio, antolaketa gune, baserri guneen jabegotza-eskuratze, autonomo izendatze eta baldintza orokorren duintzeak eskuratu ahal izateko baliabideak aktibatu (informazioa, zerbitzuak, etab.).

167. Landa guneetara iritsiko diren zerbitzu publikoak egonkortu, zaintza eta produkzio-lanak kontziliatze aldera bereziki: haurtzaindegi, eguneko zentro, garraiobide publiko, etab.

168. Baserri munduan dagoen genero banaketa gainditzeko ildoak aktibatu: produkzio eta merkaturatze modu desberdinak, esplotazioen jabegotza, dirulaguntzen eskuratzea, etab.

### **TRANSGENIKOAK, Elikadura burujabetza eta osasunaren kontrako mehatxua**

169. Transgenikoak pertsona eta animalien elikadura katean ez erabiltzearen aldeko konpromisoa hartu, horretarako epe motz eta ertainera begirako egitasmo desberdinak martxan jarri.

170. Transgenikorik gabeko gune izendatu herriak eta herrialdea.

171. Animalien elikadurarako erabiltzen diren produktu transgenikoen aukerak bilatu eta plangintzak martxan jarri.

172. Transgenikoen gaiaren inguruko sentsibilizazio kanpainak martxan jarri.

### **EROSKETA PUBLIKOA, Tokiko elikadura sistemen gako**

173. Elikagaien erosketa publikoa burutzen diren lekuak identifikatu, berauen eskumenak eta baldintzak zeintzuk diren aztertu eta gertutasun, kalitate eta ingurumen irizpideak kontuan hartuta inguruko baserritar eta arrantzaleen produktuak erabiltzen hasi herriko merkataritxikiekin bestelako produktuak osatuz.

174. Udalak edo Aldundiak babestutako edozein ekintza gastronomikotan bertako baserritarren eta arrantzaleen produktuak erabiltzeko konpromisoa garatu posible denean, era agroekologikoan eta arratza arduratsu bitartez ekoiztutakoak lehenetsiz.



175. Sariketa desberdinetan ohiko garaikurren ordez inguruko baserriar eta arrantzaleen produktuz osatutako saskiak banatzearen aldeko konpromisoa garatu.

#### **TOKIKO ELIKADURA SISTEMAK, burujabetzaren oinarria**

176. Tokiko elikadura-sistema iraunkor, justu eta osasuntsuak eraikitzeke plan integralak behar dira, ekoizpenaren hasieratik kontsumoa burutzen den momentu-arteke fase guztiak izan behar dira kontutan. Bestelako ikuspegiak lantzea interesgarria da ere, gastronomia eta turismoa adibidez.

177. Fase bakoitzean parte hartzen duten aktore desberdinen arteko elkarlan zabal batetik antolatu daiteke gisa honetako plan integral bat, baserriar, arrantza, herritar, kontsumitzaile elkarte, merkatar, LGE, Garapen Ekonomikorako Elkarte, bestelako eragile, administrazio eta abarren arteko elkarguneak sortu eta egitasmoak martxan jarri.

#### **Sentsibiizazioa eta formakuntza**

178. Gizartean elikaduraren garrantzia zabaldu, osasunaren inguruan, bertoko herrien garapenean, herrien ekonomien bultzakadan baita ingurugiroan dituen ondoriengaitik.

179. Hezkuntza tekniko eta ideologikoa eskaini arrantza eta nekazaritza iraunkorrerako, gaur arte hezkuntza formala beti modelo agroindustrialerako bideratua izan delako. Hezkuntza toki bakoitzeko bereziki diseinatu, leku horren baliabideak eta beharrak aztertuz eta bertan ematen diren estrategiak eta prozesuak errespetatuz eta bultzatuz.

## **2.3. LURRALDE ANTOLAKETA ETA HIRIGINTZA**

Hirigintza hiriaren antolaketaz arduratzen den diziplina da. Diziplina konplexua izaki, beste hainbat jakintza-arlorekin erlazio zuzena du, besteak beste, arkitektura, lurraldearen antolakuntza, zuzenbidea, ingeniariar, ekologia, soziologia eta politikarekin.

Herri eta auzoetan eraikuntzek dituzten ezaugarriak eta eraikuntzen artean dauden espazioen antolamendu eta erabilerekin jendartean eta pertsonengan eragin zuzena daukate.

Egungo legedietan funtzio publikoa argi eta garbi azaltzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruaren Legeak erakusten duen moduan: hirigintza, hain zuzen, interes orokorraren alde diharduen funtzio publikoa izango da, eta ez «hirigintzaren arloan sortzen diren gainbalioak esku pribatuek lortzeko bidea»

Interes orokor hori, zalantzan jar daiteke gure herrietan eman diren hirigintza jarduerak aztertuaz gero. Udalek hirigintza artikulatzeko arau ordezkatzailak edo Plan Orokorrak daukate. Gehiegitan, tokiko administrazioek ez dituzte modu integralean berrikusi planeamendu hauek. Interes puntual eta jakin batzuei erantzuteko egin dituzte aldaketa puntualak.

Gainera, planeamendua modu integralean berrikusi den kasuetan ere, ez da herrien beharrianak aztertuko lituzkeen diagnostiko zehatz eta parte hartzaile baten oinarritu. Udalaz gaindiko planeamenduek uzten zieten ahalik eta etxebizitza libre eta lurzoru industrial gehien kalifikatzea izan dute helburu.

Bizkaiko Foru Aldundiarentzat ere, udal planeamenduak kalifikazio berrietarako soilik balio du. Horren froga argi bat dago: Azken hiru urteetan, Aldundiak udalei planeamendua berrikustea osorik ordaintzetik, diru laguntza oso urria ematera pasa da. Hau da, gaur egun eraikin berriak ia eraikitzen ez denez, planeamenduen eguneratzeak ez dituzte lehenesten.

Egin izan diren planeamendu berrikusketa gehienetan, ingurumen arloko ikasketak aurretik hartutako erabaki politikoa justifikatzera etorri dira, lurraldeak eskatzen zituen baldintzak betearaztera baino gehiago.

Hiri-lurzoru finkatua ia ez da aztertu. Lurzoru ez urbanizagarrietan artifizializazio berriak non egin daitezkeen sakondu da. Horretarako legediak derrigortutako 3 aukerak jasoaz, ingurumen ikasketak erabaki politikoa babestuko lukeen eran.

Antolamendu berrien diseinuan, batez ere sustatzaile eta lur jabeentzat, eta beste maila baten udalentsat, irabazi handiak bermatzen dituen bideragarritasun ekonomiko finantzarioak izan dira lehentasuna.

Herriaren erdigune historikoa edonolakoa izanik ere, eraiki diren auzo berriak zabalguneeetako trama jarraitu dute; eraikigarritasun askoko etxebizitza-blokeak eraikiz, eta autoen eskala eta beharren arabera eginiko espazio publikoa sortuz. Horren adierazgarri da, antolamendua berdegune, espazio libre, babes publiko etxebizitza eta ekipamenduen kuantifikazioan, lurzoru legeak ezartzen dituen minimoak betetzera mugatu dela.

Hirigintza jarduera horrek kalte nabarmenak ekarri dizkio jendarteari. Azpimarratzearen, espazio publikoaren erabilera eta etxebizitzaren arazoa aipatuko ditugu.

Azken hamarkadetan espazio publikoa eta kalea sentitzeko modua zeharo aldatu da. Eguneroko bizitzan kalea elkarbanatzeko eta egoteko toki bat izatetik, zerbait zehatza egitera joateko igarobide izaterantz joan da. Gero eta arrotzago sentitu dugu kalea eta etxean denbora gehiago gelditzearen ohitura zabalduz joan da.

Aldaketa horrek ez dio espazio publikoan ematen diren prozesu sozialei soilik eragin. Eraikinetako portaletan auzokideek duten harremanetan ere antzematen da. Alde batetik, behe solairuetan merkataritza erabilera eman beharren, etxebizitza erabilera zabaldu da. Ondorioz, eraikin guztia terraza pribatuekin, eta berauen horma perimetralarekin inguratu da, portalerako sarrera kaletik urrunduz. Bestalde, eskaileratako atsedene-guneetan solasaldi gutxiago dago eta espazio kolektibo bat izatetik, inoren toki ez izatera pasatu dira

Indibidualismoaren eragina landaguneetako baserri eta etxebizitzaren arteko harremanetan ere antzematen da. Askotan, eraiki dituzten etxebizitza berrietara "txalet"etan bizi nahi duten kanpoko familiak etorri dira eta inguruko lursailak harresiekin inguratu dituzte. Landaguneetako gune kolektiboak galduz joan dira, auzokoen arteko harremanak gutxitzen joan direlarik.

Aldaketa guzti hauen adierazgarri nagusia urte horietan jaio diren haurren bizimodua da. "Etxe-gaztelua"n hezi ditugu, kanpokoarengandik salbu; ez diegu utzi heldurik gabe kalera edo eskolara joaten. Kalearekiko beldurrez bete ditugu eta bete gara.

Belaunaldi hauek gazte izatera iritsi direnean lagunekin lokaletan egoten dira gusturago plazetan baino. "Etxe-gaztelu"tik "lokal-gaztelu"ra pasatu dira. Honekin ez dugu esan nahi, aurreko belaunaldiak bizi izan duen taberna eta alkoholaren inguruko sozializazioa egokiagoa edo ideala denik. Gaur egun, ostegunetan, 30 urtetik gorakoek pintxo pote orduetan kaleak betetzen dituzte. Bestalde, poteo kaleak larunbat gauetan gero eta hutsagoak daude.

Hirigintzan eman den akats handienetariko bat espazio publikoan autoari eman diogun lehentasuna da. Herrietako espazio publikoaren erabilera aintzat hartuz, ze ehuneko eman diogu autoei eta zenbat oinezkoiei edo bizikletei?

Espazio publikoaren azalera eta paisaia autoak bereganatu du. Autoan portaleraino heltzea lehenestu dugu haur eta elbarrituen segurtasunaren gainetik. Espazio publikoaren beharretan hitz egitean herrietan, aparkaleku falta agertzen da, gozatu dezakegun espazio berdeen aurretik.






Dena den, ohartu behar gara kontsumo esponentzalean oinarritutako hazkunde ereduak goia jo zuela duela urte batzuk. Zerbait aldatzen ari da gure herrietan. Adibidez, herri kanpoaldeetako azalera handiko merkataritza zentroak kolokan daude, aurreikusten zuteneko kontsumo kopurua ez delako ematen. Herriguneetan aldiz, oinarritzko janariak diren fruta eta barazkien denda txikiak ugartuz doaz.


### Mugikortasuna

Energiaren eta, bereziki, petrolioaren gailurra igarota, ezinbestekoa da trafikoa murriztea, denok ulertuko dugun moduan. Eta ezinbestekoa diogunean esan nahi dugu halabeharrez gertatuko dela, aukera bi besterik ez dagoelako trafikoaren bilakaeran: nahita egitea, modu planifikatuan eta ondorioak (ekonomikoak, sozialak...) aurriztuz sailatuta, ala gura barik, halabeharrez eta ondorioak aurrizki ezinik.



Hamarkadetan zehar, erakunde publiko ezberdinek trafiko arazoei aurre egiteko politika ezberdinak garatu dituzte: errepide gehiago, aparkaleku gehiago, kontzientziario kanpainak, bidegorriak, garraio publikoa bultzatu, etb. 50-60 hamarkadatik etengabe hazi da pertsona eta merkantzien garraioa eta, gainera, autoan oinarritu da hazkunde hori gehienbat, bereziki, bidaiarien garraioari dagokionez. Zerikusi handia dauka honekin gure gizarteak autoa mitifikatu izanak, zalantzarik gabe.

Hala ere, trafikoaren hamarkada luzeetako joera, orain dela gutxira arte inor gutxi zalantzan ipintzen zuena, eten egin da krisialdi honen hasieratik: 2013ko aforo planaren datuen arabera Bizkaiko errepide sareak hazkunde tasa negatiboa izan du seigarren urtez jarraian. Errealitate hau etorkizuneko planifikazioan oso kontutan hartu beharrekoa da.





Izan ere, lehenago esaten ziguten aurreko urteetako garapen positiboak adierazten zuela, halaber, hurrengo urteetan garapena ere goranzkoa izango zela. Ondorioz, logika berari jarraitzen badiogu, esan beharko dugu trafikoak beharrezko jarraituko duela, bai borondatez (sekula lortu ez dena) zein derrigorrez (krisi ekonomiko eta energetikoen eraginez).

Gure helburua izan beharko litzateke energia kontsumoa eta, ondorioz, trafikoa ere (are, trafikoa bereziki) borondatez edo, hobe esanda, modu planifikatuan gutxitzea. Izan ere, ezinbestekoa den joera hori borondatez eginez gero, aukera izango dugu plangintza baten baitako neurri konpentsatzaileak hartzeko, gerora azalduko dugun moduan. Eta horretarako ezinbestekoa da garraio publiko sarea indartzea.

Bizkaiko Foru Aldundiak urte luzeetan sustatutako mugikortasun ereduak errepideak eraikiz erantzun nahi izan dio trafiko eskariari. Trafiko kongestioari eredu sostengarri baten bidez aurre egiteko ahaleginetik urrun, egungo errepide sarearen gainean errepide berriak eraikitze izan da sustatu den politika. Ez da trafikoaren kudeaketizan trafikoa gutxitu duena, krisia baizik. Egungo testuinguruan, ikuspegi okerrarekin egindako planak gainbehera erori dira, eta errepide hutsek egungo krisian hain beharrezko diren bestelako inbertsioak egitea eragozten duen zorra areagotu baino ez dute egiten.

EH Bilduk beste mugikortasun eredu baten alde egiten du. Eredu berri horretan, medio pribatuaren gainetik garraio publikoa sustatzen dugu, eta kutsatzen duenaren gainetik kutsatzen ez duena gailentzen da. Hau da, oinezkoak, bizikletak eta garraio publiko kolektiboa eta unibertsala lehenesten ditugu.

Erronka honi heltzeko beharrezkoa da Interbiak-en zorpetzearen gaineko egoera erreala ezagutzea. Gaur egun, Bizkaiko Foru Aldundiaren gaitasun ekonomikoa Supersur (900 milioi € + esplotazio defizita) eta Gerediaga-Elorrio (2.400 milioi €) bezalako inbertsioek baldintzatuta ageri da.

## PROPOSAMENAK

180. Bidegorriak eta oinezkoen bideak: Erregai fosiletan oinarrituta ez dagoen mugikortasuna lehenetsiko da oinezko zein bizikleta bidezko joan-etorriak sustatuz eta oinezkoen bideak eta bidegorriak eraikiz. Gehien bat herri zein eskualdeen barruan, herri arteko bizikleta bideen sarea garatuz. Horretarako:

a) Udalentzako dirulaguntza lerro bat irekiko dugu Bidegorrien Udala Sarea burutzea errazteko.

b) Lanerako, eskola kirolerako edota ikastetxeetarako joan-etorrietan oinezko eta bizikleta bidezko joan-etorriak sustatzeko programak indartuko dira.

181. Garraio publikoa: Bizkaiko Garraio Autoritate berria sortzea bultzatuko dugu, eragile sozial ezberdinei parte hartzeko aukera irekiz eta operadore ezberdinen arteko koordinazioa bermatuz.

182. Bizkaian txartel bakarra ezarriko dugu gainontzeko herrialdeekin koordinatuz.

183. Tren zerbitzua: Tren zerbitzuen eskumenak Bizkaiko Foru Aldundiarenak izan ez arren, dagoen eskaintza zeharo hobetzeko lan egingo dugu.

a) Bermeoko adarraren hobekuntza eta beharrezko desdoblamentuak.

b) Sarratuko intermodala bultzatu.

c) Trenbide igarobideak ezabatu.



184. Abiadura Handiko Trena: Lanei berehalako luzamendu bat ematea proposatzen dugu, gizartean horren premia estrategikoari buruz hausnarketa sakona egin ahal izateko, garraibidearen kostu globala (ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari eragingo diona) kontuan hartuta; horrela, gizarteak parte hartu ahal izateko prozesu bat zabalduko da, AHTren proiektuaren etorkizunari eta EAEko trenbide garraioari buruzko erreferendum bat helmuga izango duena.

185. Errepideen Lurralde Plan sektoriala egokitzea beharrezkoa da, inbertsioak egungo krisi egoerari atxikiz. Planifikazio berria era parte-hartzailean egin behar da, eskaera sozialal diren eta pertsonen bizitza kalitatean eragin positiboa duten inbertsioak bermatuz.

186. Errepideen finantziakzioa: Sistema orekatu eta justuago bat lortzeko garraio publiko eraginkor baten aldeko ereduak garatzeko behar den oreka finantzarioa lortzeko bidea emango digu. Bidesarien politika berriak gaur egun Bizkaiko ekialdean bizi diren herritarrek pairatzen duten diskriminazioa gainditzeko urratsak emango ditu.

187. Lurralde-antolamendurako artez bideak (LAA), Lurralde Plan Partzialak eta Arloko Lurralde Planak eguneratzea.

188. Sektore-politiketan eta lurralde-plangintzako politiketan, klima aldaketa eta biodibertsitatearen kontserbazioa kontutan hartzea.

# BEHETIK GORA ERAIKITZEN ARI GAREN BIZKAIA #BIZKAIAHORIA

## 3.1. GAZTE POLITIKA

Gazteriak krisiaren eta oro har sistemaren ondorio latzak modu berezitan pairatzen ditu. Bizitza politikoan, gazteriaren parte-hartze zuzena ezinbestekoa da, dagozkion eskubide eta beharriari erantzuteko eta jendartea eraldatzeko.

Gure helburu den zapalkuntzarik gabeko jendartea eraikitzeo gazteria ahalduntzea nahitaezkoa da. Bide horretan, parte-hartzea izango da EH Bilduk garatuko duen gazte-politikaren oinarri nagusia. Horrela bermatuko dugu, eremu guztietan, gazteriaren ahotsa entzuna eta aintzat hartua izango dela; eta, ondorioz, gazteria ahalduntzeko prozesua eraginkorki gauzatu dela.

Ez gatoz gazteriarentzako programa konkretu batzuk, edo laguntza ildo jakin batzuk sustatzera eta bideratzera. Gazteak erabakien parte izatea nahi dugu, gazteoi zuzenduriko politika konkretuetan zein politika orokorretan. Horregatik da EH Bildu, beste proiektu guztien aurrean, alternatiba erreal bakarra.

### PROPOSAMENAK

#### Bizi baldintzak

189. Gizarte Zerbitzuak: Laguntza guztien baldintzak berrikusi eta gazteriaren beharrei egokitu: etxebizitzarenak, emergentziakoa edo diru-sarreraren berme errenta, etab.

190. Mugikortasuna: Gazteriaren beharrei egokitutako garraiobide publikoa bultzatzea. (Ikasleentzat, adinaren arabera eta diru sarreraren arabera, garraio publikoaren eskaintza egokitzea, bai zerbitzua zein kostuari dagokionean)

191. Lana: gazteok lan mundura sartzeko mekanismoak ezarriko dira. Langabeziari aterabidea emateko neurriak. Besteak beste, gazteen gizarteratzeko kontratazio publikoetan gizarte klausulak ezarriko dira kontratazio horiek portzentai batean gazteengatik betetzeko.

192. Etxebizitza: Alokairu soziala bultzatuko dugu. etxe hutsak gazteen emantzipaziorako berrerabiltzeko apustua egingo da. Etxebizitza politikaren baitan gazteen baliabide eta beharretara egokitu diren politikak bultzatuko dira, etxebizitza eredu berriak sortuz.

193. Etxebizitza eskubide subjektibo bezala onartuta (hau da, etxebizitza eskatu daitekeen eskubidea dela onartuta) 18 urtetik gorako edozein pertsonak BOEren eskatzaile izateko eskubidea izango luke. Alokairu soziala bultzatuko dugu: sarrera minimo bat ez da kontuan hartuko poltsa hauetan sartzeko.

194. Kultura eta sorkuntza: Sormena sustatzeko eta bultzatzeko baliabideak eskainiko dira, ekonomikoak, azpiegituren bidez, zein gune komunak ideien deskargarako eta kultur munduan dabiltzan gazte sortzaileak eta ekoizleak ezagutu ahal izateko sare bat osatzeko helburuarekin.

#### Ahalduntzea

195. Parekidetasuna: Sexu aholkularitza zerbitzuak abian jarriko dira bai era zuzenean gazteei zuzenduta bai ikas zentroekin batera. Eraso sexistaren aurka protokoloak zehaztuko ditugu.

196. Etxebizitza jabego ereduari alternatibak ezagutzera eman eta sustatu.



197. Egungo kontsumo eredua gaitutiko duen jendartearen bidean kontzientziazioa garatu

198. Aniztasuna: migrazioa, integrazioa, kulturen arteko bizikidetzeta eta, oro har, aniztasunaren inguruko lanketak txikitatik (ikastetxe, udal zerbitzu,...).

#### **Parte-hartzea**

199. Gazteriarekin batera, gazteen beharrak zehazteko diagnostiko bat egingo da ondoren beharrezko ekimenak zehazteko.

200. Espazio eta baliabideak eskaini gazteek proiektu propioak garatzeko.

201. Parte-hartze prozesuetan planteamendu espezifikoa, gazteen errealitatea aintzat hartu.

202. Gazteriaren beharrian eta aldarrikapenak politikako eremu guztietan presente egotea bermatu. Horretarako gazteei bereziki zuzenduriko neurriez gain egiten den planteamendu orotan, "planteamendu honekin gazteen beharrianak asetuta al daude?" galderari erantzunez.

## **3.2. GARDENTASUNA ETA PARTE-HARTZEA**

Herritarren parte-hartzearen ikuspegitik, legegintzaldi hau erabateko porrota izan da. EAJ-k herritar eta eragileei bizkarra emanez kudeatzen ditu Bizkaiko Batzar Nagusial eta Aldundia. BBNNetako mahaiaren osaketatik hasita, eguneroko funtzionamenduarekin jarraituz, aurrekontuen lanketa, informazioaren erabilera eta abar luze bateraino. Urteotan bazterketa eta gardentasun falta izan dira ezaugarri nagusiak.

Azken lau urteetan EH Bilduren jardunak helburu bikoitza izan du: Batetik, gure jarduera propioa parte-hartzearen eta gardentasunaren ispilua izan; eragileekiko etengabeko harremanetza prozesuan, euren proposamen eta iradokizunak entzun, jaso eta ahal den neurrian bideratu, batzordeetara zein plenoetara.

Legegintzaldi honetan Batzar Nagusietako barne araudiaren berriztatze prozesuan parte hartu dugu aldaketa sakonak proposatuz: batzordeen irekiera eragileen parte-hartzeari, gobernuari buruzko kontrol plenoak, uztaila habilitatzeko eskatuz, etab. Finean, instituzioaren gardentasuna eta zabalkundea helburu duten proposamenak izan dira EH Bilduren ardatza.

Euren herriko desanexioa lortu asmoz Usansoloko herritarrek aurrera eraman duten kontsulta prozesua ere, bere hasiera-hasieratik, begi onez jarraitu eta lagundu izan dugu. Erabat demokratikoa den ariketatzat hartzen baitugu, eta horregatik bere emaitzarekiko erabateko konpromisoa adierazten dugu.

Urteotan herrialdean eman diren langile borrokek ere gure ateak parez-pare zabalik izan dituzte. Enpresa pribatuen kasuetan (Troquenor, Incoesa, Alfus, lketz etb.) zein langile publikoenetan (Bizkaibus edota Batzar nagusietako garbitzaileen kasua).

Aurrekontuen elaborazio prozesuetan eragileek EH Bildurekin euren iritzia eta planteamenduak partekatzeak aukera izan dute. Aldundiaren hasierako proposamenaren irakurketa eta balorazioa eurekin konpartitu izan dugu, eta baita gure proposamenak eurekin konpartitu eta kontrastatu ere. Lau urte hauetan, gai honetan ere, harremanak eta informazioaren gardentasuna gure hizpide nagusiak izan dira.

Azken finean, oposiziotik izan bada ere, EH Bilduren jarduera uneoro Aldundiaren eta Batzar Nagusietako kudeaketa gardena, zabala, herritarra eta partehartzailea izan dadin bideratu dugu; talde politiko guztiek edozein informazioa jasotzeari dagokionez, herritar eta eragileekiko harremanei dagokionez, batzordeetan eta plenoetan

herritarrek euren proposamenak eramateari dagokionez, urteotako kudeaketaren iluntasunak argitu eta instituzioetako atek haize berriari zabalduz.

## PROPOSAMENAK

### Gardentasuna

203. Gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko Foru Araua garatu, Aldundiaren jarduerari buruzko informazio guztia herritarren eskura egon dadin.

204. Hizkuntz instituzionala sinplifikatu eta erraztuko dugu, teknizismoen gaintik argitasun pedagogikoa lehentsiz. Horretarako, teknikari eta politikoak formatuko ditugu.

205. Erakundearen ate irekien eguna finkatuko dugu (gutxienez urtean egun batean) erakundea herritarrei fisikoki irekitzeko eta gertukoagoa sentitzeko.

206. Webguneetan agenda publikoak sortuko ditugu, bilera, erabaki, proposamen, adostasun eta batzordeen berri emateko.

207. Erakundeak herritarrei irekiko dizkiegu bilera eta elkarrizketa fluxu iraunkorren bitartez, kolektibo desberdinek erakundera jotzen dutenean gertutasuna eduki dezaten.

208. Bizkaiko Foru Aldundian eta diru publikoz baina kudeaketa pribatua eginez funtzionatzen duten merkataritza foru sozietate eta fundazioen sarea progresiboki ezabatzeko plana abian jarri, BFAk horiek zuzenean kudeatuz. Ildo berean, erakunde ezberdinen artean ematen diren bikoiztasunak gainditu eta ezabatzeko erabakiak hartuko ditugu.

209. Goi Karguen eta izendapen askeko karguen soldaten jaitsiera, pribilegioen ezabaketa (zesantiak eta bizitza aseguru pribatuak) eta haien bateraezintasunak era zorrotzean arautuko duen Foru Araua indarrean jarri. Alderdi politikoei loturiko fundazioek jasotzen dituzten pribilegioak ezabatu.

210. Bizkaiko Foru Aldundiak gaur egun duen 2.200 milioi eurotako zorraren gaineko goitik beherako auditoria egingo dugu.

### Parte-hartzea

211. Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza sortu, Aldundiko departamentu guztiek politika publiko esanguratsuak herritarren parte-hartzearekin definitu, landu eta hobetzeko helburuz.

212. Aldundiaren aurrekontuak era parte-hartzailean diseinatzeko bitartekoak garatu, eskualde guztien ikuspegiak txertatuz.

213. Lurraldearen garapenaren ikuspegitik garrantzitsuak diren gaiei buruzko herri-galdeketak antolatzeko konpromisoa hartu.

214. Parte-hartze ekimenak antolatzean, zaintza-zerbitzuak bermatuko ditugu herritar guztiak ekimenetan parte hartzeko aukera izan dezaten.

215. Erakundeei erraztasun eta laguntza juridikoak eskainiko dizkiegu prozesu parte-hartzaileak bultzatzeko.

216. Gaikako interesa duten taldeak sortuko ditugu, informazioa bideratu eta talde hauekiko interlokuzioa irekita mantenduz, ideien eta proposamenen elkar-trukea sustatzeko, besteak beste.



217. Udalei eskaintzen dituzten zerbitzu publikoak bultzatzeko finantzaketa nahikoa bermatzeko konpromisoa. Udal autonomia zein finantzaketa nahikoa bermatu ahal izateko, ezinbestekotzat jotzen dugu Udalkutxa eta Gizartekutxaren eraketa eta banaketa arautzen duen Foru Araua aldatzea, irizpideak udalerriekin batera adostuz.

### 3.3. LAIKOTASUNA

Laikotasuna ezinbestekoa da edozein jendarte guztiz demokratikoa eraikitzeko, eta administrazio publikoen lana da bide horretan aritzea. Era berean, Bizkaia laiko bat ezinbestekoa da giza eskubideei benetako bermea emateko. Oso bereziki sexu-eskubideei eta emakumeen eskubideei dagokienean; jendarte eta instituzio laiko batek eta ez bestek, bermatu baitezake askatasunaren, berdintasunaren eta aniztasunaren errespetua, Bizkaiko jendartearen osasun demokratikoaren agerkaria izateko.

Laikotasunak erakunde publikoak eta erlijio ororekin lotutako jardunak bereizten ditu, erlijioa pertsonek esparru pribatura, partikularra edo kolektibora mugatuz. Eta beraz, administrazio publikoen zeregina da pertsonek erlijioekiko duten jarrera askea errespetatu eta bermatzea, eta esparru pribatuan gauzatzen den jardunak irizpide demokratikoak gauzatzen dituela bermatzea.

218. Egoitza Santuarekin 1979an Españaiko gobernuak eginiko konkordatua bertan behera ezartzeko eskaria luzatu dagokien organoei.

219. Horrela ebazten duten udalek ahalmena izan dezaten OHZ (ondasun higiezinak, landatar zein hiritarren gaineko zerga) ezartzeko eliza katolikoaren, haren erakundeen, irakaskuntza eta erlijio-proselitismo zentroen izenean, hauek guztiak zentsatu eta erregistraturiko ondasunen errebisioa egin.

220. Lurraldeko ondare historikoaren mantenuarekin lotutako laguntza lerroak, eraikin horien erabilera publikoaren baitan kokatu.

221. Dirulaguntza zein esleipen deialdietan, laikotasun klausulak onartu eta aplikatu.

222. Ospakizun zibilei lotutako araudiak eta espazioak sortzeko, behar adina azpiegitura eta laguntza eskaini.

223. Erlijio ororekin lotutako iruditeria eta ospakizunak, instituzio publikoaren eta ordezkari publikoen jardunetik atera.

224. Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako bertaratu parte hartuko duen ospakizun oro, izaera zibilekoa izango da.

225. Lurraldeko jardunean laikotasuna eta herritar, kolektibo zein herrien oinarritzko giza eskubideak bermatuko dituen Laikotasunaren Behatokia sortu.

# ELKARREKIN ERAIKITZEN ARI GAREN BIZKAIA MOREA

## #BIZKAIAMOREA

### 4.1. POLITIKA FEMINISTA

Inguruko erakunde zein arlo politikoan indarrean den diskurtso ofizialak krisiari buruz hitz egiten duenean, krisi ekonomiko hutsa dela sinestarazi nahi digu. Baina gaiari ikuspuntu zabalagoarekin ekinez gero, baldintza duin eta unibertsaletan bizitza bermatzeko erronka badugu, krisi sistemiko bat dugula jabetzen gara (zaintzan, ekologian, osasunean, etika eta balioetan, demokrazian, etb.). Krisi sistemiko honen ondorioz jendea prekarizatzen eta txirotzen ari da, arlo askotan, eta bereziki emakumezkoek pairatzen dute prozesu hori. Izan ere, emakumezkoek jarraitzen dute bizitza aurrera ateratzen zainketa eta etxeko lan doakoa egiten, eta horrek langabezia gero eta handiagoaren edo soldatapeko txirotasunera kondenatzen duten lanen mendeago beraz. Ondorioz emakume askok krisi garaietarako ekonomiara jo behar izan dute: sexua edo etxeko lanak ogibide hartzea. Laburtuz, gero eta zailagoa da emakumeak burujabe izatea, eta horrek bortxakeria matxistarekiko babesgabeago uzten ditu.

Krisi sistemiko honen gako nagusia bizitza bera lehenesten ez duen gizarte eredu sortu izana da, batzuentzako irabazi ekonomiko hutsa bilatzen duena. Bizitza ez lehenestea gutxi balitz, ezkutatu egiten du emakumeei ematen zaiela bizitza bermatzeko ardura. Bizitzaren mantenuan dagoen lan ikusezin feminizatu horri ez zaio balore sozialik eman nahi. Egoera honen aurrean, foru politika feministak bizitza gizarte lehentasun hartu nahi duen elkarbizitza ereduaren aldeko tresnatzat ditugu.

Baina eredu aldaketa horrek bi galderi eman behar die erantzun: zer nolako bizitzak merezi du bizitza? Eta nola elkar hartu merezi duen bizitza mota horri eusteko? Bi galderon erantzunek hiru ardatz behar dituzte: Unibertsalitatearen printzipio etikoa. Eredu aldaketa horrek erroko demokrazia behar du, adostasun sozial berriak osatzeko gune eta prozesu parte hartzaileak sortu eta indartzea. Kontuan hartu beharko da sexu-genero irizpidez gain botere harremanetan eragin zuzena duten elementu gehiago ere badirela, besteak beste, erosmen ahalmena, genero edo kultur identitatea edo migrazio statusa. Hauen eta beste elementu batzuen batuketak emakumezko eta gizonezkoen arteko desberdintasun sozialak areagotzen eta anizten dituzte, baina baita genero berekoen artean ere, emakumezkoen artean bertan.

### PROPOSAMENAK

#### Politika publikoen eraldaketa

226. Berdintasuneko egiturak erakundearen erdigunean ezarriko ditugu, bitarteko ekonomiko eta pertsonalez hornituta, eta zeharlerrotasuna bermatzeko egiturak eta bitartekoak sortuko ditugu.

227. Udalei zuzendutako laguntza, sare-lana eta udalekin elkarlana eta kontrastea landuko dugu.

a) Udalei berdintasuneko egitura teknikoak sortzeko eta indartzeko laguntza.

b) Berdintasun politikak garatzeko udalerrri txikiei laguntza

c) Herrialdeko udalen berdintasun-sarea sortu eta indartu, herrialdeko berdintasun teknikarien sare-lana sustatzeko eta udal mailako lana gainditzen duten proiektuak kontrastatu eta adosteko.

228. Kontratazioetan eta dirulaguntzatan klausulak, hau da, berdintasun irizpideak: Kontratazio publikoetan berdintasun klausulak ezarriko ditugu, hala nola, emakumeen lan-baldintza duinak bermatzea, enpresan emakumeen parte-hartzea ziurtatzea, sexu-diskriminaziorik eza, bateragarritasun neurriak, etb.





229. Dirulaguntzetan genero ikuspegia txertatuko dugu. Ez dira diruz lagunduko sexuagatik diskriminatzen duten ekintzak, emakumeen parte-hartzea sustatzeko ekintza zehatzak aurreikusi beharko dituzte, etab.

230. Hizkuntza eta irudi ez sexista/inklusiboak: erakundeetan hizkuntza eta irudi ez sexistak eta inklusiboak erabiliko ditugu. Horretarako, irizpideak zehaztuko ditugu eta betetze mailaren segimendua egingo dugu.

- a) Erakunde barneko inprimaki eta dokumentuetan.
- b) Erakundearen kanpo komunikazioan: aldizkariak, prentsa-oharrak, etb.
- c) Kanpo harremanetan edo agerraldi publikoetan: erakundearen ordezkaritza mistoak, parekideak anitzak, etab.

#### **Emakumeen parte-hartze soziopolitikoak**

231. Parekidetasunean oinarritutako parte-hartze eredu osasuntsu, orekatu, iraunkor eta eraldatzailea sustatzea.

232. Herriko emakumeen boteretzea helburu duten proiektuak eta espazioak sortzea edo sustatzea, edota kasuan kasu kontsolidatzea.

- a) Emakume txokoak, jabetze eskolak edo antzeko ekimenak indartuz edo sortuz.
- b) Emakumeentzako espazio propioak sortzeko nahiz garatzeko konpromiso politikoa, baliabide ekonomiko zein pertsonalak bermatuz.
- c) Emakume gazte eta migratzaileen jabetzaren berriak sustatzen duten partaidetzako prozesuak abian jartzen eta indartzen lagunduz.

#### **Zaintza duinerako eskubidea bermatzerantz**

233. Etxe, enpresa eta erakunde publikoetan zainketa ardura partekatua eskatzea genero ikuspegitik, eta desorekak zuzenduko dituzten mekanismo egonkorak ezartzea.

- a) Zainketa zerbitzuak publikoak indartu.
- b) Gizon funtzionarioen ardura partekatua sustatzea: aitatasun baimenak eta abar.
- c) Zainketa kooperatiba modu autogestionatuak sustatzea baldintza duinak bermatuz.

234. Hausnarketa prozesuak eta ezagutzen trukea erraztuko ditugu mugimendu feministaren, emakumeen elkarrekin, bestelako herri mugimenduen, akademiaren eta erakunde publikoen artean, pertsonak eta bizitza erdigunean jarriko duen eredu ekonomiko alternatiboaren zehaztapenean, eraikuntza kolektiboan eta trantsizioan aurrerapausoak ematen joateko.

#### **Bizitzaren iraupenerako ekonomiarantz**

Politika feminista bizitzaren sostengarritasunaren ikuspegitik politika fiskalak duen eragina ikusirik, bide horretan proposatutako erreforma fiskala eta zerga salbuespenetan sakontzea: indibidualizazioa, genero joerak baztertzea, jendearen bizitzaren zainketa modu duinean eutsiko duten jarduerak bultzatzea.

235. Enpresa eta lurralde garapena bultzatzeko politika berraztertzea ikuspegi honetatik.

236. Gizarte ekonomia solidarioa eta autogestionatutako formak babestea ikuspegi feministatik.

237. Jendearen ongizatea neurtzea denboren banaketa adierazleekin eta ez bakarrik diru sarrerekin.

238. Baliabideetarako sarbidea bermatzea: prestazioen indibidualizazioa, lan banaketarako esperientzia pilotuak, lan baldintzen hobekuntza, langile publikoen soldata desberdintasunak murrizteko moduak, merkatuan kalitatez enplegua sortzea dirulaguntzen bidez, ekintzaitasun programak berraztertu ikuspegi honetatik, sexu langile, zainketa, etxeko lan eta abarren kooperatibak bultzatzea.

### **Indarkeria matxista**

239. Gizarte politikan berdintasun eta indarkeria matxistaren arretan formatutako langile kopurua handitzea.

240. Indarkeria matxistaren biktima diren emakume eta seme-alaba edo hauen mendeko pertsonen arretarako zerbitzu berriak sortu eta daudenak hobetzea.

241. Transfobia, homofobia eta lesbofobiaren prebentzio eta arretarako zerbitzuak garatzea.

242. Udal eta kolektibo feminista eta indarkeria matxistaren arteko koordinazio mekanismoak hobetzea.

## **4.2. JATORRI ETA KULTUR ANIZTASUNA**

Migrazioa eragiten duten arrazoiak anitzak dira: kulturalak, sozialak, politikoak eta, gehienetan, ekonomikoak. Arrazoi horiek eragindako beharrek barreiatu dituzte euskal herritar ugari munduan zehar eta, alderantziz, jatorri anitzetako pertsona ugari Euskal Herriratu.

Sistema kapitalistak, bere eredu ekonomikoa aurrera ateratzeko, herrialde anitz pobretu ditu gutxi batzuk aberasteko eta, ondorioz, pobretutako herrialdeetako gizon-emakumeen bizi-baldintzak minimoen azpitik jarri. Horrek migratze-beharra eragin du eta behar hori baliatu du sistema kapitalistak, interesatu zaionean, jatorri desberdinetako langile klaseak elkarren kontra jartzeko. Zertarako? Injustizia horren errua bere sorburua den kapitalismoaren gain beharrean, langile-klasearen gain jartzeko; oro har, ahulenen gain.

Horrela, aspaldi honetan, krisi ekonomikoa baliatuz, inolako funtsik gabeko mezu interesatuak zabaldu dira kultura eta jatorri jakin batzuetako herritarren kontra. Enplegu duin bat izateko zailtasunak eta prestazio sozialen beharra areagotzen ari diren honetan, euskal herritar ugarirengan sarrera eta eragina duten mezuak ugaritzen ari dira ("lana kentzen digute", "bertokoei dagozkigun diru-laguntzak eramaten dituzte"...). Oinarri errealik gabeko zurrumurruak baino ez diren mezu horien eraginez, jende askok areriotzat, bere egoera kaskarraren erruduntzat eta lehiakide desleial eta arriskutsutzat hartzen ditu jatorri edota kultura jakin batzuetako herritarrak. Mezu horiek beldurra eragiten dute eta beldur horrek jarrera arrazistak eta xenofoboak azaleratzeko baldintzak sortu ditu.

Jatorri eta kultura aniztasunaren kudeaketa, beraz, gai konplexua da eta arduraz hartu beharrekoa. Hori horrela izanik, eta Europatik zein estatuetatik inposatu dizkiguten migrazio lege eta araudi eskubide- urratzaileek bestelakorik badiote ere, EH Bildutik argi daukagu pertsona guztiok daukagula duintasunez bizitzeko eskubidea eta, edonon jaioak izanik ere, bizitza duin horren bila edonora joateko askatasun osoa. Hori dela eta, EH Bildurentzat, norberaren identitatea erabat errespetatuz, herri honetan bizitzea erabaki duen pertsona oro euskal herritarra da, edonon jaioa dela ere; eta euskal herritar guztioi bermatu behar zaizkigu eskubide, erantzukizun, betebeharrak eta aukera berberak, gure arraza, sexua, sinesmena, etnia, identitatea, sorlekua edo nazionalitatea edozein dela ere. Eta hori erakunde publikoen lana da.



Pertsona guztientzat eskubide guztiak eta aukera berdintasuna aldarrikatzen ditu EH Bilduk. Eta aldarri hori errealitate izan dadin behar besteko neurriak abian jartzeko konpromisoa hartua dugu. Horren bermerako, administrazio publikoak herritarrei erabat irekiak egon behar dira, bertatik kudeatuko diren baliabide eta zerbitzu publiko guztietara iristeko aukera erraztuz.

Elkarbizitza da gakoa. Horretarako, elkar ezagutzea, elkar ulertzea eta elkar aitortzea ezinbestekoak dira. Elkarren ezagutza eta ulertzea ahalbidetuko duten dinamikak eta jarduerak beharrezkoak ditugu, elkar aitortzaren eta, ondorioz, elkarbizitzaren oinarri baitira. Hori dela eta, alor honen dimentsio anitzak aintzakotzat hartuz, administrazio publikoetan aurrera eramaten diren politika orotan zehar-lerro gisa lantzea ezinbestekoa da eta beharrezko dugu mota anitzetako harrera, elkar ezagutza eta bizikidetzaren planak diseinatu eta martxan jartzea, instituzio-arteko elkarlanean oinarrituz.

EH Bildutik, jatorri, kultura eta hizkuntza aniztasuna aberastasun gisa ulertzen ditugu eta euskara eta euskal kultura euskal herritar ororen arteko elkarbizitza eta elkar-*ezagutzarako* komunikazio-bitarteko eta kohesio-tresna gisa.

- Hizkuntzari dagokionez, norbere hizkuntza garatzeko bideak eskaintzearekin batera, euskara elkarbizitzarako komunikazio-bitarteko gisa sustatuko dute administrazio publikoek, elkar-*ezagutzarako* eta jendarte kohesiorako tresna gisa. Horretarako, euskara euskal herritar ororen hizkuntza komuna izan dadin, beharrezko bitartekoak ziurtatu behar dituzte administrazio publikoek.

- Kulturari dagokionez, norbere identitate kulturala garatzeko bideak eskaintzearekin batera, euskal kulturaren elementu guztietara iristeko bitartekoak ziurtatu behar dizkiote erakunde publikoek euskal herritar orori. Bestalde, kultur espresio ororen aukera bermatu beharra dago, parte-*hartze* aktibo eta zuzenean oinarritutako kulturen arteko bizikidetzaren lanketatik abiatuz.

Zurrumurru eta aurreiritzi faltsuak bazterrean uztea lehentasunezkoa dugu; horiek jendartean eragiten dituzten beldurrak uxatzea ezinbestekoa da bazterkeriari, arrazakeriari eta xenofobiari aurre egiteko. Zentzugabekeria horri aurre egiteko, egiazko informazioa da tresnarik eraginkorrena. Horrekin batera, jatorri/ kultura desberdinak izatearen aldeak baino, pertsona gisa komunean ditugun elementuak (bizi-beharrak, egoera laboral-ekonomiko-afektiboak...) ikusarazi behar ditugu.

Mota guztietako bazterkeriarekin erabat bukatzea helburu, egoera larrienen dauden herritarrei, beren jatorria delakoa izanik ere, maila orotako ahalik eta babes handiena eskaintzea dugu xede, gure helburu behinena izanik behar duen herritar orok oinarritzko errenta jasotzea. Bide horretan, arreta berezia jarriko dugu egoera prekarioenak jasaten dituzten emakume eta gazteengan.

Alor honen kudeaketari zuzenean ez badagokio ere, erlijio aniztasunaz aipu bat egin nahiko genuke. Erlijioa aukera pertsonal eta askea da, administrazio publikoek errespetatu eta bermatu beharrekoa. Baina erlijioak -bat bera ere- ezin dira politika publikoen baldintzatzaile izan. Horrela, kredo aukera librea izaki, askatasun hori errespetatuz, administrazio laikoaren bidez bermatuko da norbere aukeraren garapena, aukera berdintasuna bermatzeko politiken gauzatzean erlijio guztiek trataera berdina izan dezaten.

## PROPOSAMENAK

### **Elkarbizitza: elkar ezagutu + elkar ulertu + elkar aitortu**

243. Mota anitzeko planak osatzeko bitartekoak eskaini herriei (harrera orokorra, harrera linguistikoa, bizikidetzak, elkar-ezagutza, etb.).

244. Herrialdean egon daitezkeen osaketa anitzetako elkarrekin (bertokoek osatuak, migranteek osatuak zein mistoak) harremana egin eta elkarlanerako oinarriak jarri.

245. Elkarrekin desberdinen arteko elkarlanerako guneak sortu/erraztu.

246. Norbanakoen edota herriko eragileen artean aniztasun-gune iraunkorrak sortu eta elkarrekin promozioa bultzatu, parte-hartze publikoa sustatu.

247. Euskal Herriaren eta Bizkaiaren historia, ezaugarriak eta bilakaera aditzera eman etorri berri diren bizilagunentzat, euren ere herriaren parte direla aitortuz.

248. Gure lurraldera datozen pertsona eta kolektiboak, beraien herrialdearen inguruko informazioa zabaltzeko guneak erraztu, euren dakarten jakintza, kultura, hizkuntza, errekonozitu.

249. Jatorri aniztasunaren baitan ematen diren gaizki ulertuei erantzuna emateko, Gatazken Kudeaketarako Zerbitzua martxan jarri.

250. Parte-hartzean eta elkar ulertze/aitortze oinarritutako kanpaina eta dinamiken diseinua egin, eskubideen defentsaren ikuspegitik eta eraikuntzaren perspektibatik (adibide gisa, EH 11 kolore).

251. Elkar ezagutzeko programak martxan jarri (hitzaldiak, jardunaldiak) jatorri desberdineko bizilagunen partaidetza sustatu.

252. Herritarrek eta eragileek harrera prozesuetan duten garrantziak ohartarazi eta prozesu horren parte egiteko baliabideak eskaini (arlokako informazioa izango duten ikastaroak, herritarrek emango dituztenak, etb.).

253. Herrietan elkar ezagutzeko, kultura desberdinak ezagutzeko, elkar ulertzeko eta mitoak desagertarazteko ekimen berriak eta ausartak sortu behar ditugu, "Bizilagunak" edo "ondoko familia" izeneko proiektuak legez.

### **Eskubide guztiak pertsona guztientzat**

254. Foru Aldundien politika eta zerbitzuak herrialdeko bizilagun guztiei zuzendu, jatorria kontutan izan gabe (gizarte zerbitzuak, kultura programak, berdintasun politikak, etb.).

255. Migrazio legeek edo araudi desberdinek urratzen dituzten eskubideak gauzatzeko herritarren babesa bermatu.

256. Sail desberdinen arteko elkarlanean, eragileekin batera, lurraldeko herritarren eskubideen behatoki bat eratu, eskubide urraketan berri emango duena (osasun edo hezkuntza eskubideak, herritartasun eskubideak, etb.).

257. Foru Aldundiaren zerbitzu eta baliabideei buruzko dokumentuak hizkuntza desberdinetan argitaratu eman.

258. Erroldak erraztuko dira benetan herrian bizi diren pertsonak.



259. Aldundiak edozein pertsona laguntza sozial jasotzeko jartzen dituen baldintzak erraztu eta ez gogortu.

**Kultura eta hizkuntza propioak: euskara eta euskal kultura kohesio tresna gisa**

260. Herrialdean dauden hizkuntza eta kulturak ezagutzera emateko bitartekoak atera.

261. Hizkuntza eskubideak landu eta zabaltzeko liburuxka bat atera, hizkuntza anitzetan.

262. Euskara sustatzeko eta euskal herritar guztion arteko benetako kohesio tresna bihurtzeko, haren ikaskuntza doan izan dadin baliabideak eskaini (progresiboki bada ere, doakotasunera heltzeko bidean).

263. Norbere jatorrizko hizkuntza garatzeko aukerak erraztu.

264. Hezkuntzan, herritar guztientzako euskarazko murgiltze ereduaren aldeko apustua egin, gainontzeko hizkuntza guztiak aitortuz eta, ahal den neurrian, modu proportzionatu eta orekatuan, hizkuntza horiei leku eginez.

265. Helduen euskalduntzeko bestelako eredu eta baliabideak sortu. Horretarako, euskara ikasi nahi dutenek dituzten behar eta zailtasunen diagnosis egin; praktika onak jaso; eredu eta baliabideak sortu.

266. Herrialde mailako ekimen kulturalak (jaiak, gastronomia, kirolak, etb.) aniztasunaren ikuspegia txertatuz diseinatu; alegia, herrialdean bizi diren jatorri eta kultura guztietako kideen parte-hartzea bultzatuz eta kultura guztien presentzia ziurtatuz ekimenetan, beti ere, modu proportzionatuan eta oreka zainduz.

**Aurriritzien kontra, egiazko informazioaren zabalpena**

267. Zurrumurruen aurkako kanpainak martxan jarri.

268. Migrazioa eragiten duten arrazoiak ezagutarazteko bitartekoak atera, hizkuntza anitzetan.

269. Xenofobia eta arrazakeriaren aurka lan egiten duten elkarrekin harremanak indartu eta elkarlana sustatu, lanketa integrala egiteko bidean.

270. Alor honetan egiten diren diagnosiak jendarteratu (ahalik eta modurik pedagogikoenean).

271. Estereotipoen kontrako kanpainak abian jarri.

272. Herrialdeko aniztasuna ezagutarazi, eta, bitarteko anitzak erabiliz (ikus-entzuneakoak, elkarrekiko ekimen anitzak, etb.) herritarrok komunean duguna indartu (behar berdinak, sentipen antzekoak...).

**Aniztasun politikak zehar-lerro gisa**

273. Foru Aldundian Aniztasun Zuzendaritza indartu, beharrezko giza baliabideak eta aurrekontua emanaz.

274. Foru Aldundiaren departamentu bakoitzaren baitan aniztasun unitateak sortu, aniztasunaren ikuspegia politika guztietan zehar-lerro gisa lantzeko.

275. Aniztasunaren gaineko prestakuntza prozesuak bultzatu foru langileen artean, aniztasuneko balore eta printzipioetan heziz, herritar guztiei arreta egokia eskaini diezaien.

276. Urtero, herrialde mailako aniztasun diagnostikoa egin eta horretan oinarritutako plana martxan jarri. Horrekin batera herrialde mailako aniztasuneko teknikarien sarea indartu eta babestu.

277. Herrialde mailako aniztasuneko teknikarien sarea indartu eta babestu.

278. Aniztasunaren alorrean herrietan martxan jarritako praktika onak ezagutarazi eta zabaldu.

279. Foru Aldundiean partaidetza arloan martxan jartzen diren ekimenetan jatorri desberdineko pertsonen parte-hartzea ahalbidetzen dela ziurtatzeko neurriak hartu.

280. Aniztasuna, gizateriaren ondare gisa, maila guztietan aitortua izan dadin, mozio komuna adostu eta bideratu, hura adierazi eta egikaritzeko markoa ezarriko duena.

281. Araudiak sortzerakoan, aniztasunaren ikuspegia kontuan hartu.

#### **Herritartasuna: edonon jaiota ere, euskal herritar**

282. Estatu mailako legeria salatzeke ekimenak bultzatu, bere arrazakeriazko logika azpimarratuz eta herritartasun inklusiboaren printzipioa goraiatuz (Euskal Herrian bizi den oro, euskal herritarra da, eskubide eta betebeharrak berdinekin).

283. Xenofobia eta arrazakeria kasuak publikoki salatu eta gaitzetsi.

284. Herritarrek bete behar dituzten formularioetan "nazionalitatea"-z ez galdetu, behar-beharrezkoa denetan izan ezik (datu estatistikoetara bideratuta daudenak, IRPF, etb.).

285. Herriko eta herrialdeetako parte-hartzeko araudiak ez oinarritu zentsoetan baizik eta herritartasunean, erroldaren irizpidea hartuz.

### **4.3. ANIZTASUN FUNTZIONALA**

Instituzioetarako irisgarritasun unibertsala bermatu behar zaie herritar guztiei, horretarako beharrezkoak diren zerbitzu publikoak eta elkarrekin sortuz.

Aniztasun funtzionala dugun pertsonok eskubide eta betebeharren subjektuak izatea lehenetsi behar da, eta horretarako dauden oztopoak murriztu, bazterketa ekonomikoki saritu/arindu beharrean.

Erakunde publikoen esku-hartzea ezinbestekoa eta urgentea da, helburuak bermatzeko eta helburu horiek lortzera bideratzen diren baliabideak ondo eta zorrotasunez erabil daitezen.

Ezin dugu onartu behin-behineko salbuespena iraunkor bilakatzea. Ildo horretan, guztiok elkarlanean jardun behar dugu gizartea eraldatzeko.

Instituzioek barneratu egin behar dute aniztasun funtzionala duten pertsonen eskubide eta aukera berdintasuna (eskubideon sustapen eta berme gisa ulertuta), diskriminaziorik eza eta bazterketarik eza oinarritzeko giza eskubideak direla, eta hala ikusarazi behar diete herritarrei.

Hori, legeetan ez ezik, pentsamoldeetan ere islatu behar da, eta eragina izan behar du eguneroko bizitzan eta gizarte harremanetan. Horregatik, kontzientziarazko, errespetua sustatzeko eta aniztasun funtzionala giza aniztasunaren beste elementu bat dela onartzeko mekanismoak inplementatu behar dira. Ekintza horien helburua gizartearen klise mentalak desagerraraztea izango da, aniztasun funtzionala duten pertsonen inguruko aurreiritziak eta estereotipoak ezabatzen joateko.



Lege publiko guztiak berrikusi eta aldatu egin behar dira, Ezgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren araudira egokitzeko, aniztasun funtzionala duten pertsonen diskriminazio oro prebenituz eta desagerraraziz.

Udal eta foru gobernuen eskumenen arloan, aniztasun funtzionala duten pertsonen erabateko gizarteratzea bermatzeko beharrezkoak diren araudi eta xedapen guztiak bultzatu behar dira, hau da, aukera berdintasuna bermatu behar zaie aniztasun funtzionala duten pertsoneri.

Antolakuntza beharren, giza baliabideen eta baliabide materialen gutxieneko estaldura bat bermatu behar zaie aniztasun funtzionalaren ordezkarari diren kolektibo guztiei.

Aniztasun funtzionalaren gaineko inpaktuaren balorazioa txertatu behar da: Udalen eta Foru Aldundien xedapen arauemailetan. Herrialde nahiz herri mailan garatzen diren politika guztien diseinuan, inplementazioan eta ebaluazioan, era transbertsalean (enplegua, hezkuntza, osasuna, aisia, kultura, kirola, irisgarritasuna...).

Araudiak egiteko eta politikak diseinatzeko eta garatzeko prozesu guztietan aniztasun funtzionalaren gaineko inpaktuari buruzko txostena egin behar da.

Udaletako nahiz autonomia erkidegoetako planak eta araudiak egiteko orduan nahitaez bete beharko den kode bat egin behar da (gutxieneko arauak). Kode horrek ezgaitasunaren benetako transbertsalitatea ekarri behar du.

Administrazio publikoen kontratazio araudiei dagokienez, beste gauza batzuen artean eta nahitaezko betekizun gisa, diseinu unibertsala txertatu behar da eskaintzak aurkezteko espezifikazio teknikoetan.

Aniztasun funtzionala duten pertsonen erakundeak eta aniztasun funtzionalarekin lotura zuzena duten parte-hartze organo guztiak ahaldundu egin behar dira (hezkuntza, enplegua, gizarte ongizatea, osasuna, garraioa, kontsumoa, teknologia berriak, etb.).

## PROPOSAMENAK

### **ENPLEGUA. Aniztasun funtzionala (AF) duten pertsonen prestakuntza eta enplegua sustatzea**

286. Alfabetatze digitala bultzatuko dugu.

287. Prestakuntzarako eta lanbiderako orientazio-zerbitzuetan informazio irisgarria bermatu, prestakuntzarako eta lan-munduan txertatzeko baliabideei buruzkoa, zerbitzu horietarako irisgarritasuna bermatuz.

288. AF duten pertsoneri zuzendutako ekintza positiboko neurriak, enplegua lortzeko aukera berdintasuna izan dezaten.

289. Diskriminaziorik eza bermatu udalekin edo aldundiekin lotutako enplegu publiko edo pribatua lortzeko fase guztietan, prestakuntza, aukeraketa eta kontratazioa barne, bereziki AF handia dutenei dagokienez.

290. Hau guztia betetzen dela hobeto zaindu, dagokien enpresetan ikuskapenak eginez, erreserba-kuotak betetzen direla bermatuz eta kuota horiek lan kontratu prekarioen bidez betetzea eragotziz.

291. Gerora agertutako AF duten administrazio-langileen birlaneratzea sustatu, lanpostuak egokitzeko beharrezkoak diren laguntza ekonomikoak, prestakuntzakoak, teknikoak, domotikoak, etab. bermatuz eta lantokira sartu eta iritsi ahal izateko beharrezkoak zaizkien baliabideak ziurtatuz.



### **IRISGARRITASUNA. Telekomunikazioak eta informazioaren gizartea**

Honako eremu hauetan irisgarritasun unibertsalaren printzipioa bete:

292. Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratzen dituzten ikus-entzunezko material guztiak (%100) azpitoluekin, zeinu-mintzairan eta entzunezko deskripzioarekin emititzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta teknikoak eman, irisgarriak izan daitezten. Era berean, administrazio elektronikoaren arloko zerbitzuak irisgarritasun irizpideekin diseinatu.

293. Ezgaitasuna duten pertsonentzat irisgarriak ez diren elementu elektronikoak edo informatikoak ez erosi edo horrelako programak edo zerbitzu elektronikoak funtzionamenduan ez jarri. Bizkaiko Foru Aldundiak egiten dituen dibulgazio ekintza guztiak irisgarriak izan behar dira, hala edukiari nola euskarriari dagokionez (adibidez, dibulgazio kanpainak, publizitate instituzionala...).

### **IRISGARRITASUNA. Espazio publiko urbanizatuak eta eraikinak**

294. Bizkaiko Foru Aldundiak sustatu edo finantzatzen dituen obra eta azpiegitura edo zerbitzu proiektu guztietan irisgarritasunaren azterketa eta ikuskapena egin beharko da alde zuzenetik.

295. Obrak eta eraikuntza edo azpiegitura proiektuak egiteko Bizkaiko Foru Aldundiak entitate publiko edo pribatuei ematen dien finantziarioa jaso ahal izateko ezinbesteko baldintza izango da alde zuzenetik frogatzea irisgarritasunari eta oztupoak desagerrarazteari buruzko legedia betetzen dela.

### **IRISGARRITASUNA. Garraiobideak**

296. Garraio publikoa:

a) Oraindik irisgarriak ez diren metro, tranbia eta bestelako linea guztiak irisgarri bihurtu.

b) Garraio-elementuen erabateko irisgarritasuna bermatu hiriarteko garraio zerbitzuetarako administrazio emakida berrietan (Bizkaibus),

297. Taxiei dagokienez, udal ordenantzen edo administrazio-araudien bidez bermatu behar da parke osoaren, edo frakzio baten, %10 "guztionezko taxiak" direla. Neurri hori lizentzia berriak ematean edo ibilgailua aldatzeagatik lizentzia berritzen denean sartuko da indarrean. Kasu guztietan, zerbitzua eguneko 24 orduetan erabili ahal izango dela bermatu behar da.

### **IRISGARRITASUNA. Herritarren eskura dauden ondasunak eta zerbitzuak**

298. Bizkaiko Foru Aldundiaren politika eta sail guztietan (aisia, kultura, kirola...) bermatuko da aniztasun funtzionala duten pertsonen irisgarritasuna, aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza, zeharlerro moduan ulertuta.

### **Bizitza independentea eta goraka ari diren ezgaitasunak**

299. Aniztasun funtzionala duten pertsonen bizitza independentea sustatzeko erreferentziako zentroak sortu eta bultzatu eta bizitza independenterako programak ezarri.

### **Fiskalitatea**

300. Fiskalitatearen arloko legeria berrikusi eta ahal den kasu guztietan hobetu, ezgaitasuna duten pertsonen (bereziki %65etik gorako ezgaitasun maila dutenak), kide ezgaituak dituzten familiei eta haien erakundeei ematen zaien tratamendu komunari dagokionez.



### **Hezkuntza**

301. Laguntza goiztiarrerako baliabideak sustatu eta laguntza hori ikastetxe arrunt eta normalizatuetan ere eman (udal haurreskolak).

302. Hezkuntza-inklusioa instituzio publikoen eskumeneko hezkuntza ez-formal edo osagarria, tailerretara, ikastaroetara, helduen prestakuntzara... hedatzeko beharreak diren neurriak hartu.

303. Hezkuntza-proiektu guztietan bermatu ezgaitasuna duten pertsonen antolatzen diren jardueretan parte hartzeko edo haien jarraipena egiteko aukera izan dezaten beharrezkoak diren baliabide material eta giza baliabide guztiak.

### **Osasuna eta kontsumoa**

304. Osasun-zentroetan mota guztietako oztopoak desagerrarazi eta informazio orokorra, tramiteak, gestioak, ospitaleetako sorospena eta horrelako guztia ezgaitasuna duten pertsonentzat irisgarria izango dela bermatu, administrazioko eta osasun zerbitzuetako langileen prestakuntzaren bidez.

305. Gaur egun diagnostikoaren, tratamenduaren eta deribazioaren arloan dauden desberdintasunak desagerrarazi, baita laguntza teknikoak finantzatzeko, konpontzeko eta aldatzeko dauden desberdintasunak ere.

### **Kultura, aisia eta kirola**

306. Aisian eta astialdian zentratutako programa publikoak sortu.

307. Udalerrri guztietako haur-parkeetako elementuak aniztasun funtzionala duten haurrentzat egokituta egon behar dira.

308. Kirol egokitua sustatu, maila guztietan: eskolakoa, eskolaz kanpokoa, oinarrikoa, amateurra eta profesionala.

309. Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen dituzten museoetan, kultur etxeetan, arte zentroetan eta kirol instalazioetan aniztasun funtzionala duten pertsonentzako irisgarritasuna bermatu eta doakotasuna sustatu.

## **4.4. ANIZTASUN SEXUALA**

Ez dago sexualitatea bizitzeko modu bakar eta "normalik", hau da, gizon eta emakume gisa garatzeko eta bizitzeko modu bakar bat. Emakumezkoak emakume diren heinean baloratu behar dira (emakume izateko modu ugari eta anitzak daudela onartuz) eta gizonezkoak ere gizonezko diren heinean baloratuko dira (gizonezko izateko modu ugari eta anitzak daudela onartuz).

Araututako harremanen ordena eraldatu behar dugu, eredu patriarkal eta puritanoak inposatzen dituen gizon-emakume, maitasun, erotika, harreman eskemak gaindituz.

Harreman eta erotiko Aniztasuna duin bilakatu eta babestu behar dugu, heteronormatibitatea eta maitasun-erromantiko harremanen mitoak gainditzeko lan eginaz. Berezitasun erotikoak ez dira patologikoak ez eta anormalak ere. Aniztasun erotikoaren adierazpena dira.

Elkarbizitza eta elkartasuna bultzatuko duten ekintza eta politikak garatzea ezinbestekoa da, gizon-emakumeek askatasunean aukeratutako bizitza moldea diskriminatu, zanpatu eta epaituko duten jarrerak baztertuaz.

Eskuartean dugun lanabesik garrantzitsuena heziketa da, gizon emakumezkoak izaki sexudun eta anitzak garela ulertu eta errespetatu arazteko. Formazio inklusibo, unibertsal eta plurala ematea ezinbestekoa da.

## PROPOSAMENAK

310. Foru Arauetan eta ordenantzetan jasoko dugu zentro eta zerbitzu publikoetan desioaren orientazioa, sexualitatearen espresioa eta harremanetarako askatasuna errespetatuko denaren bermea jasoa egon behar dela. Horretarako, zentro edota zerbitzu publikoetan lanean ari den pertsonalari aniztasun sexuala errespetatzeko eta artatzeko formazioa eskainiko diegu.

311. Zerbitzu pribatuen jarduera baimenetarako edo bestelako baimenetarako baldintza eta klausula gisa jasoko dugu desioaren orientazioa, sexualitatearen espresioa eta harremanetarako askatasuna errespetatuko dela.

312. Sexualitate aniztasuna eta harremanetarako aniztasuna ikustarazteko eta horien errespetua sustatzeko, zentro publikoetan ekimen ezberdinak garatuko ditugu: hitzaldiak, erakusketak, ikus-entzunezko proiektioak, dibulgazio eta formaziorako jarduerak...

313. LGTBI haur eta gazteen autoerrekonozimentua eta autoestimua bultzatzea bideratutako programak gauzatuko ditugu.

314. LGTBI haur eta gazteen eskubideen eta askatasunen alde zein haien enpoderamendua sustatzen duten elkarteak mantentzeari eta sortzeari bultzada emango diegu (gazteek beraiek sortutako elkartei arreta berezia eskainiz).

315. LGTB haur eta gazteen enpoderamentua eta parte-hartze publikoa eta politikoa bultzatuko ditugu eta aztertu nahi duten neurriak indarrean jarriko ditugu (adibidez, kolektiboak eta elkarteak herri parte-hartze organoetan izatea).

316. Sexualitate aniztasuna eta harremanetarako aniztasuna errespetutik, inklusiotik, eskubide errespetutik eta ezberdintasunaren errespetutik lantzen duten kultur jarduerak (antzerkia, zinema, erakusketak...) bultzatu eta kontratatu eta erakutsiko ditugu. Horren kontra aritzen direnak, berriz, ez ditugu kontratatuko instituzio publikoetatik.

## 4.5. ADINDUAK

2014ko uztailan, Seguritate Sozialak emandako datuen arabera:

Hego Euskal Herrian 651640 pentsiodun zeuden, duela urte bat baino %1,4 gehiago, horietatik %50,3 emakumeak ziren.

Pentsiodun hauek kobratzen zuten batz besteko pentsioa 1057€ zen. Kontutan hartu behar da 2015rako pentsioen igoera %0,25 izango dela.

Baina datu horien atzean egoera larriak ezkututzen dira:

- 255240 pentsiodunek (%39,22) 700€tik beherako pentsioa dute.
- 116400 pentsiodunek (%17,88) 700€ eta 1000€ arteko pentsioa dute.
- 130000 pentsiodunek (%20) 1000€ eta 1500€ arteko pentsioa dute.
- 150000 pentsiodunek (%23) 1500€ baino gehiago kobratzen dute.



2014ko datu ofizial hauen arabera, Hego Euskal Herriko %57 pentsiodunen diru sarrerak ez dira 1000€ra iristen. Horrek esan nahi du 371640 pentsiodun, eskasian edo pobrezia maila batean bizi dela.

Beste datu esanguratsua: Gutxieneko Pentsioa (600€ inguru-) eta hortik behera kobratzen duten emakumeak %19,27 dira, gizonezkoak %7,12 direlarik. Edozein Plangintza egiterakoan abiapuntu gisa kontutan hartzekoak.

Krisiarekin batera, pertsona nagusien egoera ere larriagotzen joan da:

- Menpekotasuna dutenen egoera okerrera egin du, Menpekotasun Legearen baldintzak gogortu eta zerbitzuak murriztu direlako.

- Etxez etzeko zerbitzuak ere murriztu dira aurrekontuen jaitsierarekin.

- Erresidentzien pribatizazioa eta beraien prezioak kontutan hartuta, zerbitzu hau lortezina bihurtzen ari da, Bizkaian bereziki.

- "Kopagoa" deritzonak, zuzen zuzenean kaltetzen ditu milaka eta milaka pentsiodun. Lehen dohain ziren 420 sendagai baino gehiago orain oso osorik ordaindu behar dira eta kaltetu gehienak gaixo kronikoak dira, ondorio larriak sortzen direlarik, beharrezko sendagaiak hartzeari uzten hasiak baitira pertsona nagusi asko.

Bizkaiko lurraldearen egitura kontutan hartuta, pentsiodunen artean oso egoera ezberdinak aurkitu genitzake: Bilbo metropolian, kosta inguruko herrietan, barneko herri txiki eta ertainetan edo landa eremuetan. Egoera bakoitzean zenbait parametro modu berezian aztertu beharko genituzke:

- Etxebizitza egokitua.

- Igogailuak bai ala ez.

- Kalera irtetzeko eta mugitzeko aukerak.

- Bizitza soziala egiteko azpiegiturak.

- Garraiorako baliabideak.

Laburbilduz gakoa zera da: Egoera ezberdin horietan pertsona nagusiek noraino egin dezaketen bizitza autonomoa eta zenbateraino hedatu beraien ahalmenak. Hemen aipamen berezia behar dute bakarrik bizi diren pertsona nagusiek.

Kontutan har dezagun pertsona guzti hauek osatzen duten kopurua Bizkaiko gizartearen %30 inguru dela.

## PROPOSAMENAK

317. Mendekotasuneko laguntza ekonomikoen nahikotasuna defenditu, Estatuak ezarritako diru murrizketen aurrean.

318. Aurrekontuak egiterakoan, adinduen iritziak kontutan hartu, jakinik Bizkaiko biztanleriaren %29 inguru, pertsona nagusiek osatzen dutela eta ahulenak direla.

319. Herrialde mailako Pertsona Helduen Behatokia eratu. Bertan, herrialdeko metropolia, kostaldea, barneko herriak eta landa eremua ordezkatuak direlarik. Aldi berean, soziologoak, sikologoak, arkitektoak, zerbitzu sozialak, etb. ere zeresana izango lukete behatokian.

320. Eskualdeetako Gizarte Kontseiluak bultzatu Garapen Agentzien laguntzarekin, adineko pertsonen eta euren elkarleen partaidetzarekin batera.

321. Mendekotasunari dagokion Arreta Hobetzeko Plangintza landu. Horretarako pertsona bakoitzaren azterketa eguneratu, arrazoizko epeak finkatuz, dagokion erantzuna jaso dezan.

322. Zerbitzu sozialen eta osasun zerbitzuen arteko koordinazioa bermatu.

323. Mendekotasuneko prestazio ekonomikoak baino jasotzen ez duten hartzaileen jarraipena eta laguntza.

324. Tratu txarren kontrako prebentzio plangintza ezarri eta tratu egokiaren aldeko kanpainak egin.

325. Zahartze aktiboari bultzada emateko zerbitzuak garatu.

326. Baliabideen gida egokiak sortu herritarren eskura jartzeko toki eta une egokietan.

327. Zaintzaileei zuzendutako arnasaldi zerbitzuak sustatu (aldi baterako egonaldiak, eguneko zentroak, etb.).

328. Belaunaldien arteko programak bultzatu (eskolekin, gazteekin, etb.). Halaber, adinekoen ekarpen soziala balioan jarri: biloben zaintza, seme-alabei laguntza, boluntariora, nazioarteko lankidetzak, etb.).

## 4.6. LANKIDETZA

Honako hauek dira EH Bilduk proposatzen duen lankidetzaren politikaren printzipio gidariak:

**Elkartasuna:** ez dira garapenerako lankidetzaren aldeko politikaren barruan sartuko enpresa mozkinak edo merkataritza-abantailak, nazioarteko harremanen sustapena edo asistentzialismoarekin eta karitatearekin zerikusia duten helburuak dituzten ekimenak. Era berean, printzipio hori jarraiki, irabazi asmorik gabeko erakundeak politika horren eragile gisa onartu behar dira, hau da, iparralde globaleko eta hegoalde globaleko erakunde publikoak eta gizarte-erakunde, antolakunde eta mugimenduak.

**Jabetzea eta laguntza:** biztanle subjektuengandik sortu behar dira, eta ekimen horietan parte hartzen duten eragileek bereak balira bezala hartu behar dituzte. Harremanak horizontalak izan behar dira, eta lankidetzaren ez da pertsonen, herrien eta komunitateen garapen-prozesuen ordezkaria izan behar. Ildo horretan, pertsonen borondatea eta erabakitze gaitasuna errespetatu behar dira, haien baitira lankidetzaren aldeko ekimenen eta politiken erdigunea.

**Sakontasuna:** Bazterkeriaren kontzeptuaren nahiz garapeneraren kontzeptuaren dimentsioaniztasunari jarraituz, lankidetzaren aldeko politikaren eginkizun bakarra ez da oinarritzeko premiak asetzera; beraz, politika horren barruko ekimenak funtsezko alderdietara zuzenduta egongo dira: gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, giza eskubideak, politikan parte hartzea eta politikan eragina izatea, ekologiaren iraunkortasuna, etb.

**Kalitatea eta gardentasuna:** garapenerako lankidetzaren aldeko politikaren kalitatea neurtzeko kontuan hartu behar dira inpaktua, aldaketa sendoak eta egiturazko eraldaketak, eta horretarako, lortzeko ezinbestekoa da sustatutako lankidetzaren politika ebaluatzearen eta hari kontuak eskatzearen aldeko ekintzak abiaraztea, eta ekintza horiek eragile nagusiei zein herritarrei jakinaraztea, haien berri izan dezaten eta haien inguruan eztabaidatzeko eta haien zilegitasuna erabakitze aukera izan dezaten.

**Koordinazioa,** inpaktua hobetzeko, eta eskuragarria dauden baliabideak mugatuak direla kontuan izanda, ezinbestekoa da erakundeen arteko koordinatzeko ahalegina egitea.



## PROPOSAMENAK

329. Garapenerako laguntzarako funts publikoen % 0,7ra iristeko helburua mantentzen da, herritartasun globalaren eta herrien arteko elkartasunaren printzipioei jarraiki.

330. Gizarte emantzipaziorako hezkuntzaren garapenean sakontzen jarraitzea, emakume zein gizonen arteko ekitatea eta herrien arteko elkartasuna bultzatuko duten baloreak indarrean jarriz, alor honi eskaintzen zaion kopurua nazioarteko lankidetzari eskainitakoetako kantitateetara gerturatuz, eta horrela "ipar-hego" logika gainditzeko saiatuz.

331. Lankidetzaren politika publikotzat hartu, hau da, administrazioak berak hartzen du politika hori planifikatzeko, kudeatzeko eta gauzatzeko erantzukizuna, bai eta politika horri jarraipena eta ebaluazioa egitekoa. Horretarako, hartzen da konpromisoa giza baliabide eta baliabide tekniko eta ekonomiko egokiak izateko.

332. Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak lankidetzako eragile nagusiak izango dira, eta ez dute diru laguntzarik jasoko irabazi asmoa duten enpresek edo, modu estalian bada ere, enpresa horiek bultzatzen dituzten ekimenek.

333. Lehenetsia emango zaio emantzipaziorako gizarte mugimenduak lankidetzaren dinamizazioa txertatzeari, parekidetasuna oinarri izanda, eraldaketarako elementu estrategikoak baitira, eta lankidetzaren agenda osoarekiko gogoeta kritikoa sortuko da.

334. Estatu gabeko herrietako lankidetzaren areagotzea da, emakume zein gizonen arteko herritartasunaren parekidetasuna sustatuko duten neurrian, eta euskal gizartearen babesa dutenekin.

335. Bere lankidetzaren politiketan, EH Bilduk giza garapen iraunkorraren paradigma erreferentzia bezala hartuko du kontzeptu dimentsioaniztuna duena, baina hazkunde ekonomikoari parekatzen ez zaiona.

336. Euskal Fondoan parte hartuko dugu aktiboki eta proiektu zehatzak babesteaz gain, erabaki guneetan EH Bilduren ikuspegia zabalduko dugu, erantzun estrategikoetan presentzia gehiago ahal izateko.

337. Lankidetzaren politikaren gardentasuna bermatuko dituen neurriak hartuko dira. Deialdien eta ebazpenen publikotasuna eta zabalkundea ziurtatuz. Urteko jardueren memoriak argitaratuz.

## 4.7. GIZA ESKUBIDEAK ETA MEMORIA HISTORIKOA

EH Bilduren gobernu jarduna, pertsona guztien eskubideen errespetuan, bizikidetzaren demokratikotasun eta memoria historikoa berreskuratzeko lanean oinarritu da. Zehazki, esparru honetan egindako lanak lau zutabe izan ditu:

- Euskal Herrian zabaldu den bake prozesuarekin konpromisoa
- Gatazkaren jatorrian eta ondorioetan diren arazoengatik inguruko elkarriketa
- Desberdinen arteko kontsentsua/elkarlana
- eta euskal jendartearen gehiengoak erabakitzen duenari begirunea.

Herritarrengandik gertuen diren eta herritarren nahiak eta lehenetsiak argien islatzen dituzten instituzioek badute zeregina testuinguru honetan. Ildo horretatik, herriek konponbide demokratikoa sustatzeko baliabideak eta aukerak zabaltzeko tresna berri bat eskainiko du Foru Aldundiak "Giza eskubideak, Oroimenaren berreskurapena eta Bizikidetzaren zabaltzeko plana" deituko dena.

Plan horren baitan, tokian tokiko inplikazioa lantzea oso garrantzitsua izanik, udalek ekimenak bultzatzea funtsezkoa da. Hau da, marko teoriko partekatuetan, herritarren beharretatik eta eskarrietatik hurbilen diren instituzioetatik konponbide-prozesua eraikitzeko herritarren ekarpenak jasoko dituen lan-programak prestatuko ditugu.

Gure gobernu programak elkarlanerako diseinua izanda ere (udaletxeekin batik bat), berezko ekinbidea markatu nahi du. Orientabide eta bitarteko propioak izanda, bere ezaugarrien berezkotasunak beste instituzioekin batera lan egiteko aukera eskainiko du, jardun-lerroen arteko bateragarritasunari lehentasuna emanez.

## **PROPOSAMENAK**

### **Bakea**

338. Zauriak itxi: errekonozimendua eskainiko diegu legealdi berrian ere sufrimendua pairatu duten edo jasotako errepresioa/biolentzia ukatuta edo ezkatututa izan dituzten pertsoneri eta jendartearen sektore guztiei. Genero perspektiba indartuko dugu biolentzien ondorioak aztertzerakoan.

339. Justizia Trantsizionala sustatzen jarraituko dugu gaiaren inguruko jardunaldiak eginez, eta bertan nazioarteko zein bertako adituek hartuko dute parte. Era berean, egia osoa ezagutze aldera, Egia Mekanismoen lanketa (Egia batzordeak eta halakoak) bultzatuko ditugu.

340. Biktima guztien sufrimendua: Biktimekin lan egingo dugu: beharrak, gabeziak eta proposamenak entzuteko. Horrekin batera, jardunaldiak egingo ditugu berriz ere udaletako ordezkari politikoekin biktima guztien sufrimendua aitortzea helburu duten ekintzak bultzatzearen.

341. Datu-basea: Bizkaitar guztiek egia ezagutzeko duten eskubidea laguntzeko diseinatutako datu-basea konpartituko dugu gurekin elkarlanean ari diren guztiekin, denontzako tresna izan behar baitu. Bestalde, datu-base hori osatzen hasi behar dugu, eta tokian tokiko datuek ere izan behar dute lekua datu-base horretan.

### **Bizikidetzaren demokratikoa**

342. Bizikidetzaren plana Bizkaiko udaletara eramatea: Martxan dauden esperientzien balorazioa egingo dugu eta, balorazio horren ondorioz, aldaketak edo hobekuntzak proposatuko ditugu.

343. Elkarlana eta formakuntza: Giza eskubideen inguruko lana burutzen duten elkarte eta antolakundeekin elkarlana eta etengabeko komunikazioa sustatuko dugu legealdian zehar, proiektu zehatzak bideratzeko dirulaguntzak esleitzen. Aipatu norabidean, formakuntza eta lan-tresnak eskainiko dizkiegu Udalei.

### **Giza eskubideetan oinarri duen kultura sustatzeko**

344. Ezagutza: argitalpenak, erakusketak, mintegiak. "Cartooning for peace" erakusketa eskainiko diegu udalei eta lagunduko diegu gaia eskoletan lantzen.

345. Hezkuntza: udal teknikariak, hautetsiak trebatuko ditugu giza eskubideen aldeko jardunean.

346. Komunikabideak eta giza eskubideak. Horri buruzko ziklo bat martxan jarriko dugu. Urtero sari bat emango diegu komunikabideetan giza eskubideen inguruko langairen bati, ezinbestekoa baita komunikabideen parte-hartzea giza eskubideen sustapenean.





## Oroimen historikoa

Memoria historikoaz ari garenean, beharrezkoa da, lehenik eta behin, eta eremu publikotik, gure herriaren azkenaldiko historian aurrez aurre egon diren indarkeria anitzei buruzko errelato osoa eraikitzea; bigarrenik, justiziaren araberako erantzukizun eta ordainak definitzea; eta azkenik, ikasgai modura iraganera begirada luzatzea, giza eskubideen, eskubide zibilen zein politikoen urraketarik berriro gerta ez dadin, Trantsizio delakoan gertatutako akats handietatik ikasiz. Azken buruan, instituzioen ardura da, edozein eskubide urraketa azaleratzea, eta bereziki krudelkeriaz pertsona askorengan eragiten dutenak. Era berean, beharrezkoa izango da euskal gizarteak ulertzea, gatazkaren parte bakoitzak gertatutakoaren inguruan bere errelato propioa izateko eskubidea izan behar duela. Baina soilik askotariko errelatoak azaleratuz izango da posible gai honekiko gizarte plural eta orekatu bat sortzea. Askotariko errelatoei eskatu ahal zaiena, biktimizekiko errespetua eta eskubide urraketen onarpena da.

Kontuan izan behar dugu, soilik eragile sozio-politikoaren zein memoriaren aldeko mugimenduen eskutik bermatu ahal izango dela etorkizuneko Memoriaren Institutu balizko baten independentzia, gardentasuna eta helburuen argitasuna.

Soilik egia, justizia eta ordainaren eskubideak aplikatuz, 36tik gaur arte izandako biktima guztiekiko egoerak errepikatuko ez direla bermatuz, eta aldi hau modu eraginkor eta justu batean itxiko duen trantsiziozko justizia baten printzipioak aplikatuz, elkarbizitzarako bermea sortzeko aukera egongo da, bai euskal gizartearen baitan, zein Euskal Herria eta Estatu Espainolaren artean. Salbuespen neurriak mantentzekotan, "etsaiaren justizia" delakoak eta hamarkadetan Estatu Espainolak gauzatutako eskubide urraketen zigorgabetasunak, haustura sozial handiagoen bidetik besterik ez gaitu eramango.

## PROPOSAMENAK

347. Erregimen autoritarioarekin zerikusia duen ikur eta toponimia oro ezabatzea; baita erregimenaren parte izanik, horren krimenak gaitzetsi ez dituzten edo ez zituzten pertsona ospetsuei egindako edozein ohorezko aipamen ere.

348. Herri guztietan, euren atxikimendu ideologiko, politiko edo sindikalaren ondorioz, espedientatuak, baztertuak eta instituzioetatik (publikoak zein pribatuak) kaleratuak izan ziren funtzionario eta langileak birgaiztea.

349. 36ko estatu kolpean eta ondorengo errepresioan parte hartu zuten pertsonak eta erakundeak, udal eta foru instituzioetan zein Gobernu mailan jasotako kondekorazio eta tituluak kentzea.

350. 1977/10/15 eko amnistiaren lega bertan behera uztea eskatzen duten ekimenak sustatzea eta laguntzea. Deuseztapen hau oinarrizko printzipio demokratiko gisa onartzea.

351. Lanerako Mahai Iraunkorra sortzea, bertan Batzar Nagusietan ordezkariak politikoa duten alderdi politiko guztiek parte hartuko dutelarik, Genozidio frankistaren eta estatuaren terrorismoaren biktima zein senideen elkarrekin eta Memoria Historikoa berreskuratzen diharduten eragileekin batera.

352. Genozidio frankistaren biktimak gogoratu eta omentzeko, oroitzapenezko egun ofizial bat sortzea. Egunaren aukeraketa adostua izango da aurrez aipatutako Lanerako Mahai Iraunkorrean.

353. Foru Aldundia eta Udalak elkarlanean arituko dira hobi komunak mapa eratzeko, gorpuak lurpetik ateratzeko eta DNA bankua sortzeko. Protokolizatutako exhumazioetan idazkari judizialek, bake-epaileek, udal idazkariak, eta Ertzaintzak -polizia zientifiko gisa- parte hartuko dute.

354. Foru Aldundiak ezarriko du edozein ekintzaren gaineko arau esparrua. Bizkaian egiten diren exhumazioen kasuan, nazioarteko legezkotasunak adierazten duen arlo soziopolitiko, juridiko eta tekniko hartuko dira kontuan. Errepresaliatu eta hildako gehienak, euren ideiegatik jazarriak izan ziren, eta eraiketa horiek oraindik ez dira argitu.

Hala, ondorengo **bost puntuak proposatzen ditugu lan ildo gisa:**

355. 1936ko altxamendu militarren eta Estatuaren terrorismoaren biktimak aurkitu, dokumentatu, hilobitiki atera, aztertu eta identifikatzeko (DNA frogen bitartez) protokoloa ezartzea, zeinetan ezinbesteko elementu izango dira haien erregistroa eta balioztatzea nazioarteko legeek zigortutako delituen froga edota zantzu material gisa, hilobitiki ateratzeko prozesuetan akta judizialak idaztea barne. Horrek eskatzen du, aldi berean, lana garatzen den bitartean aurkitutako froga eta zantzuak gordetzeko katea bermatzeko bitarteko ofizialak ezartzea.

356. Dokumentazio eta ikerketa historikorako prozesuak definitu eta balio juridikoa duten ahozko lekukotzak jasotzea, ezarritako protokoloen arabera.

357. GGEEen urraketa kasu guztien espediente dokumentalak sortzea, jatorrizko dokumentazioa edo balioztatutako kopia atxikita edo, halakorik ez balego, jatorrizko iturrien aipamen deskriptiboak txertatzean.

358. Gertaeren kalifikazioa egitea, gizateriaren aurkako krimenen, genozidioaren eta gerra krimenen inguruko nazioarteko itunetan jasotako maila juridikoen arabera. Zehazki, Estatuaren gobernuari emandako dokumentazioari dagokion kalifikazio aldaketa exijitu egiten zen, balio judizialik gabeko 2 ekintza edo egoerari lotutakoa, frontean fusilatutako edo hildakoen gaineko kalifikazioaz ari gara. Lehen kalifikaziorako erailketa edo epaiketarik gabeko "exekuzio" eskatzen zen eta bigarrenarako, aldiz, berraztertzea exijitzen zen, behartutako desagerpenak edo gerra krimenen maila desberdinetan sailkatutakoak argi zehaztea.

359. Pertsona errepresaliatu eta biktimen izaera soziopolitikoari errespetua bermatzeko protokoloa ezarriko da. Halaber, beren lotura ideologiko, politiko zein sindikalaren ondorioz espedientatutako, baztertutako eta kaleratutako funtzionario publiko zein erakunde (publiko zein pribatuetako) langileak udalerritik guztietan birgaitu ditzatela sustatuko da.

### **Bizkaiko Foru Aldundiaren papera**

360. Aldundiak, Udalekin batera, aitortzarako ekitaldiak sustatuko ditu dagozkion udalerrietan askatasunaren alde eta faxismoaren kontra borroka egin izanagatik fusilatutako eta zapalkuntza pairatu izan duten funtzionario, udal langile, zinegotzi, alkate edo bizilagun guztiak gogoratzeko.

361. Hezkuntzako langileekin batera, arlo anitzeko curriculum-materiala sortuko da DBH eta Batxilergorako, zeinetan garai guzti honetan gertatutako gizateriarekin aurkako krimenak eta genozidioaren zergatiak, ondorioak eta berriro ere ez errepikatzen bitartekoak jorratuko diren.

362. "Memoriaren guneen" zentsua sortu eta HAPO zein hirigintza araudi desberdinetan "babestutako zonalde urbanizaezin" izendatuko dira.

363. Jabetza publikoari ebatsitako ondarea bueltaraziko da.

364. Artxibo publiko guztiak memoria sustatzen duten Elkarte eta Taldeen esku egongo dira, beren ikerketa lanak errazteko asmoz; baita herritarren esku, eta Aldundia beharrezkoak diren izapideak egingo ditu (Espainiako estatuarekin, elizarekin) Memoria Elkarte eta Taldeek behar dituzten agiriatarako sarbidea ahalbidetzeko.

365. Bizkaian memoria eta Frankismoaren biktimen Talde eta Elkarteentzako zentroa ezartzea, ikerketa gune, artxiboa, azterketa gune, zabalkunderako leiho, museo eta erakustoki izateko.

366. Arlo honetan, elkarlanerako hitzarmena egingo da EHUrekin.

367. Aldundiak bere gain hartuko du Bizkaiko lurraldean faxismoaren aurkako borrokan bizitza galdu zutenen gorpuak hobitiki ateratzearen kostua.

368. Aldundiak 500.000 euroko aurrekontua bideratuko du Memoriarekin lotutako proiektuak diruz laguntzeko.




## EUSKARAZ ETA EUSKARATIK BIZI DEN BIZKAIA #BIZKAIAURDINA

### 5.1. HIZKUNTZA

Bizkaia lurralde euskalduna da: biztanleen %58tik gora euskaldunak edo ia-euskaldun dira. Gainera, 2 eta 30 urte bitarteko gazteen belaunaldia ia-ia osorik da euskalduna. Baina oraindik asko dira euskalduntzeko eskubidea izanik ere, erdaldun elebakarrak direnak. Herritar horiek euren aukera-eskubidea murriztuta dute, eta horren bitartez gainontzeko euskaldunok ere bai, elebakarrekin espainiera erabiltzera bultzatzen gaituzte eta.

Horrela, gure lurraldearen eremu jakin batzuetan euskara oso arrotza da oraindik, eta berdin gertatzen da gizarteko zenbati esparrutan ere.



Argi dago gure hizkuntzak azken hamarkadetan egin dituen aurrerapenak erakusgarriak direla mundu mailan. Baina alarma gorria piztu da. Goranzko joera moteldu egin da eta, lehenengo aldiz datuak batzen direnetik, euskara gaitasunak atzera egin du.

Urtea	Guztira	Euskaldun	Ia Euskaldun	Erdaldun
1981	100,0	14,9	13,4	71,7
1986	100,0	17,7	17,8	64,5
1991	100,0	18,9	20,5	60,5
1996	100,0	23,7	20,8	55,5
2001	100,0	25,0	24,8	50,2
2006	100,0	31,3	23,0	45,6
2011	100,0	31,2	27,1	41,7

Baina, oraindik ere erabilera oso urrun dago ezagutzatik. Gainera, azken urteotan behera egin du, lehen aldiz: 10,7tik 9,4ra. Hain zuzen ere, 1993. urte aurreko datuetara bueltatu gara.

Ikasleen %40k euskalduntzen ez duten eredueta ikasten dute:

A	B	D	X
31.918	39.007	109.281	2.053

Arlo horretan ere beste alarma gorri bat piztu da. Datuak hobetzetik urrun, lehen aldiz D ereduak behera egin du.

Bizkaiaren ezaugarri garrantzitsua da bere herri gehienek euskalduntasuna. Hain zuzen ere 43 dira %70etik gora euskaldunak dituzten udalerriak. Hala ere, gune soziolinguistiko euskaldunenetan (euskararen amasguneak) geldialdia sumatzen ari da: euskaldunek proportzioan galdu dute eta etxe barruko hizkuntza gero eta gutxiagotan da euskara.

Hori guztia zerbaiten seinale da: EAEn Eusko Jaurlaritzaren eskutik orain arte aplikatu den hizkuntza politikaren emaitza nagusiak begi bistakoak dira Bizkaian ere: euskaraz aritzeko gaitasuna duten hiritarren kopurua igo egin da, bai, baina nagusiki zonalde erdaldunenetan (euskaraz bizitzeko eta aritzeko aukera gutxiak duten inguruetan) eta ostera, udalerririk euskaldunenetan gero eta erdaldun elebaker gehiago dago. Euskaldunon hizkuntza eskubideak etengabe urratuak diren honetan, bai arlo pribatuan, bai publikoan, euskara, oraindik ere, bigarren mailako hizkuntza dela sentiarazten zaigu behin eta berriro.

Ezin ahaztu, dena dela, gure jendartearen jarrera nagusia euskara sustatzearen aldekoa dela. Horretara goaz, hain zuzen ere, euskaldun kopurua igo, erabilera hedatu, amasguneak zaindu eta eskubideak bermatzera.

Horretarako hizkuntza politika berria bultzatu nahi dugu. Euskarari bere lekua emateko eta euskaldunei beren eskubideak errespetatzeko. Hizkuntza politika horrek honako ezaugarriak izango ditu:

- **Beregaina:** Gure errealitatea kontuan hartuta eta euskalduntzea helburu, bertan garatutako politika, kanpo esku-hartzerik onartuko ez duena. Erasoei aurre egiten jakingo duena.

- **Hizkuntza-eskubideak bermatzera bideratua:** euskaldunon hizkuntza-eskubideen bermeak gidatu behar du erakundeen jardueran, jendartean harreman parekideak lortzeko eta gizarte kohesioari laguntzeko.

- **Herritarrekin eraikia:** Herritarren bultzada izan da euskarari putzu sakonetik ateratzea ahalbidetu diona. Euskalgintzari protagonismo osoa zor zaio normalizazio prozesuan. Administrazioetik bultzatutako politikek herri-ekimenak sustatu, babestu eta laguntzea bilatuko dute, hizkuntza eskubideen bermea bilatzeaz batera.

- **Eraginkorra:** Azterketatik abiatuta eta errealitatea aldatzera begirakoa. Aurrerapen tekniko, teknologiko eta metodologikoak erabilia diagnostiko egokiak egin eta normalizaziorako bidean egiturazko erabakiak proposatuko dituena. Epeetan oinarritutako plangintzak ardatz izango dituena, etengabeko hobekuntzarako eta ebaluaziorako tresnez hornitua.

- **Ilusio sortzailea:** Inor kanpoan utzi gabe, askatasuna eskuratzera bideratutako politika, hizkuntza hautua egin ezin dutenei horretarako aukera emango diona. Euskaldun izateko aukerarik izan ez duenari eskubide hori bermatuko diona.

- **Baliabide nahikoz hornitua:** Euskararentzat estrategikoak diren ildoak (Helduen Euskalduntze-Alfabetatzea, hedabideak, zerbitzu publiko guztien eskaintza, ...) bereziki babestuko dituena beraien jarduna egonkortuz.

- **Zehar-lerrotasunean garatua:** Jendartearen esparru guztietarako eta administrazioetako departamentu guztietarako baliozko diren neurri eta irizpide orokor batzuk definituko dituena, euskara zerbitzu-hizkuntza gisa nahiz lan-hizkuntza gisa erabilia izan dadin.



## PROPOSAMENAK

### Administrazioa euskaldundu

369. Euskararen zehar-lerrotasuna bermatzeko, Euskara Zuzendaritza sortuko dugu, organikoki Ahaldu Nagusiaren Kabinetearen zuzeneko menpekoa izango dena.

370. Euskararen lehentasuna eta prebentzioaren ikuspegia barneratzen dituen hizkuntza-araudia ezarriko dugu gauden erakundeetan. Euskara eta euskaldunok bigarren mailako izatera kondenatuta egon ez daitezen, hizkuntza-irizpideak indarrean jarriko ditugu.

371. Aldundiak eta Udalek indarrean ezarriko dituzte administrazioa berreuskalduntzeko eta euskaldunon hizkuntza-eskubideak bermatzeko hizkuntza-politikak.

372. Beren jarduera dagoeneko euskara hutsez garatu dezaketen atalak 'atal euskaldun' izendatuko ditugu, eta jarduera euskaraz egiteko urratsak eta epeak zehaztuko ditugu.

373. Zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzea bilatuko dugu.

374. Erakundeen kontratazioetan hizkuntza-baldintzak sistematikoki ezarriko ditugu.

375. Erakundeetan euskarazko harremana bermatuko zaio euskaldunari.

376. Erakundeetan euskara lan-hizkuntza izatea bultzatuko dugu.

377. Erakundeen arteko harremanak euskaraz izatea bultzatuko dugu.

### Herritarren euskalduntzea

378. Helduen euskalduntzean doakotasunerantz urratsak emango ditugu. Bestelako administrazioekin eta arloko eragileekin elkarlanean, diru laguntzen eraginkortasuna bilatuko dugu, arreta berezia ezarri gizarte egoera zailenetan dauden herritarrengan.

379. Herritar guztiak euskara ikasteko eskubidea dutela kontuan hartuta, Jaurlaritzaren inplikazioa bilatuko dugu doakotasuna lortze aldera, berea baita azken erantzukizuna.

380. Belaunaldi berrien euskalduntzea ziurtatuko duen eta euskal curriculumak garatuko duen hezkuntza sistema propioa bultzatu eta lagunduko dugu, Espainiako LOMCE legearen mehatxuaren aurrean.

### Alor sozio-ekonomikoaren euskalduntzea

381. Administrazioetako kontratazioetan hizkuntza irizpideak ezarriko ditugu.

382. Euskara Ziurtagiriak eta euskara planak dituzten enpresak hobetsiko ditugu.

383. Enpresei beren zerbitzuak euskalduntzeko diru laguntzak eskainiko dizkiegu.

384. Beren zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituzten enpresak sustatuko ditugu.

385. Euskarari arrotzak zaizkion sektoreak euskalduntzeko bideak erraztuko ditugu.

### **Euskarazko hedabideak**

386. Euskarazko hedabideei lehentasunezko tratua emango die Aldundiak.

387. Euskarazko hedabideen sektorea bultzatuko dugu Bizkaian, euskalduntzearen motor izan dadin.

388. Eskualde mailako komunikabideak bultzatuko ditugu.

389. Komunikabide publikoetan eragingo dugu, euskaraz lehentasuna izan dezan eta, erdarazko saioetan ere, euskaldunak euskaraz ager daitezen.

390. Hizkuntza irizpideak ezarriko ditugu diru-laguntzak eta publizitatea esleitzerakoan.

### **Sentsibilizazioa**

391. Euskaldun izatearen kontzientzia eta euskaraz bizitzeko jarrera indartzeko sentsibilizazio ekintzak egingo ditugu, euskaraz bizitzeko erraztasunak eskaintzearekin batera.

392. Euskaraz biri diren eta euskaraz bizi nahi duten herritarrenganako enpatia eragiteko herritar erdaldunei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak egingo ditugu.

393. Euskarara berriki hurbildu direnei edota euskara azterketekin lotzen dutenei euskaraz jarduteko animoa eta bidea emango diegu, euskaldun sentitu eta euskaldun ager daitezen.

### **Lankidetzeta gizarte eragileekin eta euskalgintzarekin**

394. Herritarren zuzeneko parte-hartzea antolatuko eta erraztuko dugu.

395. Euskalgintzarekin zuzeneko harremana izango dugu hizkuntza-politikaren nondik norakoak adosteko.

396. Jendarteko eragile guztien inplikazioa bilatuko dugu euskararen normalizazioa guztiontzat eta guztiona dela ziurtatzeko.

397. Euskara batzordeen eraginkortasuna bilatuko dugu, hizkuntza-politika zehazten, ezartzen eta ebaluatzen benetako lantalde eraginkorrak izan daitezen., arloko eragileen parte hartze zuzena ahalbideratuz.

### **Familia transmisioa**

398. Familiak euskararen transmisioan duen garrantziaz jabetuta, beraien euskalduntzea errazteko estrategiak garatuko ditugu.

399. Tokian tokiko hezkuntza-eskaintza aztertu eta euskaraz erabat murgiltzeko baliagarria den eredia sustatzeko kanpainak egingo ditugu.

400. Familiek elkarrekin parte hartzeko ekitaldi euskaldunak lehenetsiko dira.

### **Aisia eta kirola**

401. Aisialdia eta kirola euskalduntzea bultzatuko dugu.

402. Arlo hori bereziki landuko da gazteen erabilera ez formaleko gaitasuna indartzeko.

403. Gazteriari begira egingo den eskaintza euskaraz izatea bermatuko da.

404. Diruz lagunduko diren elkarteek (taldeak, klubak...) bermatuko dute beren jardueretan euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatuko dituztela.

405. Gure kultura, historia, ohiturak eta usadioak gaurkotzen eta iraunarazten dituzten ekimenak hobetsiko ditugu. Euskarazko sormena bultzatu nahi dugu: produkzio molde berriak, tokikoak, eguneratuak, parekideak, ekologikoak... auzolanean eraiki.

## 5.2. KULTURA

Euskal herritar orok bere herriaren historia, ohitura eta kultura ezagutu eta sakontzeko eskubidea du; era berean, eskubide osoa du beste herrialdeetako kulturak ezagutu eta bereganatzeko. Kultura, hizkuntza, hezkuntza eta beste zenbait eskubideren moduan, herri eskubide kolektiboa izateaz gain, pertsona bakoitzak duen eskubide indibiduala ere bada. Beraz herritarrei auzo-herritik hasiz Euskal Herri mailan sorturiko kulturaren jabe eta partaide izatea zor diegu.

EH Bilduk Euskal Herriak bizi duen aniztasun kulturala aldarrikatzen du, ekosistema bizi gisa. Kulturak egunerokoan osatzen eta eguneratzen doazen egitura sozialak diren neurrian, inguruarekin harremanak eta inguruarekin solaskidetzan ulertzen ditugu. Horren baitan, euskal kultura eta euskarazko kultura ditugu aniztasun guzti horren kohesionatzaile eta ardatz.

Halaber, kultura gizarte eraldatzaile ere badela uste dugu. Izan ere, kulturaren bidez jendarteak eraiki eta eraldatu egiten da balio ezberdinen sustapenaren bidez. Horien artean bereziki azpimarratzen ditugu: feminismoa, aniztasuna, elkartasuna, internazionalismoa, ekologismoa, parte-hartzea, etb. Kultura, entretenimendu edo aisialdi soila baina askoz gehiago da; kultura gizarte baten garapenerako ezinbesteko elementu bat da; herri baten oinarri sinbolikoa elikatzen duen lehengaia. Gizarte batean kultura mota ezberdinak elkar bizi dira, baina ezinbestekoa izan behar da guztiak lotu, kohesionatu, aglutinatuko dituen bat izatea; herri honen bizinahia elikatuko duena; kasu honetan, euskal kultura ekarriko genuke lehen plano horretara.

Azkenik, herritarren autoeraketa eta enpoderamendua bilatuko duen kultur ereduaren alde egiten dugu; herritarrek sortzaile eta parte hartzaile izango dituen. Horretarako auzolana oinarri izango duen herritik sortutako eta herriarentzako kultura bultzatuko dugu, administrazioa laguntzaile izango delarik.

## PROPOSAMENAK

406. Bizkaiko Kultura Mahaia sortuko dugu. Bizkaiko kulturaren diagnostiko konpartitu batetik abiatuta, bilgune bat osatzea beharrezko jotzen du EH Bilduk. Espazio berriak sortzearen alde egingo dugu, bertan kultur eragile eta sortzaileak, eta erakunde publikoak bil daitezten kultur jardunaren inguruan erabakitzeko, organo instituzionaletatik kanpo.

407. Euskarazko kulturaren oinarritutako kultura politika ezarriko dugu. Horretarako, elkarren osagarri izango diren hizkuntza politika eta kultur politika landuko ditugu.

408. Kultura saretzen egitasmoa: Kultur teknikarien koordinazio-gunea sortuko dugu. Bizkaiko Udal guztietako kultur arduradun politikoak eta Aldundikoak elkarlan egonkorrean aritzea sustatuko dugu.

409. Bizkaiko kultur azpiegiturak: Inbertsioen eta beharren mapa eguneratuko dugu. Honek lurralde oreka ez ezik, eskualdeen baitako eta kultur eremu eta espresioen arteko oreka sustatzen lagunduko du. Helburua kudeaketa eta erabilera sortzailea proposatzea.

410. Kultura zirkuituak eratuko ditugu, eta euskal sortzaileen katalogoak eskaini. Era berean, kulturaren kontsumoa sustatzeko plana garatuko dugu, gizarte eragileen, profesionalen eta instituzioen arteko lankidetzara iraunkorra bermatuz.

411. Euskal kulturari ikusgarritasuna, lehentasuna eta plazak eskainiko dizkiogu.

412. Bizkaiko museoen sarea indartuko dugu.

413. Bizkaiko Kultur Ondarearen gaineko zaintza eta balioan jartzeko plana abian jartzea. Ondare horien gaineko inbentario integrala eta zabala bultzatuz zein ondarearen babeserako baliabideak handituz.

414. Kultura herritarraren aldeko baliabideak ugalduko ditugu, besteak beste, artista gazteei eskaintzen zaizkien bekak handituz, tokiko artistei aukerak eta espazioak eskainiz, tokiko kultur baliabideei laguntza larriak handituz, tokiko museoak sustatuz zein gure kulturari loturiko kultur adierazpideak sustatuz.

415. Aisian, kultur-jardueratan eta herriko jaietan emakumeen parte-hartzea bermatu:

a) Edozein jardueraren diseinuan emakumeek parte hartzea bermatu behar da. Eta jarduera gauzatzerakoan emakumeek parte hartzea.

b) Dirulaguntzak ematerakoan, garrantzia berezia emango zaio aurreko puntuari, hau da, ekintza antolatzerakoan emakumeen parte-hartzea bermatzeari eta ekintza garatzerakoan emakumeen parte-hartzea sustatzeko egingo diren ekimenei.

## 5.3. KIROLA

Kirola eskubide gisa ulertuta, herritar orori bermatu behar zaizkio kalitatezko kirol praktikarako sarbidea eta kirol praktikatzeko baldintza duinak. Berau dugu pertsonaren garapen integralerako zein bizi kalitate oneko gizarte kohesionatu eta osasuntsua lortzeko giltzarrietako bat.

Bide horretan, ezinbestekoa dugu kalitatezko kirola:

- Gorputz garapen harmoniko eta osasungarria eta kirol jardute ohiturak eskuratzeko. Horretarako, hezkuntza prozesuaren adin guztietan heziketa fisiko eta kirol-aukerak hobetu eta zabaltzearen aldeko apustua egiten dugu; arreta berezia jarri adin txikien artean kirola sustatzean, ordutegi egokiak bermatuz.

- Formazio egokia izango duten kirol hezitzaile/entrenatzaileak izango dituen, hori ahalbidetuko duen etengabeko formazioa eskainiz.

Kirola funtsezko elementua dugu Euskal Herriaren kohesio, egituratze eta nazioaren garapenerako.

- Nazio identitatea eta gure sinboloak suspertuz.

- Euskararen normalizazioan urratsak emanez.

- Euskal kirol eredu propioa egituratzeko giltzarriak diren egiturak (federazio, elkarteak...) eta lehiaketa-markoa definituz eta egituratuz.

- Herrialdeen arteko kirol-estrategia eta ekintzak partekatuz eta elkarlanean arituz.





## PROPOSAMENAK

### Denontzako kirola

416. Erakunde eta sail arteko elkarlana sustatuz herritar guztiak aktibitate fisikora sarbidea izateko, programa zehatzak garatuko ditugu aurrekontuetan diru lerroak jasoz. Bereziki gazte eta adinekoen sektorean indar berezia ezarriaz.

417. Eskualde mailan dauden txartel mankomunatuak oinarri hartuta, herrialde mailako kirol txartel bakarra ezartzen saiatuko gara.

418. Herritar orok sarbidea izan dezan udaleko kirol azpiegitura eta zerbitzuetara, bakoitzaren diru sarreraren arabera kuota ezarriko ditugu, eta irizpide sozialak aintzat hartuko ditugu, bakoitzaren egoera ekonomikoak baldintza ez dezan kirol praktika.

419. Kiroletik egoera edo portaera homofobiko, transfobiko edo genero aukera ezberdinen aurkakoetan jatorria duen edozein diskriminazio mota errotik kentzeko oinarriak ezarri.

420. Herritarren artean prebentzioa eta ohitura osasuntsuak landu eta bereganatzeko norbanako zein kolektibo gisa herritarren ahalduntzea, formazioa saioak antolatuko ditugu:

a) Elikadura osasuntsua / Ohitura osasuntsuak / Aktibitate fisikoa.

b) Berdintasun politikak (Indarkeria matxista...) / Heziketa Sexuala.

421. Aldundiko Kirol Zerbitzuak lidergoa hartuz foru-departamendu guztiak (azpiegitura-lurralde antolaketa, gazteri, euskara, kultura, Ongizate, ...) eta ondoren gainontzeko eragileekin (hezkuntza, Osasuna, lan mundua, komunikabide eta komunikazio kanpainak,...) herritar aktiboak sortzeko estrategiak eta aliantzak eragin eta egiteko, guneak sortu.

422. Kirol eremuko foru dekretu bat osatzea, genero berdintasunean oinarritua, kirol kudeaketa eremuan bereziki emakumearen presentzia indartu eta sustatuko duena.

423. Kirol feminizatu eta maskulinizatuen esparruak gaitzeko neurriak sustatuko ditugu. Bereziki bultzatuko dugu kirol feminizatuetan gizonen parte hartzea eta, alderantziz, kirol maskulinizatuetan emakumeen parte hartzea. Estereotipoekin hautsi duten erreferente interesgarriak ezagutarazi.

424. Emakume helduen jardura fisiko eta kirol praktikarako aukera malguak bideratzea.

425. Herrialdeko komunikabideekin hitzarmenak sinatu herriko emakume kirolari edo taldeen berriari toki gehiago emateko.

426. Herrialdeko emakume kirolarien lorpenak azalarazten dituzten materialak sortu (egutegiak, kartelak, triptikoak...).

427. Feminizatuak diren kirol jardueren inguruko ekitaldi publikoak egin (aerobik, maratoia, fitness eguna...) eta hauetan gizonen parte-hartzea ere sustatu.

### **Kirol egitura**

428. Federazio bakoitzak Berdintasun plan bat izateko elkarlana abiatu.
429. Federazioek lehiaketa kirolaz gain partaidetza kirola susta dezaten elkarlana abiatu.
430. Euskal kirol egitura sendoa eta lehiaketa markoa eraikitzen joateko, erakunde arteko, kirol egitura eta kirolari eta epaileen ordezkariak bilduko den gunea sutatu eta sortzeko bideak ireki.
431. Kirolaren esparru guztietan Euskal Herriko beste lurraldeekin kirol estrategia eta ekintzak partekatze bide instituzional berriak irekitzen ahaleginduko gara.
432. Bertako kirol modalitateetarako laguntza esparrua optimizatu.
433. Elkarrekin bizitza, herritarren parte-hartzea eta boluntarioria sustatu.
434. Kirol jardueraren bidez euskararen normalizazioa sustatu, euskarazko hiztegi tekniko eta materialen sorrera bultzatu.
435. Kalitatezko kirol praktika garatzeko, kirol munduan maila desberdinetan arituko diren hezitzaile eta oro har herritarren formazioa eta ahalduntzea sustatu eta bideratzen saiatuko gara, eskura ditugun bitarteko publikoak lehenetsiz eta optimizatuz, Aldundien eta Jaurlaritzaren menpean dagoen Kirolene kirol formazioa zentroarekin elkarlanaren bidez.
436. Aldundietatik udal-kirol zerbitzuak koordinatu eta laguntzen saiatuko gara. Udal kirol zerbitzuak kiroldegia baino gehiago bilaka daitezkeen ahaleginduz. Zentzu horretan, parte-hartze bideak irekitzen saiatuko gara, egitura sendoak eraikitzea xede izanik.
437. Aldundi eta Jaurlaritzak elkarlanean federazioen egituraketa optimoago eta eraginkor baterantz urratsak emateko elkarlana sustatu.
438. Txapelketatan emakumezko eta gizonezko kategorietan sari berdinak eman.
-

BIZKAITARROK

*garaile!*

para decidirlo

*todo*